EGAN

5-6

1957

Suplemento de Literatura del Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País
Redacción: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Palacio de la Diputación de Guipúzcoa

SUMARIO

Pags.

Adiskide Berri: Izkuntzak Gales'en. 267

Onaindia, Arrugain, Gandiaga, Erkiaga, Th. Hardy, Satrustegi y Pagogaña: Olerkiak... 272 y 301

Etxaide'tar J.: Aita Mendiburu... 279

G. Courteline: Mutiko gaxoa..... 284

J. M. Lojendio: Lagun urkoa 286

«*Txillardegi*»: Orangutanen ugartea 289

G. Aresti: Gabonetako ipuin tristea. 296

A. P. Aranguren: Aita Astarloa, euskal idazlea..... 309

A. L. Villasante: Leturia'ren eguñkari ezkutua 328

M. L.: Bayona'ko batzarra..... 333

Urruzola'tar E.: Ori alda euskera? 336

Ayalde: Marc Chagall..... 339

D Peillen, A. Irigoyen: Munduz mundu..... 341

A. A.: Jan-edanak..... 348

Aphat-Etxebarne: Naas-Maas 350

Ibalan: Gure teatroaren inguruan.. 358

L. Mitxelena: Zinema..... 361

Adabakiak..... 356

Liburuak..... 363

N. Alzola: Euskal-bibliographirako oarrak 367

Arkotxa'tar J. A.: Gabon-gabontzeta..... 375

DIRECCION Y REDACCION:
A. Arrúe, A. Irigaray y L. Michelena.

Números 5 - 6 Septiembre-Diciembre 1957.

BILINTX
Fermín Calbetón, 30
Esterlines, 10
Tel. 420930 - 420224
DONOSTIA - 3

EGAN

EGAN

SUPLEMENTO DE LITERATURA DEL BOLETIN
DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS

Redacción: SEMINARIO URQUIJO DE FILOLOGIA VASCA
Palacio de la Diputación de Guipúzcoa - SAN SEBASTIAN

II Epoca Vol. XI Septiembre-Diciembre 1957

ADISKIDE BERRI

IZKUNTZAK GALES'EN

Aurten agertu da *Estructuralismo e Historia* deritzan A. Martinet'i eskaiñitako gorazarrearen leen liburua. Or arkitzen da onako idazlan au, beste zenbaiten artean: Herbert Pilch, "Le bilinguisme au Pays de Galles".

Espezialistentzat egiña izanik, emen gutxirentzat lirakean zatiak baditu. Beste batzu, ordea, gogoz irakurriko dituzte euskeraren etorkizunaz kezketan dabiltzan euskaldunek. Galesezko itz eta esaldiak, egilleak berak itzuliak eztaudenean, Jon Mirande adiskideari eskerrak euskeratu dira, neronek ezpaitakit tutik ere galesez.

Herbert Pilch'ek du, beraz, itza emendik aurrera. Oin-aldeko oarrak ere bereak dira parentesis-artean ezpadaude: onelakoak nere baitarik ipiñi ditut.

* * *

Gaur den egunean, elebitzarik, bilinguismurik, ezta Gales-erri osoan. *Cymry Cymraeg* (galesez dakiten galestar) direlakoen artean bakarrik ageri da. Auek, 1951'ko estatistikak dionez, 673.531 iru urtetatik gorako lagun dira: Gales-erri osoa kontuan artzen badugu, euneko 27,2 baiño geixeago. Bada, orrezaz gaiñera, galesez dakienik franko Ingalaterra'ko zenbait iri larritan. Galestarrik geienak eztira galesez mintzatzen: 1.757.743 lagun, au da, euneko 61,1. *Cymry di-Gymraeg* (gales erdaldunak) dira batzu, *Cymry wedi eu seisnigeiddio*

(gales ingelestuak); besteak berriz Gales'en bizi diren ingeles eta bestetariko arrotzak. Gales utsak *(Cymry uniaith)* eztira ia aipatzeko adiña ere, ezpaitira 41.155 lagun baizik, euneko 1,7. Auetatik gaiñera euneko 40,1 amalau urtetatik beerakoak dira, ingelesez gero ikasiko dutenak alegia. Ezta erraz arkitzen, egia esan, mendi-bakardadean ere, erderaz nekez mintzatzen den artzairen bat edo beste.

Cymry Cymraeg direlakoak sartaldean bizi dira batez ere. Anglesey, Caernarvon, Merioneth, Cardigan, Carmarthen errialdeetan, Pembrokeshire'ko ipar-aldean eta Dembighs. eta Montgomeryshire'ko sartaldean, euneko irurogei ta amarrek baiño geiagok badakite galesez. Flints., Radnors., Brecknocks., Monmouthshire errialdeak eta Glamorganshire'ko erri larriak, aitzitik, ia zearo erdaldunduak daude. Industri-lekuak eta arrotzak udaldean erakartzen dituztenak erdaldunagoak dira, jakiña, inguruko baserriak baiño. Auek ongi eusten diote galesari sarri aski.

Gizarteko ar-emanei begiratzen badiegu, auxe ikusiko dugu bereala: goragoko mallan dagoela ingelesa, ezin esan ala goragokoan ordea. Galestarrak, batez beste, arro mintzatzen dira ingelesez, beren izkuntzaz maiz lotsatzen direlako edo. Ingelesez mintzatuko zaizkio ez-ezagun bati. Naiz trenean naiz estazioetan naiz beste edozein jendarteko lekutan, orrelako baten aurrean galesez mintzatzeko, nork bere burua zuritu bear izaten du aurrenik, barka-eske. Galesez ari badira bi lagun, naikoa izaten da irugarren batek "izkuntza aspergarri ori" uzteko eskatzea leenbiziko biek amor emateko. Ingelesera jotzen dute bereala auzo-batzarretan batzarkide bat bakarra erdalduna bada. Elitzake eziñezko gauza izango, nere ustez, arrotz bat Gales'en luzaroan bizitzea ingelesaz beste izkuntzarik badela sumatu baiño leen.

Ona beste bat. Askotan galesek eztiote galesez itzegin nai arrotz bati. Amaika aldiz gertatu zait onelako parregarrikeriren bat: galesez mintzatu natzaio dendari naiz baserritar bati, edota galesez aurkeztu naute galestar bati "badaki galesez" esanaz, eta ingelesez erantzun didate. "Izkuntzarik dotoreenean" agurtu nai kanpotarra, alegia, igandetako arropakin agertu nai duten bezala aren aurrean. Eztaude bi bide besterik galesez mintzarazteko: "eztirudi galesez dakizunik" esatea edo ingelesez eztakigulakoa egitea. Errukiz eta erdeiñuz egoten zitzaizkidan begira, azkeneko bide onetatik abiatzen nintzanean. Amaika aalegin egin dituzte galesez niona ingelesez nola esaten den erakutsi bearrean gizarajo oni.

Ertzain edo polizi-mutil britanikoek badute gizalegea, iñork badu, eta egiten diezun izkuntzan erantzungo dizute beti. Badira ere zenbait buru-langille galesez mintzatu bear dutenak egokitzen zaien aldiro. Gales-elkartasun bat *(Urdd Siarad Cymraeg)* etengabe ari

zaie beren erritarrei galesez mintza ditezen. Elkartasunean sartzeko, zin egin bear dute "galesez mintzatuko direla nonnai, lotsarik gabe, beren artean". Orrelako ziñak eskatu bearrak berberak ez ote du azaltzen ezerk baiño argiroago gales izkuntzak gizartean duen egoera narrasa?

Egoera oni eskerrak, Gales-erri osoan barrena ibil daiteke ingeles bat merkataritzan, erostunen izkuntzaz arduratu gabe. Maiz ikusten da erri koxkor gales uts batean ingeles uts bat tabernari (1). Eztu, ez, eskatu bearrik izaten bezeroei ingelesez mintza dakizkion, arro mintzatzen baitzaizkio auek beren "izkuntza apaiñean". Tabernariak, zer esanik ez, eztu orrelako sasi-izkuntza bat ikasteko ez gogorik ez asmorik. Nork idukiko dio begiramenik, izan ere, bere buruari begiramenik eztion erri bati? Arrazoi du noski Melville Richards'ek galesaz ari dela: "Lotsa obea diote Whitehall'en (2) Gales'en baiño." Historiari bagagozkio, gutxietsia izan da luzaroan gales izkuntza, eskoletatik eta gizartetik baztertua, ingelesa geldi zedin jaun eta jabe. Londres'ko gobernuak utzia du politika ori, baiña politika orren ondoreak eztira orregatik aitu.

Ingelesa da oraindik izkuntza ofiziala merkataritzan, albistarietan, ikastetxeetan eta Universitatean: galesak eztu sarrerarik atzeko atetik baizik (3). Badira zenbait gales astekari. Egunerokoetan ere maiz agertzen dira zerrenda bat edo bi galesez. Bizpairu orduko irratsaioak egiten ditu B.B.C.-k egunero. 1939'an asi ziren aur-eskolak. Lizeoetan irakasten dute galesez, baiña frantsesez edo alemanez bezala, izkuntza arrotz baten gisa. Gales'ko Universitatean galesa erabiltzen dute zelta-saillean. Leku batean ageri da nagusi gales izkuntza: ez-konformisten elizan. Ongi ezaguna da galesezko Bibliak literatur-izkuntzan izan duen eragiña. 1920 aurretik, etzuten aurrek galesez irakurtzen eta idazten ikasten Biblia irakasten den igande-eskoletan *(Ysgol Sul)* baizik. Ezta orratik galesez batere eskolarik eztuenik. Erdaldunak ere galesezko elizara joaten baitira: ez iruditzen nonbait erlijioa ingelesez erlijio denik. Galesa da gaiñera onako elkartasun auen izkuntza ofiziala: *Eisteddfod Genedlaethol* (Idazle eta musikarien erri-billera), *Plaid Cymru* (Gales'ko alderdi abertzalea) eta *Urdd Gobaith Cymru* (Gales-gazteri-elkartasuna).

Itz bearrean arkitzen da galesa ia beiñere erabiltzen ezten barrutietan. Ingelesetik artzen dira orduan itz zaar aaztuen ordekoak. Ingelesetik artzen ere dira atzerriko izenak eta teknika-itz interna-

(1) Gales'ko ez-konformistek eztituzte ontzat artzen edari ordigarriak eta pekatuzko lanbidetzat daukate tabernaritza ori dela bide. (Zorionean ezta orrelakorik gertatzen gure artean.)

(2) (Londres'ko gobernuak, alegia.)

(3) (Ez, ordea, iñork debekaturik daukalako.)

zionalak eta, jatorrizko izkuntzatik artu eta mintzaera galeseratu bearrean, ingeles antzera esaten dira. Iru sail auetan gertatzen da ori batipat.

a) Leku-izenetan. Alferrik zen askorekin *Almaenwr* (alemana) nintzala esatea: *German* gaiñeratu bear. Orixe gertatzen da, esate baterako, onako izen auekin ere: *yr Eidal* (Italia), *Ynys yr Iâ* (Islandia), *yr Alban* (Eskozia), *Llydaw* (Bretaña), *Caergystennin* (Konstantinopla), *Efrog Newydd* (New York), etc. Gales'ko izenak berak ere ingelesez esaten dira batzuetan (4).

b) Erri-gobernu gaietan. Onelako itzak erabiltzen dira: *Parliament* (Senedd), *Chancellor of the Exchequer* (Canghellor y Gronfa), *Police* (heddlu), *Director of Education*, etc. (5).

c) Merkataritzan. Ingelesa erabilli oi da tratuan eta merkatari askok eztakite galesez. Emen ere, bada, ingelesera jo bear. *Oranges* (naranjak), *tomatoes* (tomateak), *cotton* (algodoia), *suits* (trajeak), *trowsus* (galtzak) erosten dira. *Bed and breakfast* (oea eta gosaria) esaten da, *tip* (propina), *bank manager* (bankuko direktorea), *bus stop* (autobusaren parada), *siop* (denda), *engineer* (injineroa), *suitcase* (maleta) esta abar (6). Dendetan, ingelesez esaten dira prezioak, eta ingelesez kontatzen dirua. Are geiago: ingelesera jotzen da ia beti kontuetan: *y mae hi'n half past ten*, "amar t' erdiak dira", y *mae ef yn sixty oed* "irurogei urte ditu" (7).

Egunero aipatzen eztiren gauzak, liburu eta albistarien bidez ezagutzen direnak, erdal-itzez izendatzen dira: *morgi* (marrajua), *macrell* (berdela), *crwban* (apo armatua), *gwalch* (aztorea), Eliza katolikoari dagozkion itzak (*mynach* "frailea", *lleian* "moja", *offeren* "meza"). Galesak dira, aitzitik, bertako animalien izenak (*dafad* "ardia", *llygoden* "sagua", *gwybed* "euliak") eta ez-konformisten erlijioarekiko itz guztiak.

---

(4) (Galestarrek, ikusten denez, badituzte guk ez bezala beren izenak, urrutiko erri eta irienak ere: izen jatorrak esan nai dut, ez iñork asmatuak edo antolatuak. Gure artean maiz entzuten dira izenak erdal-itxuran euskeraz ari gerala: Llodio, Aramayona, Oñate, Pasajes, Salazar, Roncal, Toulouse, Burdeos, Dax, Anglet, esate baterako, Laudio, Aramayo, Oñati, Pasaya, Zaraitzu, Erronkari edo Errongari, Tolosa edo nai baldin bada Frantzia'ko Tolosa, Bordele, Akize eta Angelu esan bearrean. Okerragoak Donostia eta inguruetako neska-mutillek beintzat maiz esaten dituzten "joan da *a París*", "etorri da *de Italia*" eta antzekoak.)

(5) (Argi dago noski letra larritan ageri diren itzak ingelesak direla; parentesis-artean daudenak, berriz, itz jatorrak: erabilli bear lirekeanak, alegia, eta erabiltzen eztirenak.)

(6) (Enaiz euskal-itz jatorren billa ibilli; maizenik entzuten ditudanak ipiñi ditut.)

(7) ("Euskeraz" onela mintzatuko giñake gisa ortara: "*las diez y media* dira", "*sesenta* urte ditu". Azkenekoaren antzekorik eztu iñork esaten gure artean; leenbizikoaren antzekorik, enaiz fio.)

Orrezaz gaiñera, millaka ta millaka agertzen dira erdal-itzak gutxien utse denean eguneroko izketan. Onelakoak entzuna naiz: "Yr wyf fi'n licio eich leather trowsus. A ydynt hwy'n expensive?... y mae'r temperature yn y nineties... on the fifth of mis Medi... all the best i chwi" (8). Jende arruntak dira, jakiña, onelako esaerak esaten dituztenak, eta badakite onela mintzatzean eztirela jator mintzatzen. Buru-langille, nazionalista, predikari, izlari eta idazleen artean, albistarietan eta B.B.C.-n, eginaalak egiten dituzte onelako erdal-itzak baztertzeko.

Gales itzez moldatutako esaera asko ingelesetik itzuliak dira itzez itz (9). Eta kalkoaz baliatzen dira batez ere teknika-itz berriak sortzeko: *di-wifr*, "wireless", *di-lais* "voiceless", *deurodyn* "bicycle", *is-goch* "infra-red", *marchnad ddu* "black market" (10). Onelako franko sortu dute *awdurdodau am yr iaith Gymraeg* direlakoek (gales izkuntza-gaietan agintariak), baiña ezer gutxi erabiltzen dira izketan. Berek erabiltzen dituztenak baiño jatorragoak direlakoan, buru-belarri ibilliko zaizkizu gales zintzoak itz oriek arrotzari erakustearren. Gero, arrotz gaxoa itz oriezaz baliatuko balitz, eluke iñork ulertuko.

Gales-errian gertatzen dena bera edo beratsua gertatzen da beste zenbait bi izkuntza dituzten erritan: Ipar-Alemania'n, Flandes'en eta baita Ipar-Ameriketan ere jatorrizko izkuntzari eusten diotenen artean.

* * *

An ere, agi denean, txakurrak oiñutsik dabiltza. Enaiz emen asiko gure ta galestarren egoera erkatzen eta berdintzen izkuntzari buruz: irakurle bakoitzari gauza bat baiño geiago gogoratuko zaizkio. Nolanai ere, erbesteko berri jakitea kaltegarria izango etzaigulakoan egin dut ala-olako itzulpen au.

ADISKIDE BERRI

---

(8) (Ingelesez, onela lirake: "I like your leather trousers. Are they expensive? The temperature is in the nineties. On the fifth of september. All the best to you.")

(9) (Gure *illea artu, itzaldi bat eman, eskuan musu eman, arengatik esan, siesta bota;* beste aldean, K. Bouda jaunak seiñalatzen zidan *guganik hurbildu* "s'approcher de nous".)

(10) (Euskeraz, gutxi gora-beera, *ari-gabe, boz-gabe* edo *abots-gabe, bigurpilleko* edo *gurpilbiko, gorri-peko, merkatu beltz.)*

OLERKIAK

HORATIOREN ODAK

EUSKERAZ

III

VIRGILIO DARAMAN ONTZIARI

GAIA: Atenai'ra doa Vergili, itxasoz; ta Olerkariak oles dagio hura daraman ontziari, arren, onez eramateko eskaturik; galzori ezkutuz betea bait-da ur azpia. Bide-batez, mingots maiseatu ta astintzen du gizasemeen ausardia. Naiz-ta gebendua izan, arako dugu joera, ara goaz lasai.

Sic te Diva potens...

Elene'n bi anai, izar distikorrak,
Txipre'ko Erregin, adorez kementsu,
Ta aizeen aita orrek —Yapiga ez beste,
Aize oro jarriz baretsu—,

Zuzendu zazute, ontzi bikaiñena:
Arek bait-darama Vergili guria.
Itzul, otoi, onez Atika mugatik,
Zaindu ene bizitz-erdia!

Galtzairuzkoa zun bularra, iru biraz,
Ontzi-gain itxasoz len-ibilli zanak;
Etzun ez izutu Ipar'ek Ego'kin
Dagian burruka gordiñak;

Ezta Iade illunak, ez Notu erreak,
Au baita Adria'ko jaube ta nausi:
Orain jaiki, orain bare, erabil oi ditu
Naitara itxas-ertzak nasi.

Zein erio-maillak izutu dezake
Begi-txau ba'dakus iize ugerlariak,
Itxas arrotua ta Akrozeraunia'n
Ur azpiko arri dongiak?

Lur eta kresal-zelai banatu eziñak
Alper Jainko zurrak ebaki zituan,
Ontzi beltzak orain be ur-ertz iku-gaitzak
Jo ba'ditue nai gartsuan.

Gizakumea, gain-zale ta oldarkor,
Egipen galaziz amil-bera dua.
Japet-enda ausartak, iruzur gaiztoan,
Sar zun gizartean goi-sua.

Zeru-biztokitik sua ostutzean,
Lurra eror zan laru-itzalpean,
Ta sukar-talde berri ta izuz bete:
Erio, len urrats-nagi, orain dabil
Azkarki, egundo ez beste.

Dedal, gizonari eman ez egatsez,
Goi-uts-une zear egazka saia nai;
Herkul-lanak jarein du Akeronte'tik.
Gaur ilkorrak zernaiz dira gai.

Tenteltzar, zerua bera iritxi gura:
Jupiter onari ez diogu uzten,
Gaiztakeri aundiz, bere iñar zakarrak
Guri egotz gabe puskatzen.

OARRAK.—1. Kastor ta Polux, itxastarren izan on.—Venus, batez ere, Txipre'n zan gurtua.—3. Eol, Jupiter'en seme, gogo setati ta naspillen irudi.—3. Yapiga lurraldeko aizea, on ta egoki Itali'tik Grezi'ra itxaso dagitenentzat.—7. Akai errialdea, Atenai buru zuela. 13. Taur bekokian bost sar-irtenetan euri kaltegarriak bialdu oi ditue.—19. Epir'ko.

PERRETXIKOA ETA BAREA

(Arkamelea)

Arizti zabal eder batean
Perretxikoa erne zan.
Gabaz iñontzak, egunez euzkik,
Jaboten zuten guri-mardulik
Bedar-oroldi artean,
Ardura biziz zuzea.

Egun-sentian, barakarroa
Urbildu zaion ixilka;
Bere ondoren, adur lorratzaz,
Hedatzen zuen bidetik atsa,
Zikinduz guztiz basoa
zerion lerde likitsaz.

Perretxikoak oartu zuen
Aldamenean gelditzen.
—Nogana xatoz?, ots egin zion,
Nogana xatoz, pristi likitsa,
Itxura zantar horretan,
Mendi-zelaiok atsitzen.
—Xoaz neugandik, xoaz, likiña,
Asun arlora bizitzen;
Sastegi duxu toki berengi,
Hantxen dituxu lagun ugari
xeu lango saskel zikiñak,
lizun artean murgiltzen.

Barea narraz, bedar artetik
Zuza gaiñean jarri zan;
Haren gorputza likistu naiez
Han ekin zion, sutsu, ioranez,
Lerde likitsok jaurtirik;
Baiña zuzeak eman-edena,
Ta narraztia blaust erori zan
Zuza gaiñetik lurrera.

ONDORENA

Gizon artean badira, gazte,
Barakarroak ugari;
Ixil-mixilka jinen zaizkitxu
Usu laztanka, maiteki antzu,
Gezur politen sortzaile,
Gogo-biotzen galgarri.
Artu eredu perretxikoa,
Jaurti xugandik legena,
Ez eman toki biotz barnean,
Suspertu, otoi, xure zentzuna,
Askatu, maite, gogoa;
Ondamendian eror baiño len
Atera sarri edena.

ARRUGAIN



MUTIL SOLAS

Goiz orenak, lera bidian malda gora asi orduko.

—"...hi or eta ni emen", bide guzia biendako ta.

—"...ezduk egia ta, baduk migia", bertze alde, senditu gabe sasi ondoan gure mutilak.

—"Arrak, ixiltzeko, belar-ondoko au!"

—"Eta ni yo...!! Urde zikina!!" (eta zangoz): "Atxizak ori trip'andi ortan".

* * *

Aphal irri luzeak ez du nigar-askaria urrun, ardurenian; eta aphal-ondo aski argi sendi izanki, iru lau mutil arien goizaldea.

Etzen ez, punduak gaizki artukotz yokua galduko: erritik kanpo... ez eta sobera lagun... ilunpean.

—"...oyu ta zalapartaka, gu gordeko giren sasi ondoan atakazak", errana.

"Bat-batean, eta iltzeko kolpe bat hik artu izan bau bezala, bide erdian luze-luzea botako haiz."

(Gero ez ahantz, istan bateko hila hiz eta.)

* * *

Erne igi behar ukan zuten apez medikiak, ez-paitzen gutiorendako mutil aren errepika.

Nonbait zen orduko hil-gaya.

Eta burrun-barran yauzika zeramazkien belarritan ohono, errepesturik gabeko azken galdeera ariek, gure mutilak:

"Errak; min egin al-diat?"

(...)

"Ez dukak erreposturik eman nahi?"

(...)

"Yainko huna; eta hila duk!!"

Ostiko ta zimiko, arte ortan lurrekoarendako kalbario gorria ari izan zuen, neork erran beharrik gabe.

Eta bertzeak, ixil, denak suporta.

Zehait omen zen ondoreko beso arien minbera.

Geroxoño ziren kontuak itsusten asi, norbait beren bilha asten zela yakin zutelarik...

Ez medikuak ere bere saririk barkatu... eta au da bertsu auen mami guzia.

* * *

Iru urte bertzerik ez solasak, eta agoz ago bertsuak.

Nola ain denbora gutian? Euskualdunak, eta aski musika polita ere bai-du.

Eta Bankarra, nik uste, bersolaria.

Ogoigarren mendean, bagatzi yadanik
Yesukristo lurretik zerurat iganik,
Gure salbamendua munduan izanik
Gure bekatuentzat bizia emanik,
"Azken yuizioan yinen niz" erranik.

Luzaiden egin dute Pasione berria;
Abisatzera nua bersutan erria.
Gau batez gizon bat bidian eroria;
Alegia, ilikan zagola yarria.
Hura piztu zaut eta auxe da loria.

Goizeko iruetan ez da mirakulu
Eskandalak artzia ainbertze orgulu.
Munduan elaiteke ainbertze dolu
Mahatsaren aienak urinik ez-palu:
Arek enganatzen du anitz dizipulu.

Norbait ikusizkeroz ilikan abantxu
Kontzientziak ba-du zernahi meatxu.
Nork yosi behar zuen ainbertze petatxu;
Yendek izanen zuten anitz erreprotxu
Ezpalitz erne egon gaixo Feliz Kotxu.

Feliz gizahaxoa kexuan dabila,
Biotz onekoa da gañera ta umila
Lasterka ba-doa or apezaren bila:
Yauna yin behar zazkit, prisaka nabila;
Bidean atxeman dut gizon bat hila.

Erriko artzain onak laster eman du itz:
"Zade istaño bat or, yinen nuzu Feliz."
Gizahaizo gizona kexu ta murritz
Au erran bide dako, bai askitxo bortitz:
"Hila balin badago nik ez dezaket pizt."

Erran bezala biak ba-doatzi laster
Bidean errezatuz biz-pairu "Pater";
Laguntza galdeginez aingeru guzier;
Eyen ondotik urrun zadien Luzifer.
Hila piztu zayete arte huntan bier.

Apezaren ondotik gero medikua.
Feliz gizahaxua beti predikuan;
Medikua lasterka prisa zelakuan
Zapeta bat soinean bertze bat eskuan,
Telefona lepotik, atorra kanpuan.

Sakelan ba-zituen iru lau morfina,
zazpi kaxeta, eta bi penizilina.
Konsultazionea zuten itsurat egina,
Bainan eriak erne zeraukan besaina:
Urrundik senditu du eyen usaina.

Biranamun goizean Feliz polizietan
Donibanerakoan bere bizikeletan
pasaportea egin behar du eyetan;
Eyek ezarri dute pietun bidetan
Lagunen abisatzen zoin beren etxetan.

Feliz gizahaixoa zainak airaturik
Ordu artean ba-du zerbait pasaturik;
Ustez etzuen arek egin bekaturik.
Bere lagun guziekin an elekaturik
Libro utzi dituzte oro barkaturik.

Diberti zaitezte ongi gazteak munduan
Berantegi daiteke zahartu onduan.
Bainan au arrazue betikotz buruan:
Legearekin ez has sekulan guduan,
Galduak bai-zarate betikotz orduan.

SATRUSTEGI'TAR JOXE MARY

Aita Mendiburu

Sebastian Mendiburu Aita Oairtzun'en sortu zen 1708'ko Agorraren 2'an. Amazazpi urtekin Jesus'en Lagundian sartu zen. Ikaskuntzak amaitu ondoren, philosophia sei urtez eta teolojia iru urtez erakutsi zitun Iruña'n.

Karol III'garrenaren garaiak ziren eta aspalditxotik trinkotuz eta urbilduz zetozen jesuiten aurkako odei beltzak ler eta zapart egin zuten 1767'gn. urtean. Borboitar erregeak gogor artu zuten beren erresumetatik jesuitak jaurtitzeko asmoa eta alaxe egin zuten Frantzia'n, Españia'n, Portugal'en eta Sizilia Biak deitu erreiñuan. Jesulagunen aurkako gorrotoa etzen erne ordea, enziklopedizale, masoi eta katolikotasuna, nolabait ere, begitan zutenen artean bakarrik, katoliku sutsu zeritzaten askok ere ezin ikusi baitzituzten, batez ere apaiz, prailles eta gotzai artean; sarritan alkar-leiak eta bekaitzak eraginda, noski. Au dela-ta, jesulagunak Españia'tik jaurti zituztenean (2746 josulagun ziren orduan Ameriketako kolonitakuak kontatzeke), apaiz eta lekaiderik geienak pozez artu zuten albistea, edo-ta etzitzaien odolik berotu beñepein bidegabe au dela-ta (1). Borboitarrak, ordea, etzuten ainbestean etsi, Klemente XIII'gn. Aita Santua'gandik iritxi gura izan baitzuten Jesus'en Lagundia bere aginduz deuseztea. Onengandik etzuten iritxi, bere eginbidean gogorra baitzen, baiñan beren erasotan ziardutela, eriotzak artu zun Aita Santu au eta onen ondorengoa (Klemente XIV'gna.) bigunagoa izanik, lortu zuten beren asmo dollorra.

Aita Santuak etzitun atotsi nai izan jesuita erbestetuok bere erresuman eta nola edo ala, Korzega'ko erri koxkor batzutan kokatu ahal izan ziren. Geroenean, Aita Santua errukitu zitzaien ugartean zeramaten bizimoduaz eta Bolonia ta Ferrara'ko eskualdetan bildu zi-

(1) R. Altamira, "Historia de España y de la Civilización Española", tomo IV, 231'gn. orr-ald.

tun. Jesuitok, ordea, anitz izaki (10.000 españar eta Ameriketarren artean) eta bertako eliz-gizonak espatsu eta gogo-txarrez atotsi zituzten (2).

"Atzerri, otso-erri", esan oi dugu euskeraz eta orrela, gure Aita Sebastian'ek Korzega'ra joan bear izan zun erbestearen samiña txastatzera. Berrogeita emeretzi urte ba-zitun erbesteratzeko aginduak artu zionean eta makiñabat lan eta itzaldi egiña zen bai euskeraz, bai erderaz. Itali'ko Bolonia'n il zen 1782'gn. urtean 74 urte zitularik.

Mendiburu Aita aldarrikari edo predikari sonatua zen. Neguan etzun bere ikastetxetik atera ahal izaten, baiñan, uda etorrita, errizerri ibilli oi zen Naparroa'ko eta Gipuzkoa'ko iri euskaldunetan zear misiñoak ematen.

Iruña'n, euskaldun asko zen Aita Mendiburu'ren denboran. Lizartza'tar Ander'ek diñonez (3), Iruña'n "San Zernin deitzen dioten elizan, solasaldiak euskeraz egiten zituen Garizuma iganderik geienetan, euskaldun utsak ziren morroi eta neskameendako. Baiñan, Mendiburu'ren izketa garbi ta suarra entzuteagatik bertze aunitz ta aunitz, euskeraz mintzatzen ezpa'zekiten ere, aditzeko ainbat ba-zekitenak, aren predikutara joaten ziren".

Mendiburu'ri Kikero euskalduna esaten zioten, eta izan ere, garai aietan etzitzaion iñor alderatzen solasaren apaintasunean eta izkuntzaren jabetasunean. "Azkoitiar aundiki batek, orren predikuak entzun ondoan zionez, ari entzun ezik, ez omen zitekean sinets, orren gauz sakonak, ark bezain poliki ta egoki euskeraz esan zitezkenik. Kikeron bera ere latiñez, Mendiburu euskeraz baiño zuzenago ta ederkiago ez omen zitekean mintza" (4). Ezta arritzekoa bada, jendea ujoldeka joatea ari entzutera, iztun ona izanak ainbat famatu baitzun bere biziaren santusasunak.

Mendiburu'k ordea, sermolaritzari ez-ezik, euskeraz idazteari ere ekin zion eta bildurrik gabe esan dezakegu, Mendiburu, bere aldiko euskal-idazlerik garaiena izan zela Bidaso'z onuzkotan beintzat. Ona, Aita Mendiburu'ren libururik ezagunenak: "Jesus'en Biotzaren debozioa", "Otoitz-gayak", iru liburutan eta "Euskaldun onaren biziera".

Mendiburu'ren prosa leguna eta ulerterreza da eta bere euskerak etorria ta aberastasuna dario nun-naitik. Joskera, bere aldiari gagozkiola, iñork baiño jatorragoa darabil ene ustez eta galdegarriak ere nekez erabiltzen ditu galde-esakunetatik lekore. Ontan, aurrera aundia eman zion Mendiburu'k euskera idatziari eta erri-euskerarekin lokartu bidean jarri zun. "Otoitz-gayak" deritzan liburu ederretik, Elei-

(2) Idem.
(3) Bigarren Euskalegunetako Itzaldiak, Mendiburu'tarr Sebastian A.'z.
(4) Idem.

zalde'tar Koldobika zeritzan gramatikalari ospatsuak makiñabat itz, aditz-joko eta esaera eder bildu zitun eta komentari ederrez apaindu ere bai (5).

Bere gaztetan, teoloji gaiaz, idaztitxo batzuk egin zitun. "Compendium Theologiae Moralis, P. de Lacroix, S. J.", deritzana ere aldi artakoa omen.

Orain Oiartzun'go errian dakusagun Aita Mendiburu'ren gizirudi ederra Pikabea jauna zenari zor diogu eta 1922'gn. urtean egin ziren agertualdi-jaiak.

Amaitzeko, "Otoitz-gayak" deritzan liburu mamitsutik Mendiburu'ren euskera xamur eta guria ausnartu dezagun.

"Lenbiziko emaztekiak galerazi zuen bere senarra; ta bere senarrarekin batean, galdu ginduen bien etorki guziok; eta aurtiki edo bota ginduen erioaren atzapar gaiztoetara! Izan nai ez dutenak lenbiziko galgarri onen erako galduak, utzi bearko dituzte era bereko beren ibillerak eta begien arinkeriak: bizi bearko dute beren tokian edo beren Jaunaren Legea beren gogotik uzten ez dutela. Bebiltza bada, emaztekiak ez-ezik, gizakiak ere beren bidez; ta bide ta lagun gaiztoen igesi. Ori zeren (6) egin etzuen, galdu zen Adan lurreko Paradisuan, ta galdu zen bere emaztearen itz bi aditu orduko, beste tentaziorik gabe. Zer gerta dakioke bada, Paradisu'tik urrun, ta etsai galgarriz ta griña gaiztoz inguraturik dabillenari, erne ibilliz, ongi begiratuz, ta ordu oro eskatzen duela bere Jaunaren laguntza ta grazia, uzten ezpa'ditu zerura begira bere asmoak, ara zuzentzeko gero bere oñak eta gauza guziak?"

ETXAIDE'TAR YON

(5) Notas acerca del léxico y de las flexiones simples de la obra Otoitz-Gayac. R. I. E. V., 1907.

(6) Ona emen, aipatutako galdegarri bat bidegabe erabillita.

Baroja'ren Eriotz-Urtemugan

Bera'n, Itzea'ko etxe-atarian, etxe-nagusi zana ta bere illoba Julio Caro Baroja jauna, EGAN'en zuzendariekin. Argazpi au, ZALAKAIN ta XANTI ANDIA'ren egillea il baño illabete batzuek lenago egiña da.

Georges Courteline

LE PETIT MALADE

(Mutiko gaxoa)

MEDIKUA (atean).—Emen al-da ume bat gaxorik dagona...?

ETXEKOANDREA.—Bai, emen da. Sartu bedi. Mediku jauna, nere mutiltxoarentzat deitu det. Pentsa beza, aur gizaxoak ez-dakit zer duben: gaur goiza ezkero erori besterik ez-du egiten. Tente jartzen det, eta erori egiten da; berriro zutitu, eta erori. Jausi egiten da...

MEDIKUA.—Jausi?

ETXEK.—Bai, jauna, beti jausi.

MEDIKUA.—Lurrera?

ETXEK.—Lurrera.

MEDIKUA.—Gauza rarua... Ze denbora du?

ETXEK.—Lau urte terdi.

MEDIKUA.—Arranua! Edade ortan bere ankak gogortuak bear lituzke ba! Eta, nolatan izan da ori?

ETXEK.—Ezin diot antzik eman. Bartarratsean ain ondo zegoan, eta koneju bat bañon azkarrago etxe-barrunbean zebillen. Gaur goizean, ostera, jaikitzen det mutikoa; galtzerdiak sartu, kuleroa lotu, galtzak jantzi, eta zutik jartzen det. Dunba! Erori egiten zait...

MEDIKUA.—Bear bada, pauso txarren bat...

ETXEK.—Bai zera! Jasotzen det, eta bigarren aldiz jausten da; arriturik, berriro zutitzen det, eta berriro, lurrera; eta onela zazpi edo zortzi aldiz segituan. Itz batean, mediku jauna, nik ez dakit zer gertatzen dan, gaur goiza ezkero, umea onela erortzeko.

MEDIKUA.—Arrigarriya, benetan. Mutikoa ikusi nezake?

ETXEK.—Bai noski...

(Ama ba dijoa mutikoaren billa, eta emen dakar besoan. Mutikoak, bere musugorriakin, berebiziko osasun itxura erakusten du. Brusa zabal bat eta galtzatxoakin jantzia dago.)

MEDIKUA.—Au da mutiko sendoa...! Jarri zazu, mesedez, lurrean.

(Amak jartzen du. Umea erortzen da.)

MEDIKUA.—Jarri zazu berriro.

(Gauza bera: mutikoa, erori.)

ETXEK.—Eta oraindik...

(Irugarren aldiz tentetzen du, eta irugarren aldiz an dijoa ume gaixoa lurrera.)

MEDIKUA.—Ezin siñestu liteke. *(Mutikoari, medikuak:)* Esaidazu, nere laguntxoa, iñon pupurik bai-daukazu?
UMEAK.—Ez, jauna.
MEDIKUA.—Buruko miñik bai-daukazu?
UMEAK.—Ez, jauna.
MEDIKUA.—Ondo lo egin dezu bart?
UMEAK.—Bai, jauna.
MEDIKUA.—Ba-daukazu jateko gogorik? Zopa goxo bat jango zenuke?
UMEAK.—Bai, jauna.
MEDIKUA.—Ondo da... *(Jakintsu eta seriyo:)* Perlesiya da.
ETXEK.—Per-per-perlesiya! Jaungoiko maitea!

(Besoak gora jaso ditu eta umea erortzen da.)

MEDIKUA.—Bai, andrea: perlesi osoa, gerritik berakoa. Zerorrek antz emango diozu, umearen aragiak, zulatuta ere, mugituko ez-diralako. *(Ba dijoa proba egitera, eta mutikoagana eldu danean, asten dà bat-batean:)* Baña au... baña au, onelakorik! *(Eta oju aundi batekin:)* Bañon, andra madarikatua! Zer ixtillu dakarkidazu zure perlesiyakin?
ETXEK.—Bañon, jauna...
MEDIKUA.—Bai noski, arranua! Nola nai dezu zure umeak bi anken gañean zutik irautea, *anka biyak galtza-zorro bakar batetik sartu ba-dizkatzu?*

DUNIXI-k euskeraldua

Lagun Urkoa

Aberatsa zan. Ameriketan aberastua. Nork ez ditu ezagutu, urruti-ko lurralde ayetara sos bat ere gabe juan, eta bertan neke ta izerdiz, lan da lan, zintzo bearrari ekin da gero, atzera berriz, diruz ta onda-sunez beterik etorritako gizon bulartsu langilleak? Don Pantxo etzan ba oyetakoa. Bera etzan iñoiz Ameriketan izan, eta ez Ameriketan, ez Europan, iñun etzuen berak lanik egin.

Gaztetan naiko lan eman zien bere guraso onai. Eskola garayan, Patxi-piper jarri zioten izena. Mutil aundia egin zanean, berriz, Pa-txi-sagardo. "Lanik egiten ez ba dek, gosez ilko aiz", amaika aldiz esan zioten bere guraso zarrak. Baña bai zera ill! Bere gurasoak bai, il ziran gizajoak, bi seme utziaz: Joxe Migel zarrena ta Patxi. Joxe Migel, langille purrukatua. Patxi —esan bearrik ez— alper aundia.

Joxe Migel, Ameriketara juan zan, eta Arjentiñako Rosarion amar urte egin ondoren, il zan ura ere, ango lagun batek esan zuenez, geyegizko lanak lertuta. Andik urte batzuetara, bosteun milla duro bialdu zizkioten Patxiri. Anai zarrena, ainbeste lanen artean ezerta-rako astirik ez, ezkondu gabe ill omen zan. Eta orra bere ondasun guztiak Patxirentzako gelditu, Legearen aginduz.

Orduan asi zan Patxi, Legearen edertasuna, egokitasuna ta bear-tasuna igartzen. Ordu arte, Legea mozkorrak eta alperrak zigortzeko gauzaren bat zalakoan, oso Legearen etsai amorratua zan bera. "A txotxoloak! —esaten zuen arrezkero, bere lengo lagunen jardunak gogoratuaz— Legerik gabe, ez dago aberien bizimodua besterik." Eta egia zion. Legea etorri arte, aberien antzera bizi zan Patxi. Baña berandu ba zan ere, piztu zan gizona. Eguzkiaren argiak, gabeko illuntasunak urratzen dituen bezela, Legearen urrezko printzak, argi-

tu zituzten noizbat, Patxiren begi lausotuak eta egun senti zoragarri artan, gizon berri bat sortu zan: Don Pantxo.

* * *

Don Pantxok, etzuen lengo Patxirekin, alkarren antzik ere. Beste gizon bat. Apaña, leuna, neurtua. Itz egiten zuenean, ba zuen arako Arjentiña aldeko doñuren bat, eta baita ango itzak eta esaerak erabiltzen zituen noizean bein, beti bere garayan eta bear dan neurriz. Ameriketako diruarekin batean, ango izakeraren kutsua ezarri zitzaion zearo. "Lengo lepotik burua" esan oi da gure artean, baña don Pantxoren burua, lenago uts utsik zegon eta orain ontzako urrez betea. Len ariña ba zan, orain sendo, mardula, bere bizitza berriari zegokion bezelakoa. Lagun berriak aukeratu zituen. Bera baño oituagoak Bankuetako goraberetan eta beren bitartez, ikasi zuen asko.

Diruak, diru egiten du, ta don Pantxok, gero ta diru geyago zuen. Dirua... Uraxe zan orain, bere betiko leloa, bere maitale, bere nagusi, bere gogo ta amets bakarra. Gizon zekenak izan dira, baña Don Pantxo bezelakorik, gutxi. Zekena ta dollorra.

Bere etxeko atarian, eskaleren bat ikusi ezkero, etzan asiko, beste asko bezela, gaizki esaka, oju ta deadarrez. Ez. Patxada onean, bere musu gorriko irri parra galdu gabe, itz egingo zion, beti leun eta adiskide, ta etzan ixilduko, eskalea etxetik kanpora bota arte. Berak asmatutako Ameriketako ipuiak esaten zizkien. Baita esaera zarrak ere: "Egin zazu lana ta izango dezu jana" ta abar. Txanponik eman? Ezta bururatu ere! Bein edo bein, azaltzen zan ala ere egunkarietan, Don Pantxoren biotz urrikaltasunaren berriren bat edo beste, ta ondo ezagutzen etzutenak —geyenak beraz— gizon egoki ta zindotzat zeukaten.

* * *

Urteak aurrera zijuazen eta Don Pantxoren osasuna etzan lengoa. Gibela zala, biotza zala, aitzakiz beterik zebillen. Bein esan ziotenez, ba omen zan, kai aldean, etorkizuna igartzen zuen atso zar bat. Iñori ezer aditzera eman gabe, billatu zuen aren etxe zuloa. Euri zaparradak eta aize borrokak, Gaztelu ondoko kaleak gogor astintzen zituzten negu gorriko gau illun batean, eldu zan nolabait, sorgiñarengana, ta lasai itxuretan bildurrez, oso bildurrez, iya noiz arte biziko ote zan galdetu zion. "Martiñ Kaiku zure auzokoa bizi bitartean, etzera ilko", esan zion atsoak.

Berak ezagutzen zituen, bai Martiñ, bai Luisa bere emaztea. Bere atzetik ibilli ziran ayek ere, eskean, jakiña! Iñoiz etzien ezertxo

ere eman, baña orain —au ixtillua!— Martiñ Kaiku alper kankallu ura, bear bearrezkoa zitzaion. Itxuraz etzan sasoi aundiko gizona, baña zerbait lagundu ezkero, iraungo zuen oraindik urte mordoska bat. Lagundu bear zitzaion beraz, eta artara jarri zan Don Pantxo, pitin pitinka lenbizi, eskuzabaltxoago gero, urtiekin batean geitzen bai ziran, gero ta geyago, Don Pantxoren aje, neke ta bildur guztiak.

Izan ere, oso aulduta zegon. Martin ordea, egundañoko bizimoduan, beñere baño ederrago. Onek lasaitzen zituen asko, Don Pantxoren estutasunak. "Martiñ bizi bitartean, biziko aiz" esaten zuen berekiko, atsoaren esana gogoratuaz, eta bere burua aintzakotat artu gabe, Martiñi begira bizi zan. Bixiguak, legatzak, solomuak, Jainkoak daki zenbat onelako jaki gozo bialtzen zizkion astero Martiñi, bera bazkaritzat, tipula-salda uts batekin gelditzen zan bitartean. "Nola maite duen!" esaten zuten auzokoak.

* * *

Egun batean, Don Pantxo, oso gaizki jarri zan. Gaizki baño gaizkiago. Andik etzan ateratzerik. Garbi asko esan zion Don Paulo sendagilleak. Orduan, bat batean, Don Pantxoren buruan, asmakizun larri bat sortu zan. Eta Martin ilko ez balitz? A zer nolako itxukeria berea! Atso zatar batek esan ziola ta beste gabe, ainbeste ta ainbeste diru, alperrik galdu, arlote lotsagabe ura gizentzen! A zerri madarikatua! "Martiñ, Martiñ!" asi zan deadarrez, erotua bezela.

"Nola maite duen!" esaten zuten ondoan zeudenak, begiak malkoz beterik zituztela.

Urrengo egunean, ori bera zioten ere, Don Pantxoren eriotzaren berri izan zuten guztiak. "Lagunari deika il zan." "Au bai benetan, lagun urkoa bere burua bezela maite izatea!" Eta egia zioten. Don Pantxok, alaxe maite zuen Martiñ. Bere burua bezela. Bere burua bera balitz bezelaxe.

JOSE MARIA LOJENDIO



ORANGUTANEN UGARTEA

Joanes ura mariñel zaarra zan. Oso zaarra. Agian itsasoa bera bezin zaarra...

Egun artan, maiz bezela, itsaso zabalari so zegoen, pentsakor, urruti artan begirada josirik zeukala, gaztetango gertakariak gogora zekazkiela segur aski...

Milla tokitan egondako gizona zan, eta begiramentu aundia zioten argatik bere errikide guziak. Gañera, eskolatua izan ez arren, ba-omen zekien itsasoko gaiez kanpo ere gauza askoren berri.

Zenbat ekaitz ez ote zituen ark jasan? Zenbat trumoi ez ote gainditu? Berak ere ezin esan. Baña larruan igar zekiokean itsaso-arazoetan Joanes nor izan zela.

Garai artako kai guziak ezagutu zituen Joanes'ek. Eta kairik etzegoen bazter asko ta asko ere bai. Nere ustez mundu guzia ezagutu zuen berak.

Ordurarte, kondaira guziak siñistu zizkioten beti. Egia esan, gauza bat ez beste guziak siñistu zituzten. Baña Joanes'ek kondatu oi zien ura etzeukan iñork siñisterik. Ura geiegitxo zan. Gañerako istorio guziak batek ala bestek bere begiez ikusia ba zuen, ura, berriz, arrigarriena, geien iñarrosten zuen ura ain zuzen, iñork etzuen beñere konprobatu. Iñork ere etzuen bere bidaietan Joanes'ek ikusitako "Katzlahu" izaro madarikatu ura sekulan topatu.

Joanes'ek zionez, bera oraindik "Izargi" ontzian kapitain zelarik, ekaitz larri batek arrapatuta, errebelatu egin zan, galdu egin zan illunbe ito eta naastu artan; eta, eriosuar, errendi egiñik, bere burua eta ontzia galdutzat zeuzkala, bapatean, ziplo, dena baretu, zerua argitu, eta ugarte arrigarri batera iritxi omen zan,

Poztu omen ziran "Izargi"ko bere mariñelak. Azkeneko, bizia galduta ikusi zutenean, ugarte ura arkitzea, ez ote zan alaigarri?

Joanes'i berriz laztu egin zitzazkion illeak: eta itza aal zuen eta geiena goratuz, esan omen zien: "Ez bedi iñor jets orrera. Urtziak madarikatutako ugartea duzute ori. Goazen emendik ariñiketan. Emendik bereala ez ba goaz, gureak egin du. Goazen aguro. Leen baño okerrago gaude orain!!"

Txoratuta omen zirudien Joanes'ek. Bera, beti ausart izan zena otzikarak artuta omen zegoen. Baña, "zer dela-ta?", galdetzen omen zioten mariñelak alkarri.

Begia borobil, tinko, igige, josirik. Ura ikara! Zer ote?

* * *

"Auxe da", ixilpean omen zion. "Auxe da...!!! Auxe da "Katzlahu-Jin". Tokitan gaude, alajaña...! Eta, nola izan diteke? Nolatan iritxi ote gera oneraño? Emen deabrukeriren bat gertatu da. Sorgiñak eta lamiñak oro nere aurka bide daude."

Eta dardar asten omen zan berriz, begirada beti galduta zuela. "Auxe da, bai. Nork ekarri ote gaitu onera? Nork? Berrogei egun bear genituen gutxienez oneratzeko. Ala... oker ote nago?" Eta au esatean pittin bat lasaitzen omen zitzaion itxura.

"Bañan... ez. Ez! Auxe da "Katzlahu-Jin". Ortxe daude bere dorre famatuak... Ez. Zoritxarrez ez nago oker."

Eta, ortan zegoela, ontzi guzian karrasi bat asi, eta sekulan entzun ez den karrasia entzun omen zan. Eta karrasia ez omen zan eteten. Agertuak omen ziran orangutanak une artan zepa ta austerrezko idoi-plaia nazkagarri artara; eta Joanes'ek aapeka: "Oietxek dira!!!" Eta indar guziak bildurik deardaka: "Jainkoa: salba gaitzazu, arren!!!"

Zergatik ba bildur ura? Zer zuten ba dorre aiek? Zer orangutan aiek? Onatx korapilloa: Orangutanak berak eraikitako dorreak ziran begi-bistan zeudenak.

Orangutanak, berriz, izugarri baño izugarriagoak ziran. Gizonak omen ziruditen zearo: edozein kristau bezelaxe jantzita, ibillerak salatzen zituen bakarrik.

Argatik deitzen omen zuten ugartea "Katzlahu-Jin", euskeraz "Jainko-Orangutanen Ugartea".

Gizaki deitzeko tximuegi omen ziran, eta tximu deitzeko gizonegi. Gordeta omen zuten bere tximutasuna alde batetik; baña bestetik ere ondo nabarmen. Inguru aietakoak ziotenez pizti-begirada zuten, billo kalparra arpegi guzi guzian, eta begitartea illetsu. Dorreak berriz, eten gabe kea zeriela, tximiniak zirala pentsa omen zi-

teken; baña, bein ikusi ezkero, ezin beste ezerekin naas: beetik gora zabalago egiten omen ziran, eta, erabat begiraturik, oindoak omen ziruditen, oindo itsusi eskergak. Dorre aietxek omen ziruditen bertako arbola bakarra; eta ango giro osoa ezagutu ezkero, ez omen zegoen okertzerik: kirats eraman-ezin ura, orro sarkor ura, ura guzia, "Katzlahu" zan eskierki.

Oindotzarrak eta kea. Landarerik ez. Dena goibel, dena kedar, dena gogor, dena tristagarri... Ezin esan ala itsusi omen zan ura. Itsasoa zoragarri, alegia, ortzea urdin eta garbi; baña ugartea bera... zearo iguingarri.

Gañerantzean, bazekien Joanes'ek (ugartedi artako jendeai entzunda) ikaragarrizko ilketak izaten zirala an, eta orangutanak kristaurik ikusi ezkero, burutik egiñik-edo, akabatu arte etzirala lasaitu oi. Eta egiñalak egiñaz, besterik ikusi gabe, alde egin omen zuten andik, berriz ez azaltzeko.

* * *

Urteak baziran au Joanes'i gertatu zitzaionetik; eta bazirudien gertaera ura iñork etzuela beñere siñistuko.

Eta ara nun jakiñ-arazten den, lurralde aietaruntz abiatu dela ontzi bat, azterpen guzizko bat egiteko erruz ornituta, milla aparatu eta tramankulu daramazkiela, edozer gauza miatzeko gai. Jakiña: azterketa guzia orangutanai deus oart-arazi gabe egingo zan, beren bizimodu egiazkoa alik eta ondoen ikuste arren.

Joanes zaarrak au jakitean artu zuen poza ez da itz gutxitan azaltzekoa. "Jakingo aal da nere egia!" esaten omen zuen eten gabe.

Jakintsuak aspaldidanik biziro larri zeuden ugarte famatu ura zela-ta, Joanes'en kondaira ez baitzan bakarra, eta ez lenengoa ere: adituta baitzuten ura. Bearbada, pentsatu zuten, "Katzlahu"n arkituko dugu gizonaren billakatze-katean falta dugun malla. Ugarte artako añak zibilizazio izanagatik ere tximu ba diraute, bere tximutasuna osotoro galdu ez ba dute, garbi dagoke ondorea: beste Pithekanthropo bat arkitu dugu; edo, obeto esan, gizonaren eta Pithekanthropoaren arteko gizaidea.

Eta orri elduta, aruntz abiatu ziran, esperantzaz beterik, jakinduriaren alde pausu aundi bat egingo zutelakoan.

* * *

Eta "Katzlahu"ra iritxi ziran.

Ugarteko iñork ikusi gabe jetxi, amaika tresna lagun. Eta otsik atera gabe, antenak jarri, irratia eta telebisioa eratu... egia esan, al dakit nik zer etzuten jakintsu aiek jarri?

Eta alaz ere, naiz-eta lur-gain ura edonolako tramankuluz bete ba zuten ere, orangutanen begiak ezin ikus zezakean an ezer, ezta tramankulu-arrastorik ere. Ez dakit nik nola egin zuten, edo zein gaiez. Ori ba neki, berak bezin jakintsu izango nintzake. Ondak eta alakoak aipatzen zituzten sarri. Eta onda aien bidez ikusten eta izkutatzen omen zuten dena. Bearko! 3.000 garren urtean ere ez dakit alako aurrerapenak lortuko ote diran. Zalantzan nago beñipein.

Lurpean, berriz, etxola ederra antolatu zuten, eta talai gorde bikaña zitzaien. Andik atera gabe dena ikus zezaketen jakintsuak: pantalla batean sai-zuloen arteko kalea, beste batean dorre-burua, beste batean... Irakurleak asma-aal guzia ta geiago jarri zuten an, den-dena kontrolatzeko. Nere ustez zirkiñik txikiena, ojurik motelena, kiñurik diximulatuen eta ikus-gaitzena an agertzen zan, gela ontan edo artan, olako aparatutan edo alakotan, jakintsuak azter zezaten. Auei etzitzaien ezertxo ere gordetzen.

Espedizio orniturik munduan izan ba da, ura bai ornitua, ikasia, tajutua, eta edozertan aparta.

Zitu ederra ekarri bear zuen, bai, jakinduri-txango ark. Eta ekarri ere zuen, geroz ikusiko den bezela.

* * *

Asi ziran ba billaka eta begiraka, emendik eta andik, xeetasunik kiskillena artertuz. Eta lanean asi-berri ziralarik arri zaar arrigarri bat arkitu zuten, izkribituta iduriz. Eta beren etxola izkutura eraman zuten.

Zalla zan ura entenditzea. Letra-moldea bera asmatzeko egunak eta egunak zituzten. Baña talde artan baziran edonolako jakintsuak, eta izkuntzalari fiñak ere bai. Eta auei eskerrak itzuli aal izan zuten izkribu-arria.

Ainoen izkuntza zaarra zirudien mintzairak; eta dena ondo aztertuta gero, esan zuen Koblaur filologoak: "Izkribu onek, nere ustez, milla bat urte baditu gutxienez." Ona, euskeraz ipiñita, arriak ziona:

"Uru'ren 63 garren urtea.

"Emen izkribitzen dugun au iñork irakurriko ote duen ez dakigu. Bañan itxaropen ortan egiten dugu.

"Betirako gaude emen. Ekaitz ikaragarri batean galdurik, ugarte zoragarri ontara erori gera, nola ez dakigula, eta ez daukagu salbatzerik. Ikaragarria da gure ondikoa.

"Larogei ta zortzi lagun giñan ontzian, eta oietatik irurogei ta amazazpi ito edo galdu ziran ekaitzean.

"Asi giñan ba salbatu giñanak gure bizimodua emen moldatzen, eta gauza latza gertatu zitzaigun. Emengo baso ontan barrena sarturik, orangutan-aldra aundi bat topatu genuen, eta berakin borrokan

asita, gutako zazpi lagun il ziran. Asiera besterik etzan ura: bereala ikusi bait-genuen izugarria zela emen orangutanen multzutasuna.

"Etsita giñan beraz, emendik bizirik irtengo ez giñalako segurantzian. Eta ein ortan geundela debruari egin genion otoitz, eta agertu egin zitzaigun. Eta esan zigun: "Bide bat besterik ez dakusat zuentzako; eta au da: zuek, barrenez eta gogoz gizon jarraituz, itxuraz orangutan biurtzea."

"Zalantzan egondu gera egun batzuez, zer gerta zekigukean bildur. Bañan azkenean, bart, illargi betea izanik, deabruari otsegin genion, eta bere aurrean auspezturik esan: "Gertu gaituzu. Zuretzat izan bedi gure arima. Bizi nai dugu. Gorputzez eta itxuraz, biur gaitzazu orangutan." Eta orangutan billakatu giñan.

"Eta orain, oianean barrena joan aurretik, au jakiñ-erazi nai dugu. Guretzat ez dago barkatzerik.

"Etorkizunaz ez dakigu deus. Zenbat urtez biziko gera? Zertara iritxiko gera? Ez dakigu. Baña guretzat dena amaitu den ezkero, arima salduta dugun ezkero, gizonen artera berriz itzul ezin gaitezkean ezkero, orangutanen adiskidetasuna bear dugu; eta edozein gauza egiteko prest gaude adiskidetasun ori lortze arren. Gure orangutan-bizi au iraungituta, kalda goria eta sufrezko sua izango ditugu lagun.

"Anartean, deabruak sostenga gaitzala!"

Ikarak artu zituen denak. Iñor etzan ausartzen ezer esatera. Denak berdin pentsatu arren, iñork nai ez lenengo bota.

Baña bota ez ba zuten ere, bazioten denak berekiko: "Argi ta garbi dago gertatua. Emen ez dugu Pithekanthroporik arkituko, ezta billakatze-katean billatzen ari giñan malla ura. Pizti-eli au gizonaren eta orangutanaren seme da, eta ez bion artekoa. Naasi egin zuten azkenean galdutako gizon aiek beren odola ugarteko orangutanenarekin, eta naaste artatik dator leñu zital eta lazgarri au, Bañan alaz ere, ez ote dugu au berau Pithekanthropoa baño istudiagarriago?"

Eta an gelditu ziran, leen baño gogatsuago agian.

* * *

Eta egunak igaro ziran, asteak, urteak. Eta an zeuden oraindik jakintsuak. Ugarte ura, alegia, ikusgarria zan: fabrika arrigarriak ziran, labeak nun-nai, tximiniak ugari, zubiak denetatik. Bañan etziran gureak bezelakoak, ez: oso bereziak ziran, oso desberdiñak.

Beren bizi-lekuak kaletan tajututa zeuden: Afrika'ko beltzen erri

koskorrak ziruditen aldiz, bestetan New York'ekoak. Baña beti itsusi, beltz, astun, ketsu.

Eta oitu ziran arrigarri zan ura guzia ikusten.

* * *

Alako egun batean istillu aundia sortu zan ugarteko "uriburuan". Kulpito-edo batetik orangutan sendor indartsu bat ari zan "itzegiten". Egia esan izketa etzan ura, baña aren antzeko zerbait zela esan diteke. Entzuleak, entzuten ari zitzaizkion orangutanak alegia, urduri zeuden; eta berari entzunda gero urduriago. Eta anpatuaz joan zan zalaparta, geroz ta geiago, eta azkenean ifernua bera zirudien ark. Distira erratsua agertu zan guzien ninietan, sua piztu zan beren barrenetan, eta jauzika eta deadarka asi ziran, oiko burubidea zearo galdurik.

Buruzagi aren esanari zerraizkiola, alkarri kolpeka asi ziran leenbizi, gero labeak idekitzen eta sua toki guzietan irazekitzen, ura deabru-leize bildurgarri biurtu arte. Eta segak eta itaiak eskuetan arturik, bapatean atera ziran edozer moztutzeko ta birrintzeko prest; eta aldameneko erri batera iritxita, ango guzi guziak il zituzten, orangutan-emeak ezik. (Ez karidadeak eraginda, noski.)

Gorritu egin zan lurra, eta itaiak kamostu.

Eta berriz paketu zan ugartea.

* * *

Eta bazirudien ilketa ikaragarri ura gaizki zetorkiela alako orangutan langille aiei, etzetzala artan bere izana. Orain trankil bizi ziran berriro, nor bere lanean; eta dorre aundiagoak eraikitzen zituztela.

Bañan alako batean, errieta eta zarata ikaragarria jarri zan berriz sai-zulo-buru artan (edo "tximuri" artan, naiago ba du irakurleak). Berriz ere orangutan bortitz bat ari zan mintzatzen, oso gogor. Trumoi latza izan zuten artemein, eta uzta guzia ondatua zan. Goseak zeuden noski, eta argatik okasio billa.

Eta atera zan buru egiten zuen orangutana, eta jarraiki zitzaizkion denak, sua zeriela. Eta ugarteko etxaburu batera allegaturik, asi ziran janariak ebasten, mandioak ustutzen eta zernai lapurtzen. Eta bertako orangutanak kontra egin zieten. Eta jo ta autsi asita geienak il ziran. Eta bizirik irten ziranak, lapurtutako bazka berakin ekarrita, errira itzuli ziran.

Eta gizon zintzo ta zentzudun ziruditen berriz

* * *

Denbora asko pasa zan orrela, eta dorre berriak eraiki zituzten, geroz ta altuagoak. Eta uzta ederrak jaso ziran landetan.

Eta, alako batean, orangutan aul bat asi zan itzegiten, eta orangutan aul guziak zituen entzule. Erri ura tajutu bear zela esan zuen, etzela ezer erre bear, etzela emerik lapurtu bear. Gorago jaikiko ba ziran orangutanak, zintzoago jokatu bear zutela. Orangutanen eskubideez mintzatu zitzaien ere, eta bere gaitasunaz.

Eta orangutan sendoak arturik, gurutziltzatu egin zuten.

* * *

Au ikusita alkarri begiratu zioten jakintsuak, eta ezin zuten txintik bota. Lazgarritasunak mututurik bide zeuden. Gauza asko ziplo ulertu zituzten. Eta beren buruen absurduari igarrita asi ziran alkar kolpatzen eta iltzen.

Batzuk ugartera jetxi ziran ondo agirian, eta orangutanak il zituzten.

Beste batzuk bere burua il zuten; beste batzuk, berriz, ardoari eman zitzaizkion kordea galdu arte; eta gañerakoak ugartean zear sakabanaturik, etziran berriz azaldu.

* * *

Bat bakarra itzuli zan andik, eta berari eskerrak dakikegu au guzia.

Baña berau ere, bereala, bere errira itzulita, au guzia kondatzen asi zan.

Eta bukatu ez al zuen, errikideak berak artu, eta il egin zuten.

TXILLARDEGI

Donostia'n, 1957 Azaroan

Umezurtz Aberatsak Gabonetan Jokatu Nahi

(Gabonetako ipuin tristea)

Nik lan egiten dudan frabikan, ugazaba, inor badago munduan, bera da gizon zikoitza eta zekena, abariziara emana eta eroria, juduen seme-alabak bezala, jaiotzen direla emaginaren ezkon-eleztunarekin ukabilean. Gure alogera benetan laburra zen, jaten ematen etziguna. Horregatik ugazabarekin haserre ginen, frabika hura komunist-kabi bat zela, ongi esan zitekeen.

Baina behin, zorioneko egun baten, ugazabak berak dei egin zigun langile guztieri, eta sekulako eskeintza egin zigun, handik aurrera doble irabaziko genuela esanaz.

Zoraturik gelditu ginen denak bere esanetara. Mirakulua, miraria, pentsatzen genuen, Jainkoaren hatzamarrak ukitu egin du gizon zikoitz eta lukurreru horren bihotz gogortua.

Eta egia zen, bera mintzatu baitzen honela:

—Gabonetako ipuin triste bat kontatuko dizuet. Hain triste denezkero, urtearen beste edozein partetan kontatzekoa da, baina mesedeak mesedea eskatzen du, eta entzuteko egonarria edukiko duzuela uste dut.

"Behin zen umezurtz aberats bat, gabezia zer zen ere etzekiena, baina umezurtza hala ere, ama bere jaiotzan hil baitzitzaion, eta aita, bizi bazitzaion ere, etzen aita bat, naiko lan baitzedukan diru-metak pilatzen, eta gure mutiko zorigaixtokoak gurasoen amorioaren berri etzekien.

"Eta Gabonak hurbiltzen ziren, eta gure adiskidetxoari etzion inork esan hurbiltzen zirela. Bere aitak gura baitzuen atzerriko hizkuntzak

ikas zitzala, eta andre bat ekarri zuen estranjeriatik mutilari inglesa irakasteko, eta andre hura etzen kristaua. Kristautasuna emateko, bazegoen apaiz hura, dotrina ematen astean hirutan zetorrena. Baina apaiza geisotu egin zen, eta hilabetean etzen etxean agertu.

"Andre ingles hura bere aisiara eta gogara zegoen. Bihotzetik gorrotatzen baitzuen apaiz beneragarria, eta ongi zekien umearen bihotza liluratuko zuela jaupariak, kontatzen nola jaio zen gizonen artean beste edozein gizon bezala egiazko Jainkoaren Semea, eta nola, hogetamairu urteren buruan, gizadiaren apurtasunak hobaririk ederrena aterako zuen inolako gertakariarekin.

"Baina Gabonetarako aste bete lotzen zenean, gure umazurtzak ustekabeko galdera batekin maistrea narritu zuen:

—"Miss Wentford, What's gabonak?

"Larritu eta larritu egin zen, eta bere hestutasunari etzion irterarik aurkitzen.

—"Zer diren Gabonak? Lamiak eta sorginak, eta gizonen asmazio eta imintzio guztien nahasketa bat.

"Baina mutikoa etzen gelditu konforme.

"Neskame batek esan baitzion zer ziren, eta nor zen Jesus Umea eta nola jaio zen bera korta baten, eta Bere Ama zen Birjina Maria, dontzellarik garbiena. Baina nola gizondu zen Umea, eta eman zuen Bere bizitza, isuri zuen Bere Odol preziatua, gizon guzti guztien bekatuak garbitzeko, hori ez. Neskamea buru-arina zelako, eta etzeukan apaizaren zuhurtzia.

"Eta umezurtz aberats hura gabonen zai gelditu zen, orduan etorriko baitzen Jesus Umea, eta berak etzeukan lagunik, eta lagun bat eduki nahi zuen, harekin olgatzeko eta bere dostailu politak erakusteko.

"Gure mutikoa Negurin bizi zen txalet eder baten. Eta Gabonak allegatu ziren, baina aita Madrilen zegoen, ministru batekin mintzatzen. Umezurtza afalduta zegoen, eta maistreak ohera bidali zuen, baina bera etzen joan, eta atarian zegoen, baratzetik kalera begira, pijama-hutsik.

"Orduan baratzeko atakan emakume-mutiko batzuk ikusi ziren. Eskale bi ziren, baina umezurtzak pentsatu zuen, Jesus Umea eta Bere Ama Birjina Maria zirela.

"Zer esan zion amak semeari, umezurtzak etzuen entzun, baina hau izan zen:

—"Hemendik ezpadituk bi hogerleko ateratzen, belarrondoko bana emango dizkiagu aitak eta biok.

"Eta bildurrez ikara baratzean sartu zen ume eskekoa. Eta umezurtzaren bihotza, atariko leihoan, pozez lehertzen zen.

—"Badator Jesus Umea, badator nirekin dostatzen—, zioen bere kolkorako.

"Eta beste gabe kanpoko atea zabaltzen du, eta dagoen bezala, bere pijama beste arropa gabe, negu hotzaren gordintasunean abiatzen da. Besteagana heltzean:

—"Nola duk izena? —galdetzen dio.

—"Jesus.

—"Bazekiat, hi haiz Jesus Umea, eta hirekin egon den emakume hori Ama Birjina Maria duk.

"Eskekoa ezta ezer esaten ausartzen.

—"Gose haiz?

—"Bai...

—"Itxadon hemen. Sukaldetik jàteko zerbait ekarriko diat, eta gero nire mekanoarekin dostatuko gaituk. Zeukat mekano haundi bat eta gomazko baloi haundi bat, hire burua baino haundiagoa. Iziko Juanak ekarri zidakan nire urtegunerako. Itxadon ezaidak ni etorri arte. Baina hor, arbola horren azpian, aterpean ezaiz bustiko ta.

—"Eta hik, nola duk izena?

—"Daniel. Zein pozik nagoen etorri haizelako! Baina egia duk, nirekin dostatu nahi duala?

—"Bai, eta pozik.

"Bost minituren buruan badator Daniel atzera. Plater baten oilasko zati bat, eta iru laranja dakaski, esku batean; eta bestean baloia, eta galtzarpean mekanoa.

"Jesus basatzan belaunbikatzen da, eta inoiz jan eztuena gurari bizi batekin ikusten du. Eztu entenditzen jan ditekeenik janari hain gozo bat. Umezurtz aberatsak zerutik datorren abots bat entzuten du:

—"Gose nintzuan eta jaten eman hidan.

"Jaleak eztu deus entzun.

"Danielek eztaki nori galdetzen dion, arbolapean dagoenari, edo zerutik hitz egin dionari:

—"Jan ondoren nirekin dostatuko haiz?

Berriro zerutik:

—"Ni banantzuk bai. Eta gehiago diostat; eztuk biharko eguna urratuko, hi nirekin, bion amen magalpean, olgatzen haritu gabe.

"Lurreko Jesusek bere kolkorako pentsatzen du:

—"Gauza bi hoiek hogerleko bik baino gehiago balioko dute. Ohostu egin beharko dizkiot, eta honela amak enau joko.

"Eta umezurtz gaisoari honela diotso:

—"Bai, hirekin dostatuko nauk. Baina utzidak lehenbizi hire dostailuak eskuetan edukiten.

"Besteak, ezer susmatu gabe, luzatzen dizkio.

"Dostailuak eskuan edukitea eta ihesari ematea, dena zen bat Jesus ume eskeko okerrarentzat. Bere kaderak Iparreko aizea baino aguroagoak ziren. Baina Daniel umezurtz aberatsak etzuen bere lagu-

na galdu nahi. Bere atzean abiatu zen ahalbait lasterren. Baina bestearen oinak bereak baino azkarragoak ziren. Lasterka egiten zuten biek, batak ihes egin nahirik, lehenbait lehen heltzeko etxera, nolako irabazi polita atera zuen erakusteagatik; besteak berriz, negarrez, honela ziotsan karrika baten kantoinean galtzen zen mutiko eskergabearen bizkarrari:

—"Erdu honera, Jesus, mesedez! Erdu nirekin olgatzen! Hireak dituk dostailuak! Nik bakarrik gura diat hau: hirekin dostatzea.

"Pijamaren ehun mehea itsatsita zeukan larruari. Bere oin ortutsak lokatzaz zikindurik zeuden. Eta bere bihotzean neguaren hotz ikaragarria zen nagusi.

"Ohoinaren itzala ere etzen ikusten. Kaleak hutsik zeuden. Noizik behin leiho edegi batetik umeen kantuak entzuten ziren, musika liluragarri batekin:

"Gaur gauean Gabonak dituk
eta bihar Eguberri:
Altzatzen dik zahatoa Peruk
eta maitatzen dik Mari.

"Danielek etxerako bidea zein zen etzekien. Galdu egin zen. Eta bere bernak flakatzen ziren. Giltzurrunetan min bizi bat sentitu zuen, eta izugarrizko hotz-ikara batek astindu zion bizkar-bezurra. Eta zerutik zetorren lehengo abotsak berak, orain ere berba egiten zuen bere belarrietan:

—"Bihar izango nauk lagun zeruetan. Amairik edukiko eztuen joko baten egongo gaituk beti. Nire Aitak apropos egin zuen suzko izar batekin futbolean egingo diagu hodei artean, eta ezkaituk erreko; eta mekano miragarri bat edukiko diagu: unibersua; egingo ditiagu munduak, eta gu baino injenieru, erlojeru trebeagorik eztuk izango inoiz. Deitu ninduan eta hemen niagok.

"Eta mutikoa, konorte gabe, lurrera erori zen."

Gure ugazabari negar-malkoak ateratzen zitzaizkion begietatik.

—Bai, nire langile maiteak. Biharamunean Jesusekin zegoen Daniel nire seme laztana. Amildu zen lekuan, han aurkitu zuten jelatuta. Berehala visitetan joan zitzaion medikuak esan zuen alborengo bikoitz bat zeukala, eta egun berriaren argia etzuela ikusiko. Zoritxarrez honela izan zen, ni Madriletik aeroplanuan etorri nintzeneko, bere arima ezpaitzegoen bere gorputzarekin. Nik kontatu dizuedana, nire semeak bere akabuko sukarrean esan zuen. Eta nire semeari poza ukatu niolako, zueri eskeini behar dizuet, beste modu batera nire semeak zarateneri.

Bere abotsa etzen kasik entzuten. Minak, oinazeak, lurra jota zeu-

kan. Eta langile azkar, gogor haien artean askoren begietan lastimazko negar-anpulo bat dirdiratzen zen.

Urteberrirako, premia etzela jakin arren, frabikako mandrinagelan, meza bat eman zen, umezurtz gisagaisoaren alde, langile guztiak entzule. Eta apaizak Gorputz Santua altzatu zuenean, hodei artean bi mutiko zapoketan ikustea, iruditu zitzaidan.

G. Aresti



ZEUREKIN NOA

Calamum quassatum non conteret. Is. 42, 3.

Txillardegi Jaunari

Gizon-begi-goritu,
gizon-jagi-zale,
gizon-griñen-katigu,
gizon-miñez-bete...
Gizon:
Zeuk legez daukot
arima gartsu bat.
Zeu legez nekatzen naz
muga leun baterantz.

*

Gorputza zur ta burdiñ.
Ariman indarra.
Erbesteko itxasoan
ontzi lander gara.

Sagar baten zoztorra
ardatz beiñenean:
Eragozpena nai ta
alaren artean.

*

Gizon-begi-goritu,
Gizon-urten-zale,
gizon-bakez-gosetu,
gizon-katez-bete...
Gizon:
Zeuk legez daukot
arima gartsu bat.
Zeuk legez, naikun biren
soka-tira daukat.

Gorputzak bere gusto
gaiztoak ba-ditu.
Zeiñen sendoak diran
ta zeiñen zoratu!
Begi gabe daroe,
arriskuz-arrisku,
engañuzko sokatan
biziro katigu.

*

Jaunak gizonarentzat
egin eban lurra.
(Baiña ba-dogu nunbait
zanetan mozkorra).
Nai buru-gabez goaz
lur eta uts gurtzera
gurtzen ditugun zeron
zazpi ezpagiña.

*

Arima, bere aldiz,
goietara deika.
Ezin gora-goratu
lurrari itsatsita.
Baiña ez gaiten lotu
eziña ikusita.
Mugitu gaiten gogor
askatu-indarrezka.

Gizon, zeuk legez daukot
arima gartsu bat.
Zeuk legez, naikun biren
soka-tira daukat.
Betiko gudu baten
nekea daroat.
Gorputza, mundu alde.
Arima, zerurantz.

*

Zeuk legez esaten dot
neure zori miña,
negarrez erregutuz
poza ta atsegiña.
Atondu nai daroat
barruko lorriña.
Iguiñez nabaitzen dot
obenera-griña.

*

Adimenaren illun,
oroimenen ausle,
borondateko uger,
naikerien aize,
sentiduen engaiñu,
indarraren kalte,
sagarraren zoztorrak
zenbat bear donge!

*

Atsegin-baratzean
sagarrak kimetan.
Tentaziñoa orri
orlegi artean.
Ume nintzan goizean
gauzak argi ziran.
Begietan illuna
gero azaldu zan.

*

Gizon-begi-goritu,
gizo-lertu-zale,
gizon-griñen-katigu,
gizon-miñez-bete...
Gizon...!
Zeurekin noa
mugako porturantz,
gauzak argi dagozan
erri eskaturantz.

GANDIAGA-TAR B. A.

ZUTIK

Uraren doiñuak ez du atsedenik
bolu zaarrean
tinkili tankala;
ni ere ibilia naiz zure atzetik
kalean beera
ta kalean gora.

Apaiñik zegoan galondoa zutik
Madalentxoneko
soro zabalean.
Maitasun ogia egingo artatik
buru zediñean,
ordun, uztaillean...

Bolu zaarreko doiñuaren gozo
garia eioko
zulakoan, nunbait...!
Ai, Madalentxoren galondo arroxko!
Mamirik ez eta
azaluts iro, bai...

ERKIAGA, EUSEBIO

GILTZ BERRIAK

Oraingo andre gazteen griña!
Joera makur zakarra;
gorputza ezin menderatu ta
senarrarentzat... adarra.

Peillo Joxepek eman zizkigun
espa mingotsik naikoa,
ordun bezela oraintxen ere
berdintsu dabil jokoa.

Praken gaiñetik ba ziran gonak;
orain gonarik baterez.
Andrak nolanai dioaz eta
gaiñez igarten ez errez.

Entzunik dugu: lotsa... azekin
Aulestia-n jan ei zuten;
gure aldian zera zeretik
garai baiño leen eten.

Berriz berriro gure auzoan
Peillo Joxepe ugari...
Antziñan ere, ba ziran eta
ezta, ordea, mirari.

ERKIAGA, EUSEBIO

THOMAS HARDY

IDIAK

Gabon-gaba. Amabiak.
"Oraintxe ari dira
idiak belaunikatzen."
esan zigun aitonak
sutondoan bilduriko
etxeko aurreri.

Abere paketsu ta apal
orietaz gogoratu giñan,
eta idiak orduantxe
ukullu-bazterrean
belauniko zegoztela
siñistu genuan.

¡Bai gutxi, gaurko egunotan,
uste lilluragarri au
siñistuko lutekenak!
Pensatzen dut, baña, norbaitek
Gabon-gabean esango ba-lida:
"Ator, gure aurtzaroko

atadi aren ondoko
ukullu bakartian
belauniko dauden idiak ikustera".
joango nintzakela berekin,
illunpetik, fedez betea,
egi-egia dalakoan.

(AYALDE-K EUSKERATUA)

GABON-GABEKO AMETSA

Gabon-gaba ontan Bidaso-ertzean
daukat gau-bidea. Izarren artean
illargi laurdena, zillar igitei lez,
gizon bakoitzentzat keñu zorrotz dagei.

Bide zabalean Olentzerorik ez,
ez oiu, ez abes, iñun alai oles.
Ixiltasuna gau guzietan jabe.
Beltz-beltzez jantzirik gabarrak lo daude.

Zugaitzak, bidean, ostroperik gabe,
abar karsoil goruntz, daude luze-luze;
illen beso mear obietatik at
iñoiz ezin iges, gogor egon bear.

Kexagarri nago bakarde osoan:
orko arrobian, nun gau beltzenetan
iratxo maketsak tuzte zintzarrotsak,
bertan urrats-otsak dauzkat erantzunak.

Ibaia erdian, gabarra itxuran,
ur-landatxo dago zugaitz eder pean.
Etzaio ajolik Gabon-gaba danik.
Ur-bizi garbian ametsetan. Noiztik?

Olako batian, oarturik gabe,
itxaso aldetik argitxo bat dager.
Arin ta lerrakor ur-landara dator.
Kezka mingarrian zer ote dan nago.

Lendabizi txinpart, orain gar antzera
zugaitz kularaiño edatzen da argia;
argi txit dizdia, xahu, begikoa,
eguzki orratzak bezin arraitsua.

Orduan, bai ipar bai ego-aldetik
jendetza millaka dator onuntz aurki.
Lohizune bazterrak une batez, tanpez,
doi-doi kokaturik bete dira jendez.

Jesus bera ortxe, ur-landa erdian,
bekoki jauzkorra, begi negartiak,
odol-malko batzuek saminki ixuri-ta,
ala dio kirats, garratz, suko eran:

"Ez nator zuen alper ongi-etorria
urriki artzera, baizik agerkian
danoi esatera bide okerretan
agitz erranduki galdu zeratela.

"Orain ainitz mende nere bialiak
ikasi zizuten bizikor bidea:
anaitasun bero, alkarte kartsua.
Zertan daude oriek zuen bizi-moduan?

"Pekatari gorrak nere lur-bizian
agertu zidaten beren txar-bidea
eta gero zintzo, Madalena antzera,
berezi oi zuten nere aterbea.

"Zuen artean nundik biotz onekoak?
Nun gogo zuzenak, jaidura garbiak?
Laidotu zerate iru ogenetan;
arrokeri, diru, lizunkeri pean.

"Arrokerizale: naspilla gorrian.
Dirukerizale: lapurren auzoan.
Lizunkerizale: loya beltzenetan.
Ontasun sai oriek ez ote utsetan?

"Orain nai duzute, zeñek laisterrago,
goi-tarteak eta illargia gaindu.
Agitz galgarria dala bide ori
oartzeko beta ta almenak ba'ote?"

Galdera orrekin Jésus itzuri zan;
goruntz xuxen joan zan gau-oste bidean.
Eurixka mingorra ta otza orduan
odol ttantto nastuz gureganatu zan.

Azkeneko urak Lurra nahasian
su ta odolezko izango omen dira:
sua, gizon berak piztutako garra;
odola beroa, zeruko negarra.
... ...
Biaramunian, euzki zabalean,
Bixente ibaian zegon arraunketan.
Abesten ari zan. Olentzeroari
mundu-bukaeraz iñolaz urduri.

Yoanes PAGOGAÑA

Aita Astarloa, euskal idazlea (*)

1748-1821

Nere anai Aita Villasantek bultza eginda nator onera. Gaia ere berak aukeratua det: *Aita Pedro Astarloak euskeraz egin zun lana.* Aspaldi baten eman nion baiezkoa, baita Astarloak idatzi zun guztia irakurri, eta or-emen oartxo batzuek paperean jaso ere. Baño eguneroko beste eginkizunez lanpetuta batzuetan, eta egia esateko, nere lantxo au nola burutuko nuen ezjakiteak ematen zidan nagiz beste askotan, Astarloaren liburu eta nere papertxoak mai baztarrean lo galanta egin dute. Eta azkenean, Astarloak merezi dun eta zuei zor zaitzuen ainbat ardura ta beta eman gabe, osatu det nere lana. Beste nozpaiten ondo osatuko al det gaur erdizka dakartzuedan lantxo au.

Durangon jaio zan, eta Sta. Ana'ko parrokian bataiatu zuten, milla zazpireun ta berrogeita zoztzigarren urteko (1748) Apirllaren lauan; bere izenak *Pedro María Isidoro* (Justo Gárate: "La Epoca de Pablo Astarloa y Juan Ant. Moguel", pág. 108). *Pablo Astarloa* ospatsuaren anaia zan. Eztakit beste iñundik atera leiken egi onen aztarnarik, baño dana dala, naikoa degu Pedro'k berak bayezten digula ikustea orain aitatu bear degun bere obra ontako bigarren liburuan, itzaurreko lenengo orrian.

Bere bizitzako goraberaz —nun ikasi zun eta nundik nora ibilli zan bere ikasketak menderatu arte lenengo, eta gero berari zegozkion lanetan—, ezer gutxi jakin det orain arte, baño zerbait geiago jakiteko ustetan nago. Berak dionez, Markinan azi zan: *Marquinacua da nire eusqueria, ainche azi ninzalaco.* Ez degu aztu bear berak demaigun oarpen au, bere euskeraz zer deritzagun esan bear degunerako; baño orain bertan, gero aitatuko degun A. Zabalak itz oek az-

(*) Itzaldi au Donostian 1957ko Otsaillaren 21 an irakurri zan.

tertuz, esaten duana: (Aita Astarloa) "Marquinan azi nintzan, baña euskeria da alde gustietakua".

Gure Ordenako praillea izan zan, Prantziskotarra. "Lectore jubiladu ta Definidorea" idatzi zuan berak, lenengo argitaratu zun liburuaren lenengo orrian. Ai danean, Lektore izana zan. Itz oezaz esan nai da, urte batzuek igaro zitula nunbait teologia erakusten. Ezagun da bere lan sakonean, Teologia ondo aztertu ta ausnartua zeukana.

Bere azkeneko urtetan Kantauriko Probintzial izan zan; milla zortzireun ta emezortzigarren urtean (1818) Gasteiz'en egin zan Kapituloan eman zioten kargu aundi ori. Andik iru urtera, milla zortzireun ta ogetabatean, Martxoaren 21'an ill zan Bilboko Komentuan.

Gure A. Astarloak egin zigun lanaren berri ematen asteko, ongi deritzat, bere liburuari ezarri zion tituloa irakurtzea. Onela dio: "Urteco domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac, ceinzubetan azalduten dan Erromaco catecismua. —Euretan aurquituco dabe Arimazain euscaldunac, euren Elextar, edo Feligresai predicadu bear deutzen icasbidia: Baita bere cristinau euscaldunac, cer jaquin eta eguin biar dabeen." Or daukagu Astarloak berak esanda, zer egin zun eta zertarako egin nai izan zun. Gero, *Euskaldun arima-zain jaundi* egiten dien itzaurrean, agiri da obeto zergatik eldu zion lan oni. Ai danean, etzegoan garai aitan, erriari jaiero itzaldietan erakusteko eran euskeraz idatzitako libururik. Mundu guztian egin bear zana, eta toki geyenetan egiten ere zana, au da, erriari bere izkuntzan zeru-lurreko misterioak erakutsi, gure artean etzan nunbait erdizka baño betetzen. Orregatik, eta utsune aundi ori betetzearren eraso zion lan oni Aita Astarloak.

Eta *Verbalditan* egin zun bere lana, apaiz eta Arima-zainei obeto laguntzearren. Bazekizkin ondo asko berak, ze eragozpen eta nekeak zeuzkaten Arima-zain askok euskeraz erriari meza nagusian itz egiteko: ze liburu aukeratu ez jakin, eta ez jakin nola euskerara itzuli. Ala dio berak.

Urteko domekak ainbat Verbaldi egin zitun, berrogeta amairu, eta Verbaldi oetan banatu zitun Kristau-ikasbidearen zatiak. Egoki banatuta dauka lana, eta gai guztiak aztertzen ditu zeatz eta garbi.

Baño izan zun beste asmo bat ere, lan oni buru emateko. *Christinau euscaldunai* zuzentzen dien bigarren itzaurretxoan, adierazten duanez. Kristauai beren egiteko edo obligazioak ondo erakustea izan omen zan lenengo sortu zitzaion asmoa. Egun ayetan nunbait, A. Astarloak dionetik ikusten danez, meza nagusitan bakarrik egiten zan itzaldia, eta kristau asko gelditzen ziran meza ortara joan eziñik; gaiñera, gazte askok irteten zuten beren etxe eta errietatik otseintzara eta oficioren bat ikastera, euskerarik etzekiten ugazabeengana. *Eta ser jazoten da?* galdetzen du A. Astarloak. "Eurac eztaquie erdera, ezta

artuten daben ugazabac bere eusquera." Eta bata besten aitzakian, etzan iñoiz dotriñarik aitatzen, eta len zerbait zekitenai dana azten zitzayen, eta etzekitenak berriz beiñere etzuten ikasten. Aita Astarloak euskerazko idazti onezaz kendu nai izan zun gaitz ori, eta ugazaba erdeldunai eta baserrietako gurasoai esaten die, irakurtzen dakin baten inguruan bildu ditezela irakurtzen ez dakitenak, eta onela, batek irakurtzen duna beste guztiak entzunaz, errez eta neke aundirik gabe ikasi ditzazketela kristauaren egin-bear edo obligazioak. Eta itzaurrean esaten duna bera dio berriz ere lenengo Verbaldietan; ara emen, bigarren Verbaldian zein egoki adierazten dien bere gogo bizia.

"Alcarregaz joco, barriqueta eta venturaz, gauzaric galgarrijenetan emoten dan demporia, iragoco balebe doctrinia alcarri itanduten, dudatzaca ondo jaquingo leuquee. Neguco gabetan sutondoan gorubetan, edo beste cereguinetan dagozanian, murmuracinoe, hipuin ezai, berba lotsagarri eta barriqueta gangar orde, alcarri doctrinia itandu, eta daquijanac eztaquijanari iracasten emongo balitz, guraso, ugazaba, seme, eta crijadu gustiac, ondo, eta ondo jaquingo leuquee. Neure entzula maitiac; eztago achaquijaric, doctrinia ez jaquiteco, guizonic sor, eta astunenac icasi leique, benetan nai baleu. Dacuzcuna da, cerbait jaquin nai dozubenian aurquituten dozubela nori itandu; eta noc iracatzi (pág. 20).

Ikusi dezagun orain azal eta mami nola osatu zun bere lana.

Erabat egindako lana dala dirudi, baño bi liburutan argitaratu zun, lenengoa (1816) milla zortzireun da amaseigarren urtean, eta bigarrena (1818) andik bi urtera. Gaur gertatzen zaigun bezela, orduan ere liburuak argitaratzeko diru-bearrean arkitzen ziran, eta jaun aberatsen billa ibilli bear izaten zuten. Aita Astarloaren ongille ta laguntzaille *D. Francisco Longa eta Anchia* —Zenarruza'ko seme ospetsua— izan zan. Eskerrona agertuaz, egundoko goraltza gozo eta beroak zuzendu zizkion bigarren liburuaren itzaurrean. Euskaldunak aspalditik daukaten izen aundia, antxiñako denporetan Erromaren kontra izan zituzten egintandiak, eta Napoleonen kontra *D. Francisco Longa* onen bitartez izan zituzten garaipen omengarriak aitatzen ditu itz bero eta bizi-bizietan. Itzaurre guztia ardura ta gogo aundienaz landua dirudi, eta ain ongille gertatu zayon gizon onen izena eta egipenak goraltzen egiñalak egiten ditu, eta bere liburua argitaratzeko eman dion laguntzagatik esker on beroenaz erantzuten dio.

Liburu au bigarren aldiz argitaratuta zegoala bagenekin, baño nik ez nekin besterik eta ez det oraindik ikusi. Orain illabete, Anai Balendin Berriotxoa, Salletarrak, esan zidan, berak bazeukala bigarren edizio ori, eta emango zidala lenengo orriaren kopia. Eta agindu bezela bidaldu zidan. Milla beatzireun da iru (1903)-garren urtean,

Florentino Elosu-ren echean argitaratu zan. Bigarren edizio ontan, zerbait geitu zion norbaitek, lenengo orriaren itz oetan adierazten danez: *Orain gueitu jacoz gaurco egunian jaquin bear diran cristiñau icaste batzuc, eta aguertucol dira 2'en liburuban.* Eskerrik asko Anai Balendin Berriotxoari.

Lenengo liburuan ogetasei Verbaldi dauzka; amaika, kredoaren azalpenerako eta amabost, Sakramentu santuenerako. Bigarrenean berriz ogetazazpi egin zitun; emezortzi, Jaungoikoaren agindu santuez, eta bederatzi Eleizarenez. Oezaz gaiñera, lenengo liburuan eman zizkigun beste zatitxo bi guztiz ederrak. Lenengoa: "*Urteco domequetaco Evangelijuac eusqueraz: Verbaldijetaco sarzajeracaz.*" Bigarrena: "*Domequetaco evangelijuetatic Verbaldi edo Platicac aterateco esacai, edo testuac; baita bere euren sarzaijerac.*" Lenengo zatitxo ontan, domeka bakoitzeko Ebangelioa euskeraz esan ondoren, artzen ditu Ebangelio ortaco itz berezi batzuek "Verbaldiko Sartzajera" egiteko. Onela, domeka bakoitzean, Ebangelio santua euskeraz esan ondoren, itzaldia dotriña santuaz egin dezake beti Apaiz jaunak. Egoki badatoz eta ezpadatoz itzaldiak Ebangelioakin, saillean sartzen ditu itzaldiak urteko domeketan, Abendu santutik asita. Esan degunez, berrogeta amairu dira Verbaldiak, eta domeka bakoitzean bat esanaz, urte buruan dotriña osoa eman dezake Apaizak, eta auxe da A. Astarloaren nai ta gogoa. Ain zuzen ere, Apaiz jaunei beren itzaldietarako errextasun eta aukera obea ematearren, erantsi zion orain-dio beste bigarren zatitxoa. Zati ontan, Ebangelio bakoitzetik iru esacai edo texto artzen ditu geyenean, eta bakoitzarekin sarrera berezi bat egiten du ondoren esan bear dan berbaldirako. Ez, ordea, len bezela dotriñako itzaldiak saillean esateko; oraingo ontan, esakai edo textoak dionetik egokien iruditzen zayon gaiera jotzen du. Bigarren modu ontan aukera obea ematen dio Apaizari, erriari egoki izango zayona esateko. Oso itz gutxitan, baño bai egoki geyenetan, egiten du sartzajera ori. eztenkada bizi bat besterik ezta sarrera guztia, baño oso poliki sartutako eztenkada. Irakurriko degu gero zerbait.

* * *

A. Astarloak utzi zigun liburu au nolakoa dan eta ze balio daukan esateko, auxe deritzat lenengo gogoratu bear dana: euskeraz idatzi utsakin eta euskeraren bitartez mesede aundia egin ziola euskal erriari. Euskera berari zion maitasunak etzun lan orretara beartu, euskeraren bitartez animetan egin zezakean on aundiak baño. Euskeraren paltaz, au da, Jaungoikoaren itza euskeraz entzun eta irakurtzen etzutelako ikusten zitun asko ta asko ezjakiñean eta ezjakiñetik datozen gaiztakerietan erorita. Ondamendi onek samintzen zion biotza, eta

ortik sortu zitzaion lan oni eltzeko gogoa. Ez det uste buruko miñ aundirik emango zionik ze nolako euskera idatziko ote zuan kezkak. Euskeraz bazekin, euskeraz egiten zun erriakin, eta ain zuzen ere, atsegin gozoa darien itzetan dio berak: "Vizcaico erri ascotan predicadu dot eusqueraz, eta gustietan esan deuste, ondo, eta ondo aitu dabeela esan dodana." Eta alkarrekin zerabilten euskera orretan dotriña erriari azaldu ta erakustea etzitzaion lan ain gogorra irudituko. Baño egia garbi esateko, iritzi au oso nerekasa diot. Egilleak berak dionez, urduri ta bildurrez egon omen zan denpora luze baten, lan oni bai elduko, ez elduko eta azkenean, animekiko egarriak ekiñarazi omen zion. Baño nere ustez atzerapen ori etzan euskerearen aldetik zetorkion bildurra izango.

Au da, beraz, A. Astarloaren pentsamentu ederra, eta guk emen goraltzen dioguna: animen egarriak eraman zula euskeraren iturrira. Egia oni begira ulertuko ditugu ondoan bere liburuan dakuskigun utsuneak eta bikaintasunak.

Baño ikusi dezagun lenengo ze dotriña eta nola erakusten dun. Animen egarriz erretzen dagonari dagokionez, dotriña erreza erakusten sayatzen da, jakin bearrekoak diran guztiak gogoratzen ditu, eta naiz ulergaitzak eta zaillak izan egi santu oek, alegin guztiak egiten ditu ulertzeko moduan azaltzen. Iñoiz, adibide politak, errezak eta biziak asmatzen badaki. Ondo ezagutzen zun bere erria, baita bere akatsak ere. Bigarren liburuan, batez ere, agindu santuen explikazioa egiten dunean, eta baita Konfesio ta Komunioaz lenengo liburuan egiten ditunetan ere, erakusten du, gure erri ta baserri, nekazari ta etxekoandra, neska ta mutill, ume ta gazteen bizimodu ta goraberak ondo ezagutzen ditula. Eta gure eguneroko jardunetan eta artu-emanetan izaten diran eta ikusten diran gaiztakeri ta okerbide agirienak, erruki gabe ta garratz astintzen ditu. Juramentuak zein errez eta zein gaizki egiten diran sarritan, gurasoak zenbat begiratu bear daukaten beren semeak ondo azitzeko eta zein arduragabeak diran askotan, alkarren arteko gorroto ta ikusi eziñak, eta oekin batera datozen eta dabiltzen birao ta maldizioak, moskorkeriak eta gazteriaren izketa gordiñak eta dantzak eta ondoren txarrak, artu-emanetan izan oi diran maltzurkeriak, lagun-urkoaz gaizki pentsa eta jarduteak, eta Konfesio santurako zein gaizki gertatzen diran gizonak, eta zein otz eta ardura gabe agertu oi diran Komunio santura, gai oek eta kideko beste batzuek guztiz ondo ta zorrotz eta garbi erakutsi ta azaltzen ditu.

Gure mundu gizajo au beti berdin-xamarra izan omen da, okerra ta zitala alegia gure Jaungoiko on eta errukitsuaganako; ala izango da bai, gaurko gizon bizardunok ao-batean esaten badegu ere, gu txikiak giñanetik asko gaiztotu ta okertu zaigula inguruan dakusgun

gure Euskalerria; orain bertan eta gaur emengo sermolariak egin oi ditugun erasoaldiak ez dute alde aundirik, eun da berrogei urte lenago A. Astarloak egin zitunetik. Arek idatzi zitun batzuek, itzik aldatu gabe esango bagenituzke ere, gaur bertan egindakoak irudituko litzazkiguke. Onenbestez, ez nabil nere A. Astarloaren kontra. Nere ustetan, oso bere alderakoa eta bere izena aunditu ta goraltzekoa da, bere Euskalerri maitearen akats eta utsuneak ondo ezagutu zitula esatea, eta ain zuzen ere, guztiz ondo ezagutu zitulako egiztatzen degula gaur bizi geranok, ordun arek ikusi zitunen antzeko dirala gaur ere asko ta asko.

Itz batzuek orain, bere euskera ta estiloaz. Gure antxiñako idazlen bat aitatu ezpat —onenean guk ez dakizkigun ainbeste gauza eder badakarzki, guk dakigunaren aldean euskera bikain ta aberatsa ere badauka—, baño baliotasun oek alde batera utzita, lenengo begiratu oi deguna, erderakadaz betetakoen artekoa ote dan. Eta kutsu ori bizixamarra baldin badu, iguinez betetzen gera, eta lanak izaten dira liburua eskuetan artu eta eutsiko badiogu, ta areago, irakurri ta arreta pixka bat emango badiogu. Nere burua ixtillu gorri ontan ikusia naiz, eta baita nere inguruan beste asko ere; Orain darabilgun Astarloa au eskuetan artu nuanean ere, eznion abegi oso gozoa egin. Zuzenduko al zaigu euskalzale guztioi irizpidea, gure idazleak artez eta ongi juzgatzeko.

Ezin esango degu euskera garbi ta jatorra dala beti bere liburu ontan eman diguna. Erderazko itz asko, eta askotan alperrik, idatzi zitun; baño bere ustetan bearrekoak ziralako. Ala dio berak itzaurrean. Gaiñera, erderazko liburuakin ibilliko zan, nai ta naiez, bere lana biribiltzen, eta etzun askotan asmatzen, erderazkoa euskeraz tajuz ipintzen. Ez da arritzekoa. Nere irudimenean begira nagokio A. Astarloari, nola ibilliko zan bere liburua antolatzen. Eguneko argitan egiteko beta gutxi, eta gabeko ordutxo batzuek iñoiz arrapatuz, piztu argia, ipiñi argi-ontzia argi-mutillean, zabaldu iru edo lau liburu mai gaiñean, eta batak eta besteak erderaz ziotena euskeraz jantzi, emen luzatu eta an laburtu, onek erdizka dakarrena besteak dionetik bete; ta bere pentsamentua ulerkaitza aterako zitzaion bildurrez erderazko itzak ugari jalkiaz...

—Lanbide txarra au, esango didazu, txarra ta motza. Alaxen da, baño etzan liburu osoan ain urri ibilli. Baditu saill ederrak bestelako argi eta berotasunean beteak; ibilli zan bere lumea eragozpen aundirik gabe, buruan euskeraz sortzen zitzaiona euskera bizi ta jatorrean idazten. Ezin ukatu erderazko joskera eta esaerak nunnai ernetzen zaizkiola belar gaiztoak gure soroetan bezela, baño baita joskera zuzen eta garbiak ere baditu, eta ez lenengo ikusaldian deritzagun bezin urri. Baratza-ertzetako marrubiak bezela dauzkagu emen pitxi eder

oek; ezer gutxi dagola uste, lenengo begiratu degunean, eta biltzen asi geraneko ontzi sakona bete.

Dana dala, erderakada oien utsune edo beltzun ori gora-bera, badauzka liburu ontan amaika gauza eder eta maitagarri; barkatu dezaiogun bata eta jaso ditzazkiogun besteak.

Eztakit zuzen nabillen nere iritzietan; ez naiz euskaltzale sakona, oso axalekoa baizik. Nolanai ere, nere iritziak ez du arrasto aundirik utziko naiz zuen ustetan, naiz Astarloaren baliotasunean, eta esan dezadan nere begi-belarrietatik zear sentitzen dedana. Beingo begirada utsez liburu osoak zer darakuskidan galdetzen badidazute, auxe erantzungo nizueke: bere entzule eta irakurleak, Bizkai-errietako nekazari ta gente xea, euki zituela begien aurrean eta biotzaren erdian, eta aiekin izketan balego bezela, aien adimenari zegokion modutan egin zitula bere Verbaldiak: eta dudarik gabe, Astarloaren euskera, itzez itz, garai artan Markina aldean egiten zana izango zala. Badirudi toki batzuetan erderazko liburutik euskerara itzultzen dabillela; baño beste askotan, adibidez *erasoguintza* geyenetan, berekasa eta euskeraz esan bear duna euskeraz pentsatuaz; eta jakiña, orduan bere euskera jatorrago ta egokiako dario, eta eztauka bestean ainbateko erdera-usairik. Ikusiko ditugu gero zatitxo batzuek, guztiz mardulak eta gozoak.

Zati onentxoen artean aipagarriak dira len gogoratu ditugun *sartzajerac* ere. Ebangelioak ematen dion pentsamenturen batetik berak nai duan itzaldira igarotzeko egiten duen *zubia* bezela dira sartzayera oiek; sartzayera oietan dauka A. Astarloak euskera garbi ta ederrena. Sartzayera au, geyenean edo beti berak asmatua izango zan; ez det uste liburuetan zubi oen billa ibilliko zanik: orregatik erasogintzetan agiri dan bezela, emen ere berekasa dabillenean, euskeraz pentsatzen du, eta euskera garbi ta bizi-bizian jasotzen du *zubia*. Adibidez, ikusi ditzagun batzuek:

Sinite utraque crescere usque ad messem (Gari-soroan zoragaria erein zuanaren ipuia).

"Mundu onec dirauban artian beti ibilico dira nastaduric Elexa santuban onac eta dongac gaurco Evangelijoco soluan gari, eta zoragarija leguez; bada fedia euqui ezquero gustijac dira Elexiaren seme, eta orregaitic dauque santuben comuninoia. Cer dan Elexa au, eta Santuben comuninoia nai deutzubet adi erazo."

Cum jejunasset quadraginta diebus... (J. K. basamortuan egin zun barauaren Evangelioa).

"Nor arrituco ezta enzunic Evangelijuan gosiac ilic daguala araco Jaungoico gizon, abere, chori eta arrainac janariz aseten dituzana? Eta alambere astun eguingo jacu baru eguin, eta gose pusca bat ira-

gotia? Neure Christinaubac jarraitu deijogun pecatarijoc pecaturic ez eucanari, eta baru daigun Elexa Ama Santubac aguinduten deuzcunian."

Duxit in montem excelsum seorsum, et transfiguratus est ante eos. (J. K. mendi gañean *antzaldatu* zaneko Evangelioa.)

"Erraz jacan Jaunari Ibar baten iracustia S. Pedro, Santiago, eta S. Juani mendi baten gan ganian aguertu zan cerubaren irudija, ainbat aldatz pica irago eraso baga; baña adi eraso gura izan euzcun, ecin inor eldu leitequiala ceruco atzeguinetara penintentcijaco aldatz garratza irago baga. Penintentzija au benetacua izateco aurquitu biar da pecatubaren damubagaz; bada au baga alperric eguingo dira gorputzeco penintentzijaric andijenac, eztabe ecer valijoco santu gustijen gaubela, baru, eta miragarriric andijenac. Orregatic azalduco deutzubet ondo confesetaco biar dan bigarren gauza au."

Beste batzuek ere badauzkat emen, baño ezin irakurriko ditugu danak. Lentxeo esan dizutet *sartzajera* oetan eztenkada zorrotzen batzuek badituela. Ara emen bi.

Locutus est mutus et admiratae sunt turbae (Mutua sendatu zuaneko Evangelioa).

"Mesede andija izan zan Jesu Christoc gaurco Evangelijoco mutubari eguin eutzana verbetia emonagaz; baña nire erechijan andijagua izango litzateque ascori eguingo leuzquijona mututuric ifinijagaz, orregaz ez litzatequez entzungo ainbeste birao, ainbeste maldicinoe, eta ainbeste aneniño. Pecatu caltegarri auxe azaldu, edo explicadu gura deutzubet."

Cum intraret Jesus in domum cujusdam principis Phariseorum Sabbato manducare panem (Urmindun edo hidropikoa sendatu zuaneko Evangelioa).

"Jan, edan, eta combit artian eguinico mirari bat daucagu gaurco Evangelijuan. Eztaquit aurquitu al leitequian gaurco jan edan artian onelaco mirariric: larreguitan dacuzcuna da ascoc eta ascoc ordiric urteten oi dabela, eta mirari orde euren gorputz, eta arimac galcen ditubezala. Ezagutu daguijen ordiac celaco caltiac dacarrean euren burubentzat, gaurco verbaldia izango da ordiquerijaren ganian."

Goazen aurrera. Astarloaren lan onezaz badegu beste zerbait, oso aitatu bearrekoa. Zarautzen, gure Konventuko archivoan badaukagu A. Juan Mateo Zabalak idatzitako zerbait. Idaztitxoaren azalean esaten du: *Adiciones* y *correcciones* a la obra *"Urteco domecac"* del *P. Astarloa*. Baño titulu au gaiñeko azalean dakar eta azala berria da; etzion ba ezarriko, ez det uste, Aita Zabalak, Archivoko zuzendariren batek baño. Geitu, eztio iñun ezer geitzen Aita Zabalak, bere anaiak idatzitakoari; zerbait aldatu, orraztu, zuzendu, bai. Erderazko

itz asko kendu egiten dizkio, eta ordekorik ipiñi gabe askotan, bearrik eztalako. Aita Astarloa baño euskaltzale trebeagoa zan A. Zabala, eta berak egiten dizkion zuzentzeak ondo daudela esan bearrik eztago. Eztakigu ze asmo izango zun A. Zabalak, iztegi baten antzera, erri ta lerroen zenbakiak aurretik dirala, itzez itz berari gaizki zerizkionak aldatuz egin zuen idaztitxo onezaz. Dana-dala, oso burutu gabe utzi zun; lenengo liburuaz aspertu zan nunbait. Nere ustez, edertasun, txukuntasun eta gatz pixka bat ematen dio zuzentze oezaz; baño orraztu eta apaindura guztiak ontzat artuta ere, eztio bere itxura ta tankera aldatzen Astarloari. Ongi egiña A. Zabalaren lana, baño azalekoa da. Janari-iduri bat aitatu baldin ba-leike, A. Zabalak gizenak or-emen ebakitzen dizkio, giarra ikutzaka gelditzen da. Adibidez, eta A. Zabalaren lana zer izan zan nolabait erakusteko, iru zatitxo irakurriko dizkitzuet; lenengo, Astarloak berak dakarrena; gero, Zabalaren zuzentzeaz izango litzaken bezela.

ASTARLOA: Gura badau Arimazain edo Cura Jaunac, asi Verbaldi, edo Platiquia Domecaco Ebagelijuagaz / esan begui lenengo Ebangelijo ostian daguan testua; eta guero eusqueraz Ebangelijua/: baña nai ezpadau esan Ebanjelijua, asi begui Verbaldi, edo Platiquia esacai, edo testotic,/eta bere urrengo daguan sarzaijeratic.

ZABALA: Gura badau abade-Maisu jaunac berbaldija asi Domecaco Ebangelijoagaz/esan beguique lenengo Ebangelijo ostian daguan latiñezco testua; eta guero eusqueraz Ebangelijua bera/. Baya nai ezpadau esan Evanjelijua, eztauca asi baño berbaldija latiñezco testotic/, eta onen urrengo daguan sartzajeratic.

ASTARLOA (VII Verbaldia): Azaldu edo expliquetan da Credoco laugarren articuluba./ -Laugarren Credoco articuluban dinogu/: *Irago, edo padecidu evan Poncio Pilatosen mempe, edo poderijuen beian/: izan zan crucificaduba, il, eta obipetu edo sepultaduba/*Verba onetan sinistu, eta confesadu biar dogu/: Poncio Pilatos judeaco aguintari, edo nagusi zan demporan,/irago evala Jesu Cristoc pasinoeric itzaltsu eta icaragarrijena.

ZABALA: Azalduten da Credoco laugarren articuluba./-Credoco laugarren articuluban dinogu/: *Irago edo padecidu evan Poncio Pilatosen aguindubaren beian/*: izan tzan curutzian *yosija, ila ta enterraduba edo obipetuba.*

Verba onetan sinistu eta aitortu biar dogu;/Poncio Pilatos, Judeaco aguintari, edo nagusi zan unian/, irago evala Jesu Cristoc pasinoeric itzaltsubena eta icaragarrijena.

ASTARLOA (VII Verbaldian): Auxe da adi eraso gura doguna, dinogunian, Jesu Cristo il zala, gu pecatutic ateratearren/. Baña jaquin biar doguna da, ez bacarric atera guenduzala lenengo gurasoen pecatutic/, baita mundubaren asijeratic, eta amaitu artian eguin dirian, eguiten, eta eguingo dirian gustijetatic bere/, eta alan, ezta inos parcatu, ezta parcatuco bere, Jesus Christoren pasinoe, eta erijotziaren bitartez baño/: beronegaz pagadu eutzalaco,/ guizon gustiac eguin zitubezan, eta gueroco demporetan bere, pecatubacaz eguingo zitubezan zorrac.

ZABALA: Auxe da adierazo ta ulertu eraguin gura doguna, dinogunian, Jesu Cristo il zala, gu pecatutic ateratearren./Baña jaquin biar doguna da ce, ez bacarric atera guenduzala lenengo gurasoen pecatutic/, baita mundubaren lenengo asijeratic eta munduba dan arte guztijan eguin eta eguingo dirian gustijetatic bere/, eta alan, ezta pecaturic parcatu eta ezta parcatuco bere, Jesu Cristoren pasinoe, eta erijotzaren bitartez baño/beronegaz garbitu evazalaco,/guizon gustiac eguin citubezan eta gueroco aldijetan bere, pecatubacaz eguingo zitubezan zorrac.

Aditz edo Verboaz zerbait esan bear nizuteke. Baño gerogo baten, zuzendari on baten laguntzarekin egitekotan gelditzen naiz. Auxe bakarrik oartu bear dizutet orain; Astarloak berak Markinako euskerea daukala dio; A. Zabalak berriz, orain aitatu dedan idaztitxoan, alde guztietako euskerea daukala; ta ikusi dedanez, *forma verbal*'en batzuek, eztakit zuzentzearren ala obe- bearrez, aldatu egiten dizkio, sarritan. Ara emen, batzuek:

ASTARLOA		*ZABALA*
Au eguin leijenac	=	...daiquenac
leijo	=	daikio
leique	=	daike
Cembat on ecarri leizan	=	...daiquezan
Esango ditudaz lenen	=	dodaz edo deutzuedaz nagusienac
Icasi al leique buruz	=	buruz artu daique
Cerbait aitu al daizun	=	aditu daiquezuntzat
quendu al leijue	=	quendu daikiue
dituguzan...	=	doguzan
guc... daucaguna	=	daucaguzanac
...dituguzanac	=	doguzanac

esaten oi dan = esan doian
oi dabe = daroe
al dedin moduban = albaitian
urreratu al guinaitequezan = guenitequezan
icusi al leitequian = lecuskian
ecin eguin leijanen borondatia = ezin daikianaren edo dainaren

Oek danak ikusita, Astarloaren verboaz bear bezela itz egiteko, Bizkaiko verboa eta garai artan Marquina-aldean izango zitun diferentziak ikusi ta ikasi bear ditut lenengo.

Baño esan dizatzuteket, Verbo sintetikoa sarri ta oso egoki darabillela liburu guztian. Ara emen, nik jaso dizkiodan batzuek:

1) Necusan, dacuzcunez, ecusan, dacuscuz, eztacust, dacuzgu, nacuz, balecuse, ezpelecusaz leguez, dacuzcunian, badacuzcu, dacuz, dacuze, (doatsubac zuec dacutsubena dacusen begiac).

2) Dazaut, dazaudaz neure ardiac eta nazaube, nere Aitac nazaubana-leguez dazaut neure Aita, eztazauzube, eztazaudala, bera eztazaunen bat.

3) Danzuz, danzuzan, danzube, danzugu, danzu belarri baga, zuec zanzubenac neu nanzube.

4) Daruazu, daruagu.

5) Dirauztazu.

6) Datzazan lupatzatic jaguiteco.

7) Dirauban denpora gustian.

Eta *ibilli, etorri, ekarri, euki, iritzi* verboetatic datozen beste asko.

Ez det uste gure teologoak balio aundiko itz berririk arkituko dutenik A. Astarloaren liburu ontan. Len esan dedanez, bere pentsamentua garbiago erakutsi bearra gertatzen zayonean erderazko itzetara jotzen du euskeratik gauza berririk sortu gabe. Baño noizpeiñetan txinpartatxoren bat ikusten da. Bada ezpada, jaso ditut geyenak.

Sinistamen edo articulu; iru *eguial*, sensun edo potencija; *araguincia, araguiquintza*, encarnación. Iru oek Larramendik badakarzki; eta andik artuak izango ditu.

Fede edo *sinisqueria* (Keri au ez da sufijoa; itz au siniskera izango da). *Irucadia*=Trinidadea (A. Zabalak zuzenduaz: Irucochtasuna, irubatasuna). *Onoidade* edo perfeccinoe; *neurtuezgarri, neurri-ezgarri, neurribaguia, neurrialeza*=incomensurable.

Guztien iturri ta *urtaijeria* (J. C. da). "Eztago beretzat, ez *iragoric* ez *etortecoric*... ezta orain zarrago, munduba eguin evanian baño, ez orduban gastiago orain dan baño; beti beti dago *sen baten.*"

Sortubacarra=Unigénito; E. Santua etorri zan *Mayatz Pascuetan. Zatizaile* edo cismaticubac; *ipinle* edo fundadore (J. C.); pecatu

mortala edo *ilguilia* edo ilten dabena; venialac esan gura dau *parcagarrija*. Gloriaco lau doe: *nequezcartasuna*=impasibilidad; *arguitasuna*=claridad; *minztasuna*=sutileza; *arintasuna*=agilidad.

Jaungoicotasunaren *partari*=partícipe de la divina gracia. Gracija *santutuguina*=santificante; *erasoguille*=actual. Onei (padrinos) dei eguiten jacuen Arzailaac, baita bere *izquinzailiac*. *Etorbarri* edo catecumenoa. Propositu *eraguilia* .eficaz. Modu bitacua da Indulgencija; bata betia, bestia partearra=parcial. Donquestali edo hipócrita. Siniescorra=incrédulo. Fede *oitarra, oituracua* edo habituala, eta *eguinzacua* edo actuala.

Ona emen Astarloagan arkitutako beste itz-mordoa, beren erdalesanaia ta guzti. Batzuek arkitzen dira Azkue jaunaren iztegian ere, baiña askotan Azkuek ematen duen esanaia, eta Astarloaren itzak adierazten duena eztira guztiz berdintsuak.

Abacería=género, mercancía (2gn. liburua, 167gn., orr.)

Abaceru=tendero, expendedor de comestibles (2 I., 70 orr.)

Abasberuan edo destaiju=al buen tuntún, lo primero que a uno se le ocurre (1 I., 191 orr.) (Azkuek eztakar).

Aijarija=lamento (2 I., X orr.) (Azkuegan Ayari).

Aldiguezto=desmayo, indisposición (1 I., 81 orr.) (Azkuegan aldigaizto).

Almillia=especie de jubón (2 I., 159).

Alsi=ropa vil (?) (1 I., 138) (Azkuek eztakar).

Angui=dehesa, lugar de pasto acotado (2 I., VI) (Azkuegan angio).

Aratu=explorar, registrar (2 I., IX).

Aricatu=fatigarse mucho (1 I., 62).

Bide-ornija=viático, provisiones para el camino (2 I., 230).

Cadendu=debilitar, dejar sin fuerzas (1 I., 1).

Carcaba=foso, cárcava (2 I., 237).

Celai=fácil, llano (adjetivo) (1 I., 125).

Cerzuc=qué cosas, cuáles cosas (1 I., 249).

Cirarguin=platero (2 I., 69).

Concortu=admirarse, enajenarse (1 I., 87).

Corroncija=peste (?) (2 I., 112) (Azkuek eztakar).

Charritan ibili=andar escapando, por librarse de una obligación (2 I., 78) (Azkueren iztegian: eskolara uts egitea).

Echaguntza=casa propia (2 I., 91).

Enparau=sobrar (2 I., 204).

Eraso=ayudar. "Umiai eraso." (2 I., 89) (Azkueren iritzi-meza-laguntzea adierazteko baizik ez omen da erabiltzen).

Erasoguinza=exhortación (1 I., 9).

Erlaro=tumulto, clamor (1 I., LX) (Azkuek eztakar).

Ersugue=basilisco (2 I., 130).
Estropezu=tropiezo, obstáculo (1 I., V).
Ezaintasun, ezaindu=fealdad, afear (1 I., 80).
Jaque=chaqueta (2 I., 159).
Icasjardun=aprendiz (1 I., Christinau Euscaldunai).
Ichusqui edo guinarria=escoba hecho de brezo (2 I., 41).
Iracutsi (Eracutsi-ren aldaketa bezela) (2 I., XXIV).
Irardausi=sacudir (2 I., 134).
Irritu=airarse (2 I., 106, 237).
Laboria=fruto, cosecha (2 I., 173).
Laru=ictericia (2 I., 38).
Limurija=placer venéreo (2 I., 133) (Azk. eztakar esanai au).
Lucrerija=ganancia abusiva (1 I., 16) (Azk. eztakar).
Lugaban=trinchera (1 I., 176) (Azkuek Lueban dakar).
Lupatza=ciénaga, lodazal (1 I., 125) (Azkuegan Lupetza).
Lurresi=muralla (1 I., XXXXIV).
Maaxchubago=más modestamente, con menos lujo (2 I., 156).
Meaca=desfiladero (2 I., VI) (Azkuek Oihenartena bezela dakar itz au).
Oñoten=murmurando (1 I., 210).
Oquellu=rincón, escondrijo (2 I., VI).
Oracada=acto de agarrar, asir (1 I., 17).
Opetzijac=ofertas (2 I., 88).
Ordatu=bordar (2 I., 136) (Azkuek eztakar).
Pechubatuguin=publicano, cobrador de tributos (1 I., XXXVII) (Azk. eztakar).
Pelleburu=peligro (1 I., 17).
Sereni=cinta (?) (1 I., 269).
Subil=tronco (1 I., 235).
Teguia=depósito, almacén (2 I., 109).
Urlija lecutan=en tal sitio (1 I., 175).
Urreguin=platero (2 I., 67).
Zugateco laratzuban=en el llar del fogón (2 I., 39) (Azkuegan, Sugate, suate, suete).

Eta orain, Astarloaren idaztankera zer moduzkoa dan ikus dezazuten, pusketa bat edo beste irakurriko degu.

LII-garren Verbalditik: "Nun azaldu edo expliquetan dan Agur Maria."

Esan beguijo Ave Marija graciaren amari, eta beragandic artuco dau egoera zori onecuan irauteco sendatasuna, eta ichaso onetatic etorrico jaco naico beste santidade. Poztu bedi pecatarija; bada bildur

badeutza Jaungoicuaren justicijari, eta azartuten ezpada ain loi, eta atsituric ifinten Jaungocuaren aurrian, bijua bere Amagana, Ave Mariaren bitartez. Ez ez, ezbegui bildurric euqui, eztau beragan aurquituco, ez laztasunic, ez aserreric, ez becoqui astunic, ez verba garratzic. Gustija da ona, biguna, erruquiorra, samurra, eta leuna. Pecatuz beteric badago bere, dei eguin beguijo ao betian Ama; bada eztago beretzat izen gozuagoric pecatarijen Ama baño; onexec beteten deutza bere gogua, onexec emoten deutza pozic andijena, eta auxe da gure aotic entzun nai dabena.

III-garren Verbaldiko erasoguinza: "Credoco lenengo articuluba."

Erasoguintza.—Ez gueunque inos bere astu biar, neure Chistinaubac, Jaungoicuaren anditasun neurri baguia; bada izango litzateque asco, guizonic arruena luurreraño humilduric gueratuteco. Ifini bedi guizonic andijena, erregueric alsubena, aguintariric aberatz, sorionsubena, eta lur gustija bere aguindupian daucana Jaungoicuaren aurrian; beguiratu begui cer, eta nor dan Jaungoicua, eta cer dan bera; eta auxe asco izango dau ezagututeco, eztala luurreco inurri bat beste. Jaun onentzat mundu gustija ezta goxeco ijunz tantachubat baño, eta gente gustijac eztira, ezpalira bano gueijago, eta erreinuac dira luurrian aguiri eztan autza. Beguira ce zabalac dirian cerubac, bada gustijac daucaz arra barruban. Ain gauza pusquia badira cerubac, eta mundu gustija, cer izango da guizona Jaungoicuaren aurrian? Ozta, ozta aguiri badira erreinuric zabalenac Jaungoicuaren albuan, zer izango da erreinu onetan ozta ozta ikusten dan guizona? Nundic nora, bada, arrotu leiteque guizona? nundic nora euqui leique ainbeste antuste?

Eta alambere gauzaric chiquijen chiquijena da asco guizon erua puztuteco. Bestiac baño diru apur bat gueijago euquitia, bestiac baño ondasun pusca bat gueijagoren jauve izatia, bestiac baño ezcubide, mende, diñade, honra, edo nobleza pitin, pitin bat gueijago euquitiac, arroquerijaz beteten dau lurrian aguiri eztan simaur puscachu au. Esan eguidazu guizon ichuba: Cer da zuc daucazun, eta euqui al cinaijan gustija, zure vijotz ori modu orretan puztuteco? Ecer bereez, aixiac daruan autza, gueriza bat, ames laburchu bat. Eta cer zara ceu? Goxian jaijo, arratzaldian loratu, eta iluncian sicatuten dan lorachu bat, beingo beinguan irago, eta deseguiten dan lurrunchu bat. Baderichu, au alan eztala esan eguidazu: Nun cengozan orain oguei, berrogei, iruroguei edo laroguei urte? Inumberez. Cer ceuncan orduban? Ecerberez. Cer cinian? Ecerberez. Eta cer euquico dezu emetic beste ainbeste urtera? ecerberez. Cer izango zara? Lur zatibat, autz puscabat, simaur ustel, eta atsitu bat. Eta nun aurquituco zara? Ez orain

ainbeste puztuten zaitubezan gauzeen artian. Baño betico iraungo balebe bere, antuste ain andija emoten deutzubezan gauza orreec, eztaucazu zer arrotu orregaitic. Estaucazuz ceurez, bestegandic etorri biar jatzuz. Cer daucazu bada artu eztozunic? Eta artu badozuz, certaco puztuco zara, artu ezpacenduz leguez?

Christinaubac, eztago mundu onetan betico iraungo dabenic; eztago berez pobre eztanic, eztago besteren biar eztanic. Jaungoicua bacarric. Auxe bacar, bacarric da berez andija, berez aberatza, berez beticua, berez inor biar eztabena. Cegaitic bada arrotu cinaitequez guizon argal, pobre eta cadena, ez izanic luur zati, eta autz pusca bat baño? Atzo etorri cinian mundura, eta biar juangozara mundutic. Atzo etzinian ecer, eta bijar simaur ustel izango zara; eta dempora apur pusca au iragoteco, prestadu deutzubezan alsi, chucherija, eta autztrapu zatar batzut gaitic ereguico zara bestien gañera? Ez, ez, Christinaubac ez. Ifini gaitezan Jaungoicuaren aurrian, icusi daigun bere anditasun neurri baguia; jatzi gaitezan guero gueure chiquitasunera, eta ezagutuco dogu ozta ozta gariala ar, inurri, edo elchochu bat. Ezauera onegaz beeratuco gara, gueure burubac gustijen asquenengotzat euqui artian; euquico dogu vijotzeco humiltasun benetacua, jarraituco deutzagu araco Jaungoicuaren Semiari, cein izanic ceruco erregue humildu zan erijotzaraño, eta curutzeco erijotzaraño, eta Jaungoico andijac, norein ain gogoco dan humiltasuna, emongo deuzcu ceruban humilai emoten deutzen gracijagaz irabacirico coroia. Amen.

XVII-garren Verbaldiko erasoguinzatik: "Penitentziaco sacramentubaren ganian."

Dirautza Confesoriac, eguin dozun ezquero examinia confesadu eguizuz gogo, edo memorijara ecarri dozuzan pecatubac. Itandu beguit berorrec; eranzuten dau. Asten da itanduten, eta elduric maldicinoe, birao, verba loi, ordiquerija, edo beste ecanduren bat daucan pecatubetara; itanduten deutza: bota deutzezu ceure seme, edo alabai maldicinoe, edo biraoric? Bai Jauna, eranzuten dau. Eta cembat bidar? Sarri Jauna. Esan beguijo confesinoe ori eztala asco, esan daguijala cembat izan dirian bota dituzan birao, edo maldicinoiac. Alperric eguingo dau aleguina Confesoriac jaquiteco cembat izan dirian, edo cembat bidar. Gueijen gueijen eranzungo dabena da; intencinoe donga baga izan dira. Cer dauca icusi batae bestiagaz? Ezaizu cembat izan dirian maldicinoiac, eta guero icusico dogu intencinoiagaz, edo vijotzetic izan dirian, ala ez. Beste batzuc erantzun oi dabe, izango cirian oguei, edo ogueta amar. Esaten badeutza, eztala ori conciencija examinetia, eranzuten dabe, ecin bada nic gueijago esan nei. Beste batzuc bein esan badaije, oguei bidar eguin dabeela pecatu bat, gustija da oguei. Oguei

juramentubac, oguei maldicinoiac, oguei gorrotuac, oguei verba loijac. Confesinoe modu oneec pelleburutsubac dira, eta bildur izan leiteque curetatic gueijenac, gustijac ez esaterren, chaarrac diriala, conciencijaco examinien faltaz; bada au eguin baga gurata gura ez, gueratu biar dabe pecatu ascoc confesadu baga. Eguin arren Confesoriac aleguina bere itauniacaz, pecatu gustijac arguitara aterateco, ecin icusi leiquiana leguez cer daguan an barruban, biac ibili biar dabee ichumustuban; confesoriac eztacuzalaco, eta icusi bere ecin leiquialaco cer daguan conciencijaren barruban; confesetan danac eztabelaco ondo aratu bere conciencija. Orregaitic, bada, neure enzulac, nai bazara neque guichijagogaz, eta ondo confesadu, artu eguizube demporia, eta aleguin gustijagaz aratu eguizubez ceuben conciencijaco baster gustijac. Au eguiten badozube, eztozube euquico confesetara zuazanian aurquitu oi dozuben arazuric. Confesoriac lagunduco deutzube bere itauniacaz arguitan ifinten ceuben conciencija, gustiz nastaduric badago bere quenduco dozube ceuben ganetic macurturic zauquezan pecatuben carga pisutsuba, vicico zare mundu onetan poz andijan, eta artuco dozube bestian penintencija benetacua eguiten dabeenentzat gorderic daguan glorija. Amen.

XXXVIII-garren Verbalditik: "Ordiqueriaren ganian."

Baña badanzut zer eranzungo deuztasun. Jauna, esango deuztazu. Eguija da ni tabernara juan oi nazana, baña neure vicijan bere ez naz juan ara ordituteco ustiagaz. Sinistuten deutzut eguija dinozula; baña ecin ucatu cinaiquet sarri eta sarri jazo jatzula, taberna, edo beste ardao edaten batuten zarian lecuban jazo jatzula zuc uste izan eztozuna, eta damutu izan jatzula an aurquitutia.

Obeto ezagutu daizun ce pelleburuz betia dan olaco lecubetan egotia: contu eguizu topetan zaitudazala tabernara zuazala. Itanduco baneutzu, nora zuazan? Bertatic eranzungo ceuzquet: Jauna, gaur jaijeguna da, aste gustijan egonaz biarrian, eta alan nua tabernara quartiluchu bat ezarri, verbaldi bat eguin lagun, eta adisquidiacaz, eta gaberaco echera. Orra zure gogua, ona eta arrazoezcua. Sarcen zara tabernan, ateraten dozu quartilu bat, topetan dozu adisquide bat, emoten deutzazu ceure escutic trago bat. Bestiac, zu baño guichijago ez izaterren, ateraten dau beste quartilu bat, emoten deutzu trago bat bere escutic. Zuc icusiric bestiac eguin dabena eztozu guichijago izan gura, eta ateraten dozu beste bat, eta emoten deutzazu trago bat. Trago bat dua, trago bat dator: quartilu bat dua, quartilu bat dator. Onetan batuten dira beste adisquide batzuc, eta dempora emoterren asten zara jocuan. Berotuten zara joco, eta ardauagaz; ardaua dua, eta ardaua dator; jocua dua, eta jocua dator. Eztaquizu ez cer edaten dozun, ez ce ordu dan. Urteten dozu tabernatic gaberdijan (goxaldian ezpalitz).

Artuten dozu echeraco bidia estropezuca, oñac loca, buruba arin, bidiac cabidu ecin zaituzala. Elduten zara echera, eta orra infernuba. Emastiac verbachu bat badagui, gustija da diadarra, demoninua, diabruba, verba astuna, eta aguiraquia. Bijaramonian barriz? Buruba astun, gorputza nagui, eta biarreraco alper. Orra cetan gueratu dan quartiluchu bat edan, eta echera demporaz juateco gogua. Eldu ezpacina tabernara, baque obian egongo cinian echian, eta demporaz jaguico cinian biarrera.

XLIV-garren Verbalditik: "Murmuracinoiaren ganian."

Gustijac gaitic dauque cer esan, eztago seguru euren mijn infernucotic, esconduric, ez libreric, Abaderic, ez Fraileric, doncellaric, ez Monjaric, Obisporic, ez Aita Santuric, andiric, ez chiquiric. Eguiten dirian obraric oneenac gaitic dauque cer esan. Badacuze norbait astegun gustijetan meza enzuten, dinue, oba leuquiala, echeco arduria cuqui. Errecetan badau, simple bat dala. Limosna emoten badau, arroquerija, edo sobervijaz, eta ikusi daijen emoten dabela. Taberna, joco, eta beste ocasinoe charretatic alderatu, edo apartetan bada, cequen bat dala, ez gastetarren eguiten dabela; jolas, erromerija, danza eta beste zoraquerijetara ezpadua, chochaquerijetan dabilela; isilic badago motz, eta motela dala; verba eguiten badau barretzuba dala; eta icusico balebe norbait mirariric andijenac eguiten, esango leuquee sorguina dala, familiarijac, edo demoninuac daucazala. Oneec Phariseuac leezcuac dira. Guizon galdu oneec egonic eurac pecatuz beteric, Jesu Christo gure Jaunac eguiten cituzan eguinza, edo obraric andi, santu, eta miragarrijenetan aurquituten eveen cer esan. Bildur izan leitequez onelacuac, Phariseuai jarraituten deutzena leguez murmuracinoian, jarraituco deutzeela euren amai, edo erijotza zori galducuan. Bildur izatecua da mijn luce, eta char oneec beti dagozala pecatu mortalian.

Murmuracinoia sarri eta sarri asi oi da alabanciagaz. Urlija, esaten da, ce guizon ona dan. Eztozu ori tabernan, jocuan, ez edanic icusico: guizon cinzua, prestuba, eta biarguina; eztago bera lezcoric adisquide bati mesede bat eguiteco: ezteutzu orrec egunic ichico meza entzun baga, ezta luzaro egongo confesadu, eta comulgadu baga. Eneuque nai bera baño adisquide oberic. Baña... O baña madaricatuba. Baña infernucua! Onetanche ezagututen da cetaraco dan alabanza ori. Ezta bestetaraco, ezpada sinistu deijuen bere contra esatera doijan gustija eguija dala. Eguinic alabañza au uste dabe seguru dagozala, eta alan abijetan dira bere contra murmuretan. Anche ateraten dabe daquijen, eta eztaquijen gustija. Ecer icusi badeutze honraco gaucia izan, eta bestec jaquin ez arren ainche urteten dau arguitara; ecer entzun badabe, ainche zabalduten dabe. Eztau onelaco batec ichico beragaitic eguiten daben sospecha chiquijenic bere. Ecin aurquitu badau

beste moduric murmuretaco, artuco deutza escuba Jaungoicuari, eta sartuco da gizonaren vijotzeco basterric escutubenian, eta billatu naico dau ainche bere esan, eta eguite, edo obretan eztacuzan charquerija, euquiteco cegaitic deungaro esan, eta murmuradu; eta esango dau, eguin, eta esaten daben gustija ona dala, baño intencinoe oquerragaz eguiten dabela gustija.

Baña ez oida emen gueratuten alabanzacaz asi zan murmuracinoia. Obeto eta obeto sinistu daijen eguija dala esan dabena, esaten oi da asquenian: ezteuzt niri inos gachic eguin, eztaucat nic ecer beragaz, izan bedi nigaitic nai daben lezcua, ez juat niri orretan ecer; baña ecin nic ichi neique eguija esan baga. Eztaquit certaraco dirian ainbeste confesinoe, ainbeste comuninoe, ainbeste errezu: oba leuque bere echeco arduria euqui, daucazan tratu modubac ichi, eta puscabat humilago izan, nai daben gustijagaz urteteco empeñubac artu baga. Santuba, Santuba: neu bere santu izango naz, gura dodan gustija eguiten ichiten badeuste. Eztot nic olaco santidaderic gura. Orra cetan gueratu dan lenengoco alabanza gustija. Badaquizube cer deriztan eguiten dozubela modu onetaco murmuracinoiagaz? Palanca bategaz eguin oi dana. Zulo bat luurrean eguin nai badozube arcen dozube palanca bat, eta ereguiten dozube gora. Baña cetaraco? Ez an goijan ichiteco, ezpada luurrian sarceco; eta cenbat eta barrurago sartu nai dozuben, ainbat eta gorago ereguiten dozube, modu onetan indar andijaguagaz sarceco. Auxe berau eguiten dozube bada alabanciagaz asirico murmuracinoiagaz. Lenengo eregui gora alabanciagaz al daizuben gustija, eta guero sartu murmuracinoiagaz luurrian, eta cenbat eta indar andijaguagaz murmuradu nai dozuben, ainbat eta gorago ereguiten dozube alabanciagaz.

* * *

Nire esanetic ezta olaco gachic etorrico, esango dozu, bada bati bacarric baño ezteutzat esan, eta gustiz estu aguindu neutzan ez eguijola inori esan. Ce zoraquerija: Ecin ceuc isilic euqui dozu, eta nai dozu bestiac isilic euqui daguijan? Zugaz jazo dana, aregaz bere jazoco da. Zuri esan eutzunac aguindu eutzun ez inori esateco, eta alanbere esan deutzazu bestiari. Beste onenbeste jazoco da bestiagaz bere; esango deutza beste bati, bestiac bestiari, eta guichijago uste danian urtengo dau gustijen aurrera, eta jazoco da eurijagaz jazoten dana. Isil isilic arcen dau telliac euri tanguia, isil isilic emoten deutza onec urrenguari, esta alainche dua puntan daguan tellaraño; eta orra nun gichijago usten danian jausten dan calien erdijan, ots andijagaz gustijac danzubela, eta dacuzela. Alainche zuc isilian jaquin cenduban proximuaren gach, edo dongaro eguina; isilian esan ceuntzan ceure adisquidiari; bada arec isilian esango deutza beste bati, eta guichijago

uste dozunian, urtengo dau gustijen aurrera, eta gustijac jaquingo dabe. Asquenengo achaquija izan oi da: eneucan nic intencinoe dongaric, eneutzan gachic gura. Bada cegaitic dongaro esaten cenduban? Zan venturaz asco gura ceuntzalaco? Edo asco ametan dozulaco? Ezdaquit naico ceunquian bestec onelaco amodijo, edo on-guraric euqui deizun. Baña nai vorondate ona euqui deijozula, nai charra, murmuracinoia gauza nagusi, edo gravian bada, pecatu mortala eguingo dozu.

XXXV-garren Verbalditik: "Gurasuac euren umiacganaco dauquezan biar edo obligacinoien ganian"

Gastia da oraindio zure umia eciteco? Ezta bada gastia iracusteco Adanen pecatubaren seme dana; adi erasoteco bere vijotzeco gorroto eta aserria; begui oquerracaz beguiratuteco beriagaz urten ecin dabenian, escubetan daucana jaurtiteco, luurren contra osticoca eguiteco; escuba ceure contra ereguiteco, eta beste milla modutan bere sobervija, eta aserria iracusteco. Ichi eguijozu nai daben gustijagaz urteten, ichi eguijozu ecanduchu chiqui ori indarra artuten, icusico dozu dempora guichi barru, celan ecin ecico dozun. Arbolachu bat jaijo barri dan artian, erraz da sustrai eta gusti ateraten, baña bein erruac zabalduten badituz gustiz gach izango dozu sustraijac ateratia. Auxe berau jazoten da zuben semiacaz bere. Ecandu citala euren bijotzeco luurrian jaijo barri danian, erraz da luur bigun, eta samur atatic sustrai ta gusti ateraten, baña ichi eguijozu puscat luurra gogortu artian, erruac zabaldu artian, eta ecandu guestua sendatu artian; icusico dozu celan ecin ateraco dozun sustrairic gueratu baga, ceinec gox, edo berandu buruba ateraco daben. Alperric aguiraca eguingo deutzazu, alperric jo eta azotaduco dozu, evaguico dozu venturaz campora urten nai daben ecanduba, baña ainche vijotz barruban gueratuco de sustraija, ceinec gox, edo berandu urtengo daben campora araco zure bildur baga daguanian. Orregaitic, gurasuac, zagoze contu andi bategaz beguira ceuben umechu gastien ecandubai, eta buruba atera orduco ebagui eguizu; ez inos ichi euren temiagaz urteten; eci eguizuz euren oquerrune gustijac, indarric artu eztaijen; onegaz acico dituzuz eurac baga.

Naikoa izango da ta bukatzera noa.

Gure idazle zar ospetsuen artean batere bildurrik gabe ipiñi dezakegu Aita Artarloa, ezta lotsatuko onentxoen alboan. Goyeneko armalletan ezpada ere, nik beintzat armalla zabal eta agiri baten, bere liburu ederra eskuetan duela, jarriko nuke.

Gabon, jaunak eta andreak.

AITA P. ARANGUREN
Prantziskotarra

«Leturia-ren Egunkari Ezkutua»

Aspaldi ontan erabilli izan ditut esku tartean bi euskal liburu, arras diferenteak. Bata bestearen aurkakoak direla ere esango nuke. Dastatzailleari ao-gozo guziz ezberdiña uzten diotenak bai beintzat. Bata da *"Kattalinen Gogoetak"*, Baionan 1955 gn. urtean Narbaitz jaunak ager-arazia. Liburu zoragarri onen edizio berezi bat gipuzkeraz egiten ari naiz, eta ala urbildik ezagutu al izan dut. Iñon ez bezala adirazten da liburu ontan familiako bizitzaren ederra, kristau fedeaz argitua ta gidatua denean. Bestea, salatuko al dut? Txillardegiren *"Leturia-ren Egunkari ezkutua"*. Lengoan biaje bat egin bear izan nuen. Ba-nekian aldez aurretik estazio batean itxaron-aldi luzea izango nuela, eta nolabait denpora pasatzeagatik liburu ori zorroan sartu eta abiatu nintzan. Bai gogoz irentsi ta zurrupatu ere! Arriturik gelditu nintzan oso! Arrazoi du Mitxelena jaunak, itzaurrean dionaz, alegia: "eztugula sekula Leturia-rena bezalako ibilladirik egin gogo-bideetan barrena". Analisi psikologikoan batez ere barne-barnera daki zulatzen eta gogo-arazoak eta kezkak tajuz adierazten. Ba-degu bistan idazle garai bat, euskal alorra agitz joritu dezakena.

* * *

Leturia gaixoak egunkari bat idatzi oi du eta bertan utzi digu tinkatua bere bizitzaren ritmua. Egunkari ortan azaltzen zaizkigu bere ustekizunak, kezkak, ametsak, etsipenak. Goizaldean zoramenez ta ametsez beterikako bizia, arratsean zorigaiztoan ta ondamendian bukatzeko. Existenzialisten eskolak moda ori jarri digu: giza-bizitzaren tajugabea azaltzea. Ez munduari ta ez gizonari ez omen zaio nondik-norakorik ikusten. Aurretik lillura gezurtia ta engañagarria, eta gero, lilluratik esnatutakoan, egia gordin eta ikaragarriakin topo egin bearra, eta ortik etsipena. Munduak egozten gaitu lur zabalera, zertarako ta zergatik eztakigula. Lilluraren bidez begiak itxi egiten

dizkigu, eta ala, zozo batzuk bezala eta itsu itsuan, ark nai duen tokira eramaten gaitu. Zertarako, ordea? Goiz edo berandu, lilluraren *argi-txakurra* itzal dediñean, etsipenean jausteko.

Jaio dan guztiak il-bearra duela ba-daki. Jaio, eriotzaren lezezuloan erortzeko! Giza-gogoak bizia amets, mugarik eta bazterrik ezluken bizia nai. Betierea, beti irautea, bukaera gabeko bizia irrikitu gizonak, eta illobiko zulora sartu bear! Au patu zorigaiztokoa! Bestaldetik, ulermenak bear ainbat argi ez ematen. Bizitzaren eroa, tajugabea, monstrokeria...

Ba ote du tesis garbirik eleberri onek? Ez nuke esango. Leturia ori erdi-ero bezala azaltzen zaigu. Iñoiz ispillura begiratzen du eta arriturik gelditzen da bere begiak ikustean: ero baten begiak, alegia. Eta zerbait burutik egiña dagoela bistan da. Eta orrelako baten esanak eta gogoetak aintzat artu al ditezke? Leturia onek franko gauza jartzen ditu bere egunkari ortan, gaur au ta biar ura, ari jakin batekin josirik eztatozenak. Baiña tesis ideologiko agiri bat ez baldin badu eleberri onek, impresio bat bai uzten duela, ao-gozo berezi bat, ta ondo garratza, samiña, mingotxa. Alako illuna, edo erantzunik eztun galdera bat gelditzen da aidean zintzilika... Bizitza ez ote dan xede gabeko zerbait, engañu bat, burla bat... Biotzean azkengabeko yoranak, iraungi eziñezko egarriak, betiereko bizi-naia, eta gero... utsa, frakasua... ta eriotza. Illuna, pesimismu beltza dario Leturia gaixoaren historiari.

Jakiña, liburu oni, txanpon bati bezala, bi aurpegi aurki dakiozke. Bata illuna, bestea arraia. Izan ere, existenzialista ateoek zergatik jotzen dute giza-bizitza tajugabekotzat? Bizitza ori bear diren begiekin ikusten eztakitelako. Bizi onetatik lekora beste bizi bat siñesten ezdutelako. Leturiak duen itzali eziñezko egarri ori, absolutuaren bear ori, ez al da probarik ederrena eriotzaz bestaldekoak ba-direla egiztatzeko? Alde ontatik begiratuta, Apologetikarik ederrena liteke liburu au.

* * *

Baiña konta dezagun onezkero eleberriaren egitura edo *trama*. Aurrenik, bizitzaren Udalena: Leturia neska batekin zoratzen da. Berberak aitortzen duanez, Jainko biurtu zun neska ori. Onengan asetu nai luke bere zorion-ametsa. Nola edo zergatik maitemindu zan? Galdekizun alferra, zeren amodioa itsua eta zoroa baita. Ezkontzen dira, bada, eta zoraldiak iraun zuen bitartean (au da Udako garaia) etzun tutik idatzi bere egunkarian. Baiña orra aguro Udazkena; emakume ark (eta ez beste edozeiñek ere) eztu bere zorion-egarria asetzen ahal. Orain konturatzen da hipnotizatuta bezala joan zala ezkontzara, beraz autatze okerra egin zuela. Gizonak buru otzaz

eta ez sentipen itsuaz jokatu bear duela ta, Paris-era abiatzen da, emaztea bere kasa utzirik. Eta orra Negua sartu: lenbiziko autatzea okerra izan bada (biotz itsuaz egindakoa), askoz okerragoa bigarrena, iduriz buru soillaz egin dana. Izan ere Paris-era joate orrekin emazte gaixoa atsekabez il-arazi besterik eztu egin, eta ahaide ta ingurukoen gorrotoa burugaiñera datorkio il-arazleari. Azkenik, amildegi baten arruan arkitzen dute illik Leturia doakabea...

Akabera ori dute aren kezka, yoran eta amets guztiak. Eta bitartean mundua len bezala irriz, lilluragarri... Atzetik etorri ditezenak eztute Leturia-gandik ezertxo ere ikasiko. Berdin-berdin lillura eta engañu berean eroriko. Ala izan da munduaren asieratik eta ala izango arik eta mundua bukatu arte...

Gizona, landare-gisa dago munduan jarria. Gizonak eztu ezer autatzen, bera izan oi da autatua. Lurra, ta giroa, ta otz-bero egokia ematen zaizkio, eta esparru orren barruan erroak egin eta bizi bear. Autatu nai izan ezkero, bere errukarria...!

* * *

Leturiak maiz aitortzen du bere zorion-egarria, Jainko-egarria dela, absolutuaz baizik eztela asetzen, infinitua duela amets. Baiña bestenaz Jainko ori etzaigu argiro agiri. Ulermenak ain du indar gutxi! Ezin diteke ezer ziurpetu. Egiak eta Logikak eztu gugan agintzen... Indian jaiotzen bazera, budista izan bear; Arabian, berriz, mahomatarra, eta Irlandan katoliko nai-ta-naiez. Nun ta noiz, or da kontu guztia. (Alde bat dago, ordea, Leturiak ikusten eztuena. Budismua Indiako landarea dela edonork daki; Islamismua, Arabiakoa dela ere bai. Baiña Irlandak jatorriz eztu deus ikustekorik kristautasun edo katolikotasunakin. Kondaira zerbait agurtu duenak badaki kristau azia nongotarra dan jatorriz, eta nola, lur-barruti eta giro guztiak urratuaz, mundu zabalera ixuri zan. Gide, Unamuno ta olakoak aipatzen dituan Leturia orrek eztaki nonbait Bergson-ek idatzitako ura: kristautasuna dela *"la religion de la cité ouverte"*. Eta eztu irakurri arraza ta errialde guztietako gizonek oraintxe berton esaten digutena, eta *"Il Mondo attende la Chiesa"* deritzan liburu ortan ikus lezakena.)

Leturia-ren egunkaria irakurri bitartean maiz etorri zait gogora nere Aita San Prantziskoren eriotza. Onek kantuz artu baitzuan eriotza. Edo Santa Klara-rena. Orra onen azken itzak: *"Eskerrak, Jauna, egin ninduzulako"*. Bistan dago auen begitan giza-bizitza etzela ain hitsa eta tajugabea. Len aipatutako Kattalin orrentzat ere ez. noski. Zergatik alde ori? Maitasun-gosea eta zorion-egarria non kokatu ba-zutelako ez ote?

Benetan arrigarri ta tamalgarri da gure aro onek duen lera eta jokera ulermenaren indarra zapaltzeko eta gutxiesteko. Argiaren bildur dela esango nuke. De Lubac jaunak liburu berri batean dionez, Jainkoa ba-dela probatzeko argumentuak indarra izan ba-dute orain len bezalaxe. Gertatzen dena da gaurko munduak Jainkoaren gustoa edo zaletasuna galdu egin duela, eta ala, gaurko kultura gizadiaren errege bidetik kanpo dabilkigula... Errege-bide ortara berriz itzul dediñean, len bezala gotor eta tente agertuko zaizkio betiko argumentu oiek. A. Oromí ere bere azken lan batean orobatsu mintzo da, alegia, Jainkoa traba bat zaigu, zoztor bat, eta orregatik eztago guretzat Jainkoaren existenzia proba lezaken argumenturik. (Ikus Oromí, *Diálogos de las agonías intelectuales.)*

Freud-ek irakasten zuan atzo sexual-irritsa galerazita eukitzetik eztakit nik zer eta nolako gaitz, kalte ta ondore txarrak eldu litezkean. Gaur, bere dizipulu dan Frankl jaunak besterik dio, alegia: gure egunotan ain sarri gertatzen diran neurosisko eritasun oiek, irutatik bat beintzat, gizonak Jainkoaganako ta beste mundurako duen joera ta yorana itotzetik eldu dirala... Eta gure kideko errukarriak Agnostizismuaz bazka ditezen artean, ezta batere arritzeko Leturia bezalako eroak ugaritzen badira. Nai ezta ere, Kristoren erasia datorkit gogora: *Ex fructibus eorum cognoscetis eos...*

Prantziskotarren eskola filosofikoak, San Agustiñen oiñatzei jarraituaz, beti irakatsi du amodioa dela gizonaren doairik aundiena, ezagutze utsa baiño bikaiñagoa. Baiña orrek eztu zer-ikusirik gure aroko Agnostizismuarekin. Eta gaiñera, bego zein bere tokian: argi egiteko adimena, maitatzeko naimena. Beste erlijioetan sentimendu erlijiosoa bere kasa ibilli izan bada adimenaren argia gidaritzat artu gabe, kristau erlijioan ezta ala. Eta ain zuzen ortan datza kristau erlijioaren sendotasun gotorra: adimenaren eta sentipenaren artean alkartasun autsi-eziña lortu dela. Sentipen erlijiosoa eztoa itsuan, baizikan adimenaren argia gidari duela. Autsi eziñezko alkartasun orrek ematen dio bere ermotasuna, eta batasun ori desegitea eztugu bein ere onartuko.

* * *

Existenzialistek kezka, urduritasuna ta ezin-egona goraipatzen digute, aurrerapenaren eragille bezala. Ortan ez nuke esango arrazoi piska bat ezdutenik. Idiaren pake zozoak aurrerapen gutxi. Baiña ontan ere norberaren izakerak eta azierak asko esan nai du. Gizon batzuen barneko paisajea bare-bare agiri zaigu, eta alere gora-bidean diranik ezin esan diteke. Bestelakoak ere izaten dira: arras naasiak, eta barneko eztenak obeak izateko franko mesede egiten dienak, as-

kotan berek uste ez arren. Eta Mistika alorrean garbi ikusten danez, illunaldiak, atsekabezko garaiak, barne-oiñaze-orduak dira beti eragikorrenak. Lozorroan datzanak krisis bat bear, akuillu bat, esnatzeko eta aurrera abiatzeko. Kristok berak ez al zigun gurutzea utzi, gorabide bezala?

* * *

Ezkontzen ez geranok ez gera nor ezkonduen zorionaz ala zoritxarraz ezer esateko. Baiña ontan ere Leturia gaixoaren historioa eztut uste gauzen egiari dagokionik, geienetan edo maizenik gertatzen danari bagagozkio. Naiko urbildik ezagutzen ditugu ezkondu asko, bata bestearen amodioan irme irauten dutenak, eta gora-bidean bata bestearen laguntzaz baliatzen diranak. Bearbada, lendabiziko hipnosis ura suntsitu zan aspaldi, baiña aren lekuan beste zerbait sartu oi da, bi animen arteko adiskidetasun sendoa, bi bizitzen alkartasuna, sukalde bat sortu eta seme-alaben azitze-lanak bion artean osatzeko. Eta nork eztu ikusten hipnosis ori berori eztala xede gabe? Laguntzaille aundi bat dala izadiaren eskuetan bere xedeak guri eginarazteko? Nik esango nuke gaiñera, ezkontzan gertatzen dan ori, gutxi gorabera beste edozein bizibide eta giza-lanetan ere gertatzen dela. Ez al da gizonaren lege jakin bat urrutiko gauzak lilluraren bidez ikustea? *Urrutiko intxaurrak amabi, bertara joan eta bi.* Hipnosisa utseratu dediñean, biziari nondik eldu eztakianaren errukarria! Eta ain zuzen, ori etzuen jakin gure Leturiak.

Baiña zorionez geienek jakiten dute orrenbeste. Orregatik diot Leturiak adierazten digun giza-bizitzaren beltza eztagokiola gauzen egiari. Ori bai, egia da gizonak ba-duela akabera gabeko bizi-naia, eta iltzea zor duela: orrek zerbait illuntzen gogoeta piska bat egiten duenaren bizitza; baiña baita ere ba-dakigu gure egarri ori asea izango dela eriotzaz bestaldean. Eta ala ezpalitz, nola eta zergatik dakargu egarri ori? Piztiek eztute olakorik. Aiek bizi diranik ere eztakite. Txakurrak ondo jan eta lo egin ondoren, eztu kezkarik. Gizona, ordea, ezta gisa orretara tajutua.

Gosea ez al da agiri bat, janariak nunbait ba-direla jakiteko? Ta gure biotzaren bizi-nai ezin ase orrek ez ote du ezer adieraziko? *Desiderium naturae non potest esse frustra,* zioten aspaldiko filosofoek.

Labur, ba-dakigu Negu orren ostean ba-dela Udalen berria, bein ere zimeltzerik eta igartzerik izango eztuen Udalena.

* * *

Eta zorionak berriz ere Txillardegi jaunari, euskal literaturan egin digun sarrera ospetsuagatik. Ondokoak asikiñen arabera izango badira, ba-du ama euskerak zergatik poztu.

L. Villasante, O. F. M.

BAYONA'KO BATZARRA

Printze Luis L. Bonaparte'ri zorrak ordaintzen

Joan dan Urria'ren amabosta ta amaseia, orain eun urteko egun batzuen gogoangarri izan ditu Bayona'ko erriak.

Euskaltzaleen Batzar ospetsu bat izan zan orduan Bayona'n. Euskaltzaleen beste Batzar sonatu bat izan degu aurten. Printze Luis Luziano Bonaparte izan zan Batzar aren eratzalle. Printze berari zor ura ordaintzeko izan degu, berriz, oraingo Batzar onen eratzea.

Orduan bizi zan euskaltzale oro, an zan Batzar artan. Gaurko euskaltzale oro ere, biotzez bederenik, an izan da aurten Bayona'n. Euskal-erriaren lau aldeetatik orduan eta orain. Euskerarenganako maite berean irazekirik guztiok, ordukoak eta orainguok.

Musée Basque'n izan ditugu Batzarrak. Ez bait-zezaketen leku ederragorik izan. Ainbeste ta ainbeste euskal-puska, ain txukunki pillaturik arkitzen diran areto apain aien erdian. Gizategi zabal patxarakoan... Egurrezko soliberi luze sendoa sapaiean...

* * *

Gu eldu giñanerako Batzarra asia zan. Vilallonga'tar Jose Luis Jaun Kuntia ari zan bere lan luze ta ederra irakurtzen. Lendik itz egiña bait-zan Erriaren izenean Bayona'ko Jaun Mera, guztioi ongietorri emanaz Eun-urte-muga ura Bayona'n egitera. Maiburuko, antxe zeuden Jaun Merarekin batean gure Euskaltzaindiko Buru argi Etxaide'tar Ignazio Jauna eta aldameneko, berriz, gure Euskaltzain Dassance Jauna, Ustaritz'eko Mera bera ere.

Vilallonga Jaunaren Itzaldia, Bonaparte'ren bizitza ta lanetaz izan zalarik, lan gaitza eta neurri bete-betekoa izan zan. Onez aurrera

Printze euskaltzaleari buruz ezer jakin nai duanak, itzaldi luze ta zabal artan bait-duke bear duan guzti-guztia...

* * *

Itzaldi aren ondotik, Bonaparte'ren Idazti ta lanen erakusketa izan zan. Itzaldietako Aretoaren sarreran antxe bait-zeuden bitrina ederretan zabal-zabalik, ikuskarri, eunka liburuen sarrerak etab. etab. Bayona'n gordetzen diranetatik, an ziran geienik... Biotz-ukigarri, besteak beste, biotz-ukigarri gaurko euskaltzaleentzat, orain eun urte ain maitekiro Euskerari eskiñitako lan, izardi, txanpon ta amets guzti aiek...

* * *

Ondotik Euskaltzaindiak bere Illoroko Batzarra.

* * *

Apal-ondoan, eguneko lanaren sari bezela, antxe itxaro ginduan lenengo Areto berean —orain Teatro biurturik ezik— aspalditxoan gure begi-belarriak goxatu dituan soñu ta teatro-saiorik txukun eta perekagarrienak. Montzon Jaunaren Teatro-gai sedaz eiotako bitxia; eta Tolosa'ko "Eskolania Gorriti"k ain finki kanta oi duan euskal-programa txoragarria. Ordua ere alakoa zanda, —arratseko bederatziak, zineetarako ordua— jende-sail ederra batu zan areto-zabal-zabalean, euskal-zati ukigarri aien oiartzun goxoa biotzean sentitzera ta txalo beroz saritzera...

* * *

Bigaramona, illaren 16'a, Mitxelena Jaunaren itzaldi batez asi zan; gaia, "Bonaparte ta Euskal-dialektologia"; izan ere gure Printze jakintsua izan bait-genduan izan, Eusko-dialektologiaren benetako sortzalle, bere laguntzalleen laguntasunez, arako "Mapa" sonatu artan bere ikaskizunak finkatu zituan arte...

Eta ontan eta zenbait idaz-bidali irakurtzen eta arakatzen eman zan gañerako goiza.

* * *

Arratsaldean izan genduan Batzar guzietan beteena: beteena itzaldiz, eta beteena iztunez. Iru itzaldi, zein baño zein. Eta aietan bat

Akitz'eko gure Gotzai argi-argiaren esku. Urrezko eraztuna, benetan, gure Batzar guzti aien bukaeratzako Mons. Mathieu Jaunak ipiñi zuana!

Gure Dassance'n gain ziran iztunen aurkezteak. Betiko bisai-gozo, dun gure Euskaltzankide maitagarria.

Pierre Laffite Jauna —beste milla gauzaz gañera Euskaltzaina bera ere— izan zan lenengo Iztun. Gaya, bere neurri-neurrikoa "Euskera ta Linguistak". Azkar eta txorrotx, ez bait-degu entzun iñoiz, arek bere gaiari buruz emandako irizpide bizia bezelakorik. Txorrotxa, bañan, ori bai, beti ere ironi-irriño bat ezpain-artean, euskerari buruzko bakoitza azaltzean eta irizpidetzean... Ondotxo prestatua egon gure lagun prestua ortarako, beste asko gauzetarako ezik. Mons. Mathieu'ri galde bertzela.

Akitz'eko Apezpiku Jaun au izan genduan urrengo iztun. Bat ere aunditasunik ez. Bañan bai berak ere, gure ango anaiak ezpañetan ain nabarmen duten irriño pullita... Parrez-parrez Euskeraren txoko ixkutuak aipatu zizkigun, berak beste iñork obeki aipa ez ditzazkean eran. Ez zaizkigu berealakoan burutik ahantziko arek esandakoak; ez eta gure begi-zolatik galduko ere alako aren ikuskari gogoangarria: masail gorri, ille txuri-txuri, begiratu maltxur, gizon ez aundi, gotzai-gerriko gorri zabala esklabinadun sotana beltxean... eszenario-alde batean, antxe bera bakarrik, parrez-parrez gure txaloak ixildunaiez...

Irugarren iztun, gure Arrue'tar Antonio. Euskera ederrean, berak oituak gaduzkan bezela. Euskera ederrean eta bero. Abogadoki. Printze ohoragarriz entzunda geneduzkanak, ederki biribildu zizkigun berak bere itzaldi labur eta ondo mamituan. Eta zer esanik ez, azken-itzak oso txalogarri izan zitzaizkigula, besteak beste, gure Printze Jaunarentzat betiko Errege-aulki bat guztion biotzean eskatu zigunean: Errege-Tronuya Printze euskaltzalearentzat, euskaltzale guztion biotzean...

Eta ola amaitu ziran, beti ta beti gogoan izango ditugun Batzar eder aiek.

M. L.



GERTATUA

ORI ALDA EUSKERA?

Urruzola tar E.

Atzerrian gabiltzan euskaldunoi zenbait gertaera parregarri gertatzen oi zaizkigu, ene irakurle, gure euskera maitagarria dala-ta. Onoko idazle motel eta moldakaitz oni gertaturiko bat, azaldu nai nizuke lerro oetan. Goazen, bada, arira.

Berpizkunde, Pazko eguna da.

Kristau errietan egun alaienetako bat. Bai, (ala bear ta) arkitzen geraden Valenzi'ko alderdi oetan ere, naiz eta gure euskal errietan añako aunditasunez eta edertasunez ospatu ez izan; alabañan, bere maillean ta bere oiturekin ospatu.

Goizetik irten oi dira metro zabaleko "paelleraz" (itzez-itz zartagia esan nai du, kirtenik gabekoa) ta erriz kanpoko alkerietan zabaltzen dira. "Alkeri" oiek basetxeak dira, ez gurean bezelako basetxe zabalak, ez gure txabol eta borden antzekoak ere, iruretatik kutsu pixka bat naspillean ba-dute ere; antzekoak ez beintzat. Egiz, zelaiean ta urbideak antolatu izan diran bazterretan, bere uraz lurrak ondu arazteko, arkitzen diran txabolak dituzu; etxe bereak, berezituaz mendietan, ur eza dagozenetakoak, "masia" izena ematen diotelarik.

Zartagietan zerbait ipiñi bear ta arroza bear-bearrezkoa, ta onekin, egazti zatiak. Ez, bañan, edozein egazti; ollasko, ollo ta abar, ez. Egun ortan ateak bear dute izan. Gero ogi-gozoa; guk ezagutzen degun errege-ogi antzekoa, arrautz eta gozokiz egiñikakoa. Oiek dira janari bereziak. Bazkal ostean abestiak, flamenkoari bereziki bide egiñaz; dantzak, berriz, erdizka andaluzikoak eta lotua...

Bizi izaten geran uria aundixamarra dezu; ortxe-ortxe ogei bat mila biztanle. Itxasotik iru bat kilometrora, ta naranja toki berezia

izanik, kai ederra antolatua ba-dauka igali au erbesteratzeko, ta negu asieratik udara asiera arte ia egunero itxasontzi bat edo beste izango dezu, naiz ingles, aleman, olandar eta abar.

Mendiak urruti ba-daude, itxasaldera jo bear udaberriarekin lenengo beroak datozenian. Txabol oek orretarako egiñak daude; udarako eguzki beroak lurra gal-gal egun ta egunetako utzi duanerako, alegia. Neguan utsik, beroakin aruntz dijoazkigute lasai bizi izatera, inguruan jarri dituzten piku zugaitzen kerizpean, guretan intxaurra edo lizardiaren bezela.

Pazkotako lenengo beroak baldin ba-datoz, euskaldunok betidanik bai gera mendizale ta zabalera zale, irten gera gure sendiekin, itxasertzean egun on bat igarotzeko ustean.

Ostatua degu bazkaitarako. Bazkal-ondoan ibillalditxo bat egin ondoren, itzuli gera arratsaldekoa egingo ote degun. Jendetza ikaragarria, ta exerleku ta tokirik ez. Zugaitz abarren artean izkutatuta dauden alkerietatik ba-dator "radio" ta abestien otsa. Bañan batezere gure aldamenean urruti gabe dagon batetik ez datoz txantxetako oiu ta irrintziak. Tarteka, aruntz-onuntz, englandar edo beste arrotz kaxkatxurien bat ba-dakuskegu.

—Goazen, tokiari itxoiñaz, orreraño.

—Bai, goazen —erantzun nere lagun dan Imanol'ek.

Atzetik ditugu gure emazte ta koxkor jendea. Bertaratu geradenian ta ikusi dantza lotuan dabiltzala, atetik kanpo gelditu. Imanol'i bere jaioterrian "alemana" esanagatik ille xurixka dualako, euskeldun jatorra izan ta euskeraz ari gera. Ari gera bada, ari gera ta... alako batean, bizkarrean jo nautelako arpegia itzuli det atzera, ate alderuntz, eta batera onela diotsate.

—¡Míster, míster! ¿Querer bailar?

—¡...!

Ta ia etenunerik gabe, nere arpegia ikustean.

—¿Pe, pe, pe, pe... ro era usted?

Nere bizargillea zan!

Gizajoak izkuntz arrotza entzutean itxasgizon arrotz kirru aietakoak giñala uste.

* * *

Oi bezela, garbitasunerako ta ille apainketarako aldiz-aldiz bizartegira joan bear. Ez egokitzen ordea orain ezagun dezuten mutillarekin, iru mutilletatik besteekin, baizik. Noizpait berarekin egokitu bear, noski, ta alako batean, gertakizun artatik sei edo zazpi illabetera, antxen exeri nintzaion bere exerlekuan.

—Egun on.

—Egun on.

—Nolaz nai dezu?

—Beti bezela; illea motxantza ta bizarrarena ere egin dezakezu... Bizargilleak geyenetan iztun onak izaki ta ni motela, ta an ari zitzaidan eguraldia, orretzaz, ta aretzaz mintzaketan. Ni ixilik. Onela, onela esan zidan arteraño.

—Adizu.

—Zer?

—Gogoan izango dezun egun artan, zurekin mintzaketan ari izandu zan zure lagun ingles ura sarri ikusten det alderdi ontan.

—Bai, noski; ez dezu ikusiko, bada. Uri ontan ari izaten da lanean ta.

—Bai?

—Bai, bañan, ez da ingles, euskalduna baizik.

—Inglesez mintzo izan ziñaten, bada.

—Ez, gizona, ez; euskeraz ari gintzaizun, euskaldunen izkerean...

—Bañan, bai-al-liteke? Ori al da euskera?

—Ori, ta besterik ez. Erantzun nion parrari eutsi ezinda naiko lanez.

—Olakorik!

Ez zuan txintik geiago atera. Ezpaiñak itxi zituan arriz josi izan ba-lizkie bezela. Aldegin nion arteraño goraizien kiskatekoa bakarrik entzun izandu zan...

URRUZOLA'TAR E.

Marc Chagall

Rusiako ertilari judu Marc Chagall-en pintura bat daukat begi aurrean, izenez "Apparition de la famille du peintre", 1940 garren aldean egiña Parisen.

Kuadro ortan pintore berbera dagó, eserita, pintatzen; lanean ari zala-edo, Rusia zuriko Vitebsk-errian utziriko famili osoa ageri zaio, zeru gorri batean. Or ikusten da bizardun judu bat (aita?) eskuan Thora duela, eta ama laztana, eta anai-arrebak, baita ukulluko abere bat ere, denak aidean igeri, aingeru baten ondoan. Taldearen atzetik "Bella" andregaia duzu ezkontza-jantzian, eskuan lore-sorta bat. Denak, Marc, sendia, aingerua, andregaia ta aberea zeru gorrian daude. Kuadro-be-aldean, zerua urdintzen dan lekuan, illargia eta Vitebsk-ko etxe kaxkar batzuek ageri dira.

Tankera berekoak dituzu Marc Chagall-en lan guziak, Fantasiaz ta Olertiaz bete-beteak. Kuadro askotan gai berdiñak erabiltzen ditu, ots, illargia, sorterriko kaleak, abere batzuek (ollarra, arraia, beia, auntza...), ormako ordularia, bioliña...

Bioliña esan dugu. Eta biolin orren jotzallea, zein? A!, batzuetan agure zarpatsu bat duzu etxe-gainean bioliña jo ta ke... Bestetan abereak dira musikalariak. Illargia ere bioliña jotzen ari duzu kuadro batean. ("Le cirque".)

Beste lanetan Marc Chagall bera pintatua ikusten dugu. Eta geienetan Bella maiteakin; emen Bella laztantzen, or Bella-ri zerbait eskeintzen, an Bella ta Marc bat egiñak... Gure pintorearen maitegriña ongi somatzen da. Eta orregatik eta maiz erabilli oi-ditun gaietatik —lizunkeriaren agiriak omen dira-ta— bere ertia lizuntzalea dala diote.

Fantasiaz, Olertiz, Lizuntasunez betea bere ertia. Beste bi *tasun* ere arki dezazkiokegu bere obrari: Alaitasuna eta Tristetasuna. Or-

tarako ikus dezagun Chagall-sendia nola bizi zan Vitebsken, Marc-en aurtzaroan. Rusiako Tzar-garaian juduak larri zebiltzan, gaizki begiratuak, oinperatuak, baztertuak, beti giristinoen gorrotoaren beldur. Chagall-aita pobria zan, sardinzar-biltoki baten langille. Bizimodu estu ta larri arek ukitu zun betiko ertilariaren biotza, eta, nai ta naiez, Tristetasuna azaltzen da gero bere lanetan. Alaitasuna, ordea, bizi itun artaz aztutzeko gogoak sortzen du, ertilaria bere buruaren jabe ikusi-ta. Eta Frantziko uri nagusian, gero ta alaiago ta baikorrago askatasunari kantatzen dio bere baztergabeko irudimenakin ta kolore alai ta bizien bidez. Bañan beti, len esan dan bezela, sorterriko oroi tristeak or edo eman nabaitzen dira kuadroetan.

Duen izen aundia amari zor dio. Emakume apal ta ez-ikasi ura oso ona, kementsua ta sendimendu aundikoa omen zan. Amak lagundu zion mutillari ertigintzan aurreratzeko. Berari esker Marc joan zan San Petersburgo-pintura-ikastol nagusira, ogei urte zitula, 1907 garrenean.

Laister Akademiatik atera-ta Maisu Bastk-enganatu zan. An nabaitu zitun, lenengo aldiz, Sartaldeko erti-aizeak, eta Parisera joateko gogoa sortu zitzaion. 1910 garrenean Parisen dago. "Agur Vitebsk, ene jaioterri ori; geldi adi or, ire sardinzarrekin", esan omen zun Rusiatik ateratzean.

Parisen kubismoa loretan zegon orduan. Marc-ek Sortaldeko ertia zekarren, ots, Bizancio-koa eta, batezere, giristino-ikono edo erlijio-irudi-egilleena. Kubismoaz bereala kutsatu arren ez zun galdu bere nortasuna, eztare Sortaldeko erti-usaia. Areago, kubismoari legorra kendu zion bere barruko olerti-iturriari esker. Gero, kubismo-modatik alderatu egin zan, bere bide bereizi ta bakarretik jarraitzeko.

1915-an Bella-kin ezkontza. 1917-an Rusiako matxinada sorturik Vitebsken dugu berriz gizona, Erti-komisario biurtua. 1922-an kargua utzi ta Parisera. Geroztik Europa, Ameriketa ta mundu guzitik zear dabil erakusketak egiten, gero ta ospetsuago.

Chagall-en lanetan argirik ez itzalik ez da, kolore uts-utsa, eta bizia, baizik. Olioaz ez du beti pintatzen. Neurri aundiko lanak uraz ere (aquarellaz) egiten ditu maiz. Uraren bidez, alajaña, olioaz baño garbiago ta biziagoak gelditzen dira koloreak. Bañan olako neurritan koloreak uraz erabiltzeko trebetasun aundia bear.

Grabado-egille ere bikaña Chagall. Veneciako XXIV Bienalean grabado-sari nagusia eman zioten.

Oraingo erti biurri ta nastuagatik zalantzan dauden ertilari gazteak Marc Chagall eredutzat jo dezateke. "Nai dekan eran, biotzak soilki agindutako eran pinta zak, modari kasorik egin gabe!" esaten ari dala dirudi Rusiako judu orren obra zoragarria.

AYALDE

Inondik ez banu arrazoinik

Egon denak baizik ez daki uda-berrian gauak zein diran goxo Parise irian. Baina irur euskaldun ginan eta gainera Euskal-erriaren ekonomiaz egindako itzaldi batetarik ateratzen ginan: Euskal-erria gaindi genbiltzan amets ta guzti. Bakoitza bere alde, txosten, berri ta iritziak emaiten asi baginan, geroago danak nasteka. Guretarik zaarrena bere biotz on ta onestateagatik ezaguna da Euskal-errian, baina neretzat anbat gaixtoago, erriaren kontuan aoa irikitzen nuan aldi oro "Iñondik ez nuan arrazoinik; gaztea nintzan, erritik urrunbizi nintzan eta, egia esateko, esperentzia gabekoa". Zoritxarrez aitortu bear dut ez naizela ez ilik, ez politika eginik, gainera Euskalerritik urrun jaioa ta bizia naizela. Baditeke begia frantsestu zaidala, baina erria gaizki zebillela, arrotzek zeukatela gobernuarekin erru guzia entzuna nuan. Batzuek ere, amar urte horietan oi duten bezela, sinetserazi nai zidaten euskaldun guziak lege zarzale horietarik omen direla. Irur aste llabur dire olako galdera andieri erantzun emaiteko: beraz, nere testiguei argitasun ixurtzeko, euskaldun askori galdetu edo kofesatu dizkiet falta zaizkidan matiz asko.

Frantzira pasatu zan ingeles bat, alako batean. Itsas-ontzitik jaistean ez aal zuan frantses ille-gorri bat ikusi, eta bereala zuan idatzi etxera, frantses andere guziak ille-gorri zirela. Neri gutxiagorik ez zitzaidan agituko, ainbeste ezagutzen nituan zale, istak eta tiarrak beti jarraitu banitu. Pena andia daukat, baina, naiz bakoitzak esan didan euskaldun guziak bere irizkide dituela, euskaldun geyenak ez-axolik ederrenak agertu zaizkit, erriketa kontuan. Amaika aldiz entzun ditut, han, hortxe eta Euskal-erria gaindi bakarrik nenbilala, jende geyenak alderdi gauzetarik urrun dabiltzala erakusten duten esaerak.

Euskal-erria gaindi, maletak eskuan, errez eta oparo dabila larru

orizko kanpotar jendea: bi urtez zer ugoldea! Ezin uka jende horiek Euskal-erriari egiten diotela kalte. Eibar'en jakin dudanez, erriko langillei sobrazko orduak galerazten diozkate. Ezin uka gainera lurlanaren eboluzinoak askatu langillei lana zor zayela. Euskal-erriak laster ez du danentzat tokirik izango. Zorionez, Frantziak etxegintzan milioi erdi bat langille falta ditu. Frantziak Argelia-n bere seme asko dituan bitartean eta Argelianoen etorrera debekatua dagoano, España-ko langillek sobra izango dute nora joan. Ia Parise-ko Metroan, Sizilianoekin batean, Cacereñoak dire maiz nabari direnak. Ogiaren billaketa ortan zuen aldeko euskaldunek ere Frantzi-ko bidea ar ez balezate, gure erriak bere nortasuna gal-arriskurik ez luke. Euskal-erriaren geroa zer izango dan, zein profetak lesaiguke tronpatu gabe? Bakarrik dakiguna, gazteek egingo dutela. Gazte horiekin ibilli naiz, konturatu ere bai, ikasleak eta kulturazale batzuk kenduz geroz, geyenek ez dutela, lan gogor batetik ateratzean, fotbalaren eta bizikletaren alderdia baizik jarraitzen.

Bizi-moduaren atzapar pisua, Españi guzian, kultura kontuetan ezagun da. Euskal-errian pintoreak dauzkatzutela konturatu naiz, baina publikorik oraindik ez. Erdal-idazleak gutxi dira eta dirudienez beren liburuak ere nekez saltzen. Musikaren aldetik, festivalen bat edo beste izaten da; kantari-koru onak badire. Radio nazionalak ixurtzen duan zartagi-musikak, aldiz, luzaroago aipatzea ez du merezi. Besterik ezean, Euskal-errian azkarrenik eta ederrenik bizi dana erri-musika da. Publiko eder izan lezake, astia, giroa eta bear bada gizartean tarteko klase bat falta ez balitz.

Euskeraren bizi kontuan, errien artean izan oi dan erri-xokokeri eta urgulluarekin, lagun bakoitzak auzoan ikusi du euskera iltzen. Bizkaya-n, Nafarroa-n ere beera dihoakigu euskera. Gipuzkoaren aipamenik oraindik ez baitut entzun, nere aldian erri euskaldunetan euskaldunena dan hortan euskera zertan dagoan esan dezagun: Deba-n, Zumaya-n, Errenderi-n, Ondarrabi-n, Irun-en, Tolosa-n eta Eibar-en, ume geyenak ez dute kalean euskerarik egiten ta, Zumaya-ko andere batek esaten zidanez, etxean bortxaz ere ezin eragin. Neskek gainera erri geyagotan euskera baztertzen dute, ezertarako zerbitzatzen aal ez dalako, itsusi dalakotz, asto dalakotz. Ezkon-berriak ere asiak dire esaten geroan izango diren eskolekin etxean baino obeto ikasiko dutela. Kanpotiarren ugoldea jasaiteko euskera aski azkar izango ote da, bere gazteak toki askotan arbuyatzez azken astinaldi bat emaiten diotela?

Euskeraren idatz-kontuan, alderdi batzuek gure izkuntza zabalkunde ta elburu bezela artu dute, baina alderdikide geyenen eta erri-izkuntzaren salbatzeko elburuak antzu atera dire; kultura-kontuan bultzada on bat eman dute. Estonagarri liteke eguzkipeko erri batean

idazleak ados eta konforme balire: Euskal-errian orobat. Idazle-eztabaida horietan bada nun parre egin, sutu nai ez duanak. Batak besteari eskua bortxatzeko, edozein azerikeri zillegi da. Batak indarra, besteak broma. Bil itzatzu, edozerez edonola, euskeraz idatzi duten zure irizkideak, idazle-izena ipini iezu. Esaiezu oparo idazteko, errez esango dezu gero: "Idazlerik geyenak gure tendentzikoak dire." Ondo dakite hori bilkura txiki bat eratu zuten batzuek, ikusteko gero bizpairur lagunen ordez idazle ta ez-idazle ugolde bat sartzen. Nagusi zirela erakutsi zuten eta bilkura txiki horren buru gelditzeko lanak naasi. Gero ta geyago dire zorionez alderdi ta euskera kontuak bereizten dituztenak; horiei buruz diote besteek beren alderdiek arbuyatuak, txepelak, susmo txarrez beteak edo eroak direla. Euskera anartean presarik gabe batasunera dirudi doala. Ordu dizuet aipatzea Euskal-errian egiten aal diren linguistika-asmaketa ederrak. Huna Bonapartek arkitu ez dituan laur dialektu: Mendiola'ko dialektua, S. Barandiaran'ekoa, Bizkai-ko vascoa ta Gipuzkoa-ko azkuentzea. Marka ona deritzat idaz-euskerarentzat: gaixo dana laster ilgo da, sendo dana biziko. Euskal-kulturaren egiazko guduka ez dago itzetan, funtsean baizik. Bi eskola nagusi ari zaizkigu, garoak euskerari damayon gorotz-usaina galerazi bearrez. Batak, helenista edo latinista, liburu-itzultzale dire; besteak modernista, euskal-autore zaar, oraiko frantses eta alemanetan interesatzen dire. Esaten badizut maisutasunpekatua egozten diola batak besteari, ez zaitu estonatu bear, idazleek, kolegioan neskek bezala, elgar maite baitute. Helenisten artean apaiz eta fraile asko dire, modernisten artean eliza-gizon gazte batzu eta laiko asko: au esanda dakidan guzia dakikezu.

Bere buruaren kritika, eguzki-aldeko errietan oso erabilia da, eta egilearentzat marka gaisto. Arriskua txikiago izango dut eta euskaldunen bi oitura gaixtok aipatzea merezi dute. Grafomania Euskal-errian oso zabaldua dan mania bat dugu. Grafomana izatea gertatzen zait batzuetan, bainan ez-jakinaren aitzakia badaukat: jende adinezkoen artean, ordea, gertatu zait ikustea oitura hori on bezala etsia dala. Ots, ba aal da arrotzei erakusteko gauza ederragorik euskaliburuz betetako liburutegia baino? Danak dauzkagu berrogei ta amar urte horietan euskeraz agertu direnak: Edestia, txardin-arrantza amargarren mendean, Ilias-ena, Urlia-rena, papueratik eta latinetik itzulitakoak, zer liburu lodi, mardulak!: danak irakurri ditugu. Kiloka saltzen bada literatura, guk ere noski pisuzko gauzak dauzkagu. Nolazpait itzulitako liburuak baztertuz, gure euskal-idazleen burutik zer atera da azken urteetan? Amar bat liburu kenduz geroz, txinpart bakanez betetako aize-bolarak, uskeriaren korronteak eroaiten dituanak. Berrogei ta amar urtez euskeraz idatzitakoak erderaz itzul bagenitza, kendurik izkuntzaren lillura, zenbat tellatu gorri, leyo ber-

de, idi-pare garo-gurdiari tiraka, aspaldi Elissanburu-k eta Agirre-k ondo pintatutakoaren zenbat kopia gaisto! Liburutegia horiekin aisa betetzen da, bainan burua... Bigarren mania lenengotik dator. Euskal-liburu guziak erosten dituanak, maizenik danak ederresten ditu euskeraz direlakotz, ez beren balioagatik. Liburua erosten da laguntzeagatik eta maizenik autorea, kritika gabez, bide txarretik ez da baztertzen.

Gauza batzuetan neurria falta zenutela, zion Iratzeder lapurtar poetak; gainera, Frantzi-aldean bageneukala zion. Zor dizuet, beraz, bi itzez, gure aldeko errien berri, eta aitortu bear honekin gure neurria aizearen ta utsaren neurria dala. Zer neur genezake, otoi, gure neurriarekin, gure kutxak utsik daudelarik? Gure aldeko Ikasle Euskaldunen aurrean itzaldi gogor batean zion Lafitte jaunak zein ziren euskeraz idazten zuten laikuak: periodista izen-lerro bat eman zigun, kultura-aldetik ezer balio ez dutenak. Lafitte jaunari laiku idazle baten izena aztu zitzayon. Aldiz, ura zan idazle-izena merezi zukean bakarra, Jon Mirande, bainan, ofizioko oitura dalakotz edo *Herria*-n idazten ez dualakotz, ez du aipatu. Apez-fraileen artean euskaltzaleak badire: poeta dan Iratzeder, teatrolari diran Larzabal ta Giltsu jaunak, Lafitte jauna eta periodista batzu. Frantzi-aldeko ikasle laikuen otza euskera-kontuan aipagarri da. Lafitte jaunarekin eztabaidan zuen aldeko kultur-arrengurak aipatu ditugunean, euskeraz zekiten ikasle horietarik batzuk zeuden aspertuta ta besteak gosez arrausika joan bearrez. Amabiak inguru jo zutenean, presa zuten bukatzeko. Mutil onak izaki eta ekonomi-gayetan, soziologi-gayetan asko dakitenak, uste gabeko euskaldunak gelditu dire.

Euskal-errian alde onik ez dudala arkitu ez uste. Beste urtez bezela etortzen geran Frantzi-aldekoek esaten aal dugu, naiz ez gauden beti zuekin konforme, guziez ongi atotsiak izaten garela. Gustatzen zaizkigu zuen artean baten onore-sendimendua, bestetzuen kultura edo alakoren erromantismoa. Badire asko oraindik *tasun* andi batzuen zai daudenak: areta lege berriek ez dute ez ekonomiarik ez izkuntzarik derrigorrez salbatzen. Amargarren aldikotz eta Mirande baten ondotik esana izan bedi ingelespean bazirela 400.000 irlanderaz mintzatzen zirenak; orain, bere jabetasun eta guziarekin, 35.000. Frantzi-aldeko eskoletan euskeraz irakasteko astean ordu bete zuzen da. Frantzian maisuek ondo irabazten baitute, euskaldun maisuak ez dire falta, baina Euskal-erri guzian Xuberotar andere batek baizik ez du baimenik eskatu.

Horra zer ikusten eta entzuten aal dan, erriz-erri alderdikideen ikustera joaiteko ordez egiazko erri xumeari urbiltzen gatzaizkionean. Badakit nere adiskide zaar bat arrituta egoiten dala eta pentsatuko duala diñitatea falta zaidala, galduaren aitzakian, kalean naiz

trenean, izketan asten naizenean. Ez aal dut hala ikasi, edozein izketalditan *soin* itza sartzez, ez Bizkayan ez Gipuzkoan erriak ez duala "gorputz" bezala ulertzen? Gure Xubero-zokoko euskeran banekien *suñian* esaten zala "en los hombros" adierazteko: huna nola berriz ikasi dudan.

Kuadru honen bukaeran, baliteke oraindik ez dudan iñondik arrazoinik: oi, hala balitz! Illunegia bazaizue nere kuadrua, ez uste arren zuen aldean itxaropenik ez dagonik. Gure zorriak billatzea ez da iñorentzat gustuzko lana izango; beraz, euskaldun baten berotzeko gure erriaren ederra azaldu bear bada, ez akatsak zoko batean gorde. Berdin berotu nai duzutenaren aurrean, egun edo biar, oyalak eroriz gezurrak sekulakotz etsiraziko baitio.

D. Peillen



BILBAO'TIK

EUSKERAREN EGUNA BILBON

Euskaltzaindiko R. M. Azkue katedrakoak antolatuta meza bat esan zen Eskolapioetan abenduaren leenbiziko egunean, Aita Berriatua-ren "Lagunarteko mezea" erabili zelarik irakurle eta meza-entzuleen galde-erantzuneratako. Aita Martzel Pasionistak egin zuen predikua, izugarrizko erreztasun aundiarekin eta oso argi.

Euskal-erria judu-erriarekin konparatu zuen, nola aldi batean juduak beren garbitasuna ta beren oiturak sendo gorde zituzten; eta onetan eredutzat jarri zituen.

Baiña, egia esan, ez ote gara asiko euskaldunak ere profetak sorturik euskal-mesias baten etorrera zabaltzen, eta gero judueri gertatu zitzaien bezala, beren erria mundu onetan salvatu bearrean, esatea: "Nire erreiñua ezta mundu onetakoa"?

Izan, juduekin antz apur bat badugula dirudi. Aiek munduan barrena zabaldu dira eta beren espiritu berezi ta sendoagatik gauza askotan nagusi egin dira. Eztago dudarik espiritu oso bikaiñekoak direla. Eta beren oitura zaarrak eta erri-ametsak utzi eztituztelako gauza askotan nagusi izanik gorrotatuak izan dira.

Baiña beti gertatzen da xede ametsezkoetara eltzeko, diruaren eragiña eztela ia iñoiz izaten ametsen eragiña, elkarren xedeak topo egiten dutenean baizik.

Ala ere aiekin ditugun antzak oso itxurazko eta azaleko direla esan bearra dut, gaur egunean beintzat. Aita Martzel-ek etzuen egin nai, dudarik gabe, metafora bat baizik, euskaldunak bultzatzeko erlegiñoa eustera, oiturak eta birtuteak gorderik.

AMA VIRGIÑA SORTZEZ GARBIARI IRURREN BAT

Jesuiten Ikastetxeko Eleizan irurren bat egin zaio euskeraz Ama Virgiña sortzez garbiari abenduaren sei, zazpi ta zortzigarren egu-

nean. Eleiza beterik egon da eta Aita Franzisko Etxeberria, Olabide-ren Biblia argitaratzeko asmotan dabillena, izan da sermolari. Aurten egin da leenbizi irurren au eta gogo bizia dago ontaz usario bat sortu dedin.

AURREN EUSKAL-ESKOLAK

Asi da Bilbo-n San Nikolas-ko ikastetxean aur euskaldunentzat ikastaroa. Ikaskizun guztiak euskeraz egiten dira eta geroago ta gente geiago dijoa.

ASTIZ-EN ERAGIÑA

Bilbo-ko "La Gaceta del Norte"-ko Astiz periodistak sendo ekin dio aurren eskolako euskal-ikaskuntzak direla-ta. Izan du erantzuna Bizkaiko eskoletan kargua duen emakume bategandik. Sekulako giroa sortu da euskeraren inguruan, iñor ezpaita ausartzen aren kontra itz egiten, bere alde baizik. Eztago dudarik bide oso onean jartzen dela euskera etsairik ez izatearekin.

ERRIETAKO EUSKAL GIROA

Errietan ere geroago ta giro beroagoa nabaritzen da eta asi dira nolabait euskeraren inguruan.

Astrabudua-n euskal kanten bidez diardue euskerak an dituen sustarrak erne ta lore berriak eman ditzaten. Bereala asiko dira euskerazko teatro lan bat gertatzen ere.

Errietan egin bear den leenbiziko zeregiña euskeraz gaizki mintzatzen den ustea garbitzea da. Sortu baledi euskaldun bakoitzaren buruan ongi mintzatzen delako ustea, izkuntzak berarekin daraman benetako euskal-espiritua sendotuko litzake, eta onela izkuntzaren revalorizaziño aundi bat lortuko. Baiña kontuz ibili bear da gezurrezko euskal-espiritua sartzeak duen arriskuarekin: anarkia sortu diteke norberaren izkuntza-sisteman eta espirituaren flakezia.

Espirituak, sendotuko dituen eragiñak bear ditu eta ez naastuko dituenak.

Beste toki batzuetan ere asi berriak dira, lengoez gaiñera.

ALFONSO IRIGOYEN

Jan-edanak

Jan-edan-gaiaz idatzitako liburu gutxik sortu ditu iñoiz, orain-tsu argitaratu dan batek sortu dituan adiña esamesa ta iruzkin.

Liburuaren idazpurua *La Guía gastronómica de España* da, ta bere egillea Luis Antonio de la Vega.

Luis Antonio de la Vega au bilbaotarra degu, Aretxaga-kalean jaioa noski. Periodiko ta novela egille ezaguna, berak zuzentzen du aspaldidanik Madrid'eko *Domingo* asterokoa. Euskalerria'ri dagozkan arlo ta gaiei buruz ere, bein baño geiagotan idatzitakoa degu Luis Antonio de la Vega. Esate baterako, orain ogeita amar-bat urte, *Euskalerriaren-alde* aldizkarian-edo, argitara eman zuan zumaiar Baltasar Etxabe idazle ta pintatzalleaz eratutako lantxo ernagarri bat.

La Guía Gastronómica de España'ren apaingarriak ere erdi-euskaldun batenak dira: Lorenzo Goñi'renak. Gauza jakiña da, marrazlari gor ospetsu au, Jaen'en jaioa izan arren, odolez beñepein, eta bere aitaren aldetik, naparra dala.

Iritz-emalle batzuek diote, Luis Antonio de la Vega'ren liburu berria, Julio Camba'ren *La Casa de Lúculo* ta Dionisio Pérez'en *Guía del Buen Comer Español* baño are obea dala. Gure uste apala beste bat da. Balitekela auen mallakoa izatea, baña obea ez.

Dana dala, EGAN'en urrengo zenbakian aztertuko degu zeatzago *La Guía Gastronómica de España* au, iñolaz ere merezi du-ta.

Bitartean ausnartu ezazu, irakurle, bertatik artuta ondoren ezartzen degun zatitxo au.

"Cada tiempo tiene su manjar. Hay la época de la angula, que para que un buen paladar le conceda beligerancia ha de proceder de Aguinaga la de Guipúzcoa y de La Isla la de Vizcaya. Estos *ipuches* del demonio poseen un sentido de la publicidad mucho más agudo que

nosotros, los sencillos *jebos*, que somos unos *coitaos* y unos hombres de Dios, y ya que no en las cazuelas, en la buena fama han hecho que sus angulas derroten a las nuestras. Publicidad y nada más que publicidad.

Como demonios de listos son los guipuzcoanos.

.....

.....

Un vizcaíno me decía:

—Estos *ipuches* la mar de talento tienen. Hasta para comprar sardinas son unos artistas, Nosotros, comparados con ellos, hasta *sinsorgos* resultamos.

—¡Pues si les vieras poner el besugo!

—¿Qué hacen, pues? A lo mejor lo pintan.

—Lo pintan y lo bordan.

—No me choca. Igual que *demoniñorris* son. Como *demoniñorris*.

—¡Viva la alegre Guipúzcoa...! Ya me está haciendo dudar si las angulas de Aguinaga serán mejores que las de La Isla."

* * *

Laister argitaratuko du Jose Maria Busca Isusi'k, jan-edan-gaiaz tajututako liburu ernagarri bat.

Gutxi-gorabeera, liburuaren idazpurua auxe izango da: *Los alimentos en la Cocina Vasca*. Ta *Biblioteca Vascongada de los Amigos del País* deritzan bilduman azalduko da.

Arlo auetaz Busca jaunak dituan jakinduri ta trebetasuna ezagutzen ditugun guziok, irrikitzen gaude bere liburua irakurtzeko.

* * *

Azkeneko udarako egun batez, jan-edan-kontu auetan ainbeste —*aldrebes*— dakiten ipar-amerikano orietako batek, Donostia'ko gure adiskide bati, pozik eta alai, esan zion:

—Aizazu, lagun: berealdiko *ardo zuri* on bat topatu det.

—Ona, beraz?

—Bai, txit ona ta, gañera, oso indartsua.

—Ta, jakin al-diteke *ardo zuri* orren *marka?*

—Ez naiz *markaz* gogoratzen, baña botillak gañean *tximu* bat daramaki pintatuta...

A. A.

Naas Maas

Nafarroako DIPUTAZIOA euskeraren alde

Euskaldun aurrei sariak banatzen

Nafarroako Aldundegi Diputazioak badu bere PRINCIPE DE VIANA delakoan euskeraren alderako Sail bat, berriki abiatua, Peru Diez de ULZURRUN jaunaren gain dagoena.

Euskaraz mintzo diren aurrei diru sariak banatuko dituzte Sakana-ko (Barranca) amar bat errietan; 840 baiño geiago mutiko neskatikoeri. Horiek denak etsaminatu ziran abenduaren 15 garrenean. *Arbazu, Arbizu, Dorrau, Unanu, Lizarraga, Etxarri-Aranatz, Urdiain, Huarte, Irañeta, Iturmendi* eta *Bakaikoa*-ko erriek euskaldun irauten dute beti; eta mutiko eta neskatiko gazteak ari dira euskaraz ederki ere (au ezta marka makala), salbo azken iruzpalau erri horietan.

Ongi etorri beroak egin ziezkaten etsaminazalleei, dela Errikoetxean, dela Eskolategian, Maisu edo alkate edo agintari zembeitek uts egin gabe. Eta apezak bistan da, lan unetan laguntzale bizkorrak izan direla geyen geyenak; aipamen berezia merezi dute.

Mutiko eta neskatiko horiei, ondoko egunen batean, banatuko zaizkie 250 pezetako multxo polita bakoitzari.

Altaa, merezi dute aur horiek eta beren gurasoek ere, biarko euskaldunak diratelakotz.

Ondoko urteetan segitu gogo du Diputazioak sariketa horiekin, beste Nafarroako lurraldeetan, euskara galtzen ari den errietan. Lan aundia eta baitaezpadakoa au; goresmen bizienak merezi ditu Nafarroako Aldundegiak eta bereziki bere buruzagi GORTARI jaunak. Egundaiño ezta egin alakorik euskararen onetan, Nafarroan bederik.

Huna *Boletín oficial* delakoan, Diputazioak argitara eman duen deia itzez itz euskaraz, agertu den bezala:

Diputacion Foral de Navarra
Instituto Principe de Viana
Sección para el fomento del vascuence

Naparroako Diputazioa naigabe samiñarekin ikusten ari da izkuntze guzietan ederren eta arrigarrien dan Euskera, jakintsu aundiak diotenez, Naparroako euskal erriak beren etxetatik kanpora botatzen ari dirala. Galtze negargarri au gertatu ez dedin, dei egiten die euskeraz itz egiten dakitenei, jarraitzeko itzegiten, beren umetxoei erakusten eta egiñalak egin ditzaten euskera zabaltzen.

Euskeraren ikasbide, bizkortze eta iraupenerako lan egingo duen sail berri bat (una Sección nueva) Institución Príncipe de Viana'n badu Diputazioak.

Sail ontan lan egiten dutenak pozik lagun egingo die euskaldun guziei euskeraren sendotzen eta iraupenerako lanetan.

Denbora gutxian, Naparroako euskal erri guziak ikustatuko ditugu, baita ere euskeraz itz egiten dakiten ume guziei sari eta premio ederra eman ere beti euskera maite izan dezaten eta sekulan izkuntza eder ori galdu ez dezaten.

Euskeraren alde Diputazioak jarri duen sail berri ontan lan egiten dutenak, abenduaren amabost garrenean, igandean, Irañeta-tik asi eta Urdiain bitarteko erri guzietako umetxoak etsamiñatuko dituzte, eta euskeraz mintzatzen dakiten umetxo guziei sari ederra emango ere.

SOPHOKLES-EKILAKO ELEKTRA OPERA BERRIA

Londres-eko Covent Garden teatro ederrean eman berri da *Sòphokles* grekoaren trajeria ezaguna; bainan ez hala hala, *Strauss*-en musika eder batekin baiño, *Kempe* andia gidari. Sophokles-en Elektra amintto bat ukitua izan da, gure oraiko endelegiari doakon gisara emanez. Mirari unen egillea *Hofmannsthal* alemana; eta arrrigarri da, diotenez, zer bihotz unkigarri daiteken oraikoendako ere Sòphokles bat, orraztapen batzuen ondotik.

Ezin esan aal arrakasta andia izan du Opera horrek. Hemen ere idatzi da Sophokles-en zerbait, baiña deus aldatu gabe, iduriz, eta euskara gaitz batean emana. Agian beste *Hofmannsthal* dukegunean daztatzen aalko ditugu euskara arronta baizik ez dakigunek, Orestes, *Aegistus* edo *Klytaemnestra* horien jardun erdiragarriak.

GEORGIA-KO BALLET IKUSGARRIA

Londres-en ere, duela egun gutti, eman izan dute Palace teatroan Tiflis-ko dantzari famatuek, *Vaktang* Chaboukiani buru, Laurencia ikusgarri georgia-tarra, gure *Lope de Vega*-ren Fuenteovejuna

trajeriatik ateraia. CHABOUKIANI dantzari beteak prinze baten itxura artzen du, eta deabruak (KIKALESHVILI) ebats eta eramaten du Ifernura, gero lamiña batek handik libratzeko. Paperek diotenez, arrakasta andia izan du inglesen artean, euskaldunen erdi-lengusu diren urruneko georgiatar oyen ikuskizunak.

BONAPARTE-REN OROITZAPENEZ

Orai ehun urte bildu ziren euskalzaleak Baionan leenengo aldiz, dakigunez, BONAPARTE prinzea buru zutela. Urtemugakari *Musée basque* aretoan izan dira bilkurak eta itzaldiak, Urriaren 16 eta 17 garren egunetan. Aldizkari hunen beste aldean ematen da gertakari hoien xehetasun geiago.

DONOSTIA-ko Aldundegian ere ospatu da urte-muga hori, BONAPARTE-rekilako liburu bakan askon Erakusketa bat eginez. Itzaldi sakon bat egin zuen CARO Baroja jaunak, Bonapartek abiatu euskalki-eri buruz, xehetasun jakingarriak azaldurik.

Bigarren egunean Odon APRAIZ-ek egin zuen itzaldi labur bat programatik landa, A. Omaechebarria-ren lekuan; itzlaria presentatu zuen Irigarai jaunak oroitzapen eta atxikimendu-zko itz batzu esanik Nafarroa-ko euskalarien izenean. Azkenik ARRUE jaunak sustatu zuen jendea Bonaparte jakintsuna-ren eta euskaldunen adixkide andiaren urratsak jarraikitzeko gure elearen onetan.

Jende andia bildu zen bi egunetan eta agintari eta andikien artean Gobernari jauna eta Aldundegiko Buruzagia ikus ginituen.

URQUIJO MINTEGIKO SOLASALDIAK

Abenduaren solasaldia *Aginaga* jaun gaztearen gain zegoen. Bera ezin etorriz, bere itzaldia irakurtua izan zen; Pedagogia eta Irakaskintza gaiari buruz, euskara berritsi batean, Leizarraga zaarraren-en idurira bezala taxuturik; agian irakurtzerakoan atsegin artuko dugu eta dituen alde onak obeki yastatuko.

NOBEL SARIAK

PHISIKA-*ko saria bi china-tarrendako.* TSUNG-DAO-LEE eta CHENG-NING-YANG chinatar gazteak (idurira beiratuz ala ematen dute bederik) Amerika-ko Universidade batean daude Irakasle; eta Nobel saria irabazi dute, egiztatu dutelakotz *"El infundamento de las leyes de paridad"* delakoa.

* * *

KIMIKA-*ko saria berriz, Alexander* TODD, Cambridge-eko Irakasle denari, B-12 eta *Acidos nucleínicos* delakoeri buruz egin dituen ikasteengatik.

* * *

Literatur-saria Albert CAMUS-*endako.* Frantses izkiriatzalle hau aita alsaziano-ren eta ama española-ren semea da; ama hau Argelia-ko. Gizon gaztea oraino, 44 urteetakoa, burrumba andia duen idazlaria, bere *L'Etranger* (Arrotza) eta *La Chute* (Erorikoa) liburuekin bereziki.

Leenbizian existenzialista-komunist horietako, SARTRE-kin ados, gero arront asarre unekin, orai beste bidea deramana. Idazlari sarkorra, bizia, argia; siñeste eskasekoa; baiña oroen gaiñetik egiatia, ahoan bilorik gabekoa, gezurra diruaren truk ematen ezduena. Elezuri eta itxurati guztien etsai amorratua. Ezin da aatik askotaz hori esan, gaurko egunean.

Leku eskasez, beste aldi batean mintzatu bearko bere liburu sakon batez, *La chute* nobelaz, edo obeki esan ipuin edo bakarrizketa samin eta zorrotz den hortaz.

Franzia berean batzuek NOBEL sarirako merezimendua, ukatzen diote ala ere.

YURGI OTEIZA-KO, ESKULTURGILLE

Jorge de OTEIZA eskulturgille euskalduna oso ezaguna dugu. Arantzazuko Elizarako lan egiten egon zen dembora batean. Orduan batzu hau eta hura asi ziren bere estilo moldearendako esaten. Bainan orai zorionez ospea anditurik eta berriturik eldu zaigu Brasil-eko Sao Paulo-tik.

Han biltzen dira bi urtez bein Pintura, Eskultura eta Antzeder horietan diren mundu guztiko artista andienak, ospe eta sari billa. Aurtengoan gure Oteizari eman zioten Pinturako leenbiziko saria, bainan berak ez du artu nai izan, bera baiño geiago iduritu zaiolakotz *Ben Nicholson* pintore abstrakto delakoa.

Burutazio huntarik ere ageri du eskulturgille oriotarrak bere bihotza eta bere eskuzabala. Hala ere Eskulturaren leenbiziko saria Oteiza-rendako izan da. *Fumanchu* japondarrak irabazi du bajorelieve-ko leen saria eta *Morandi* italiarrak leen sari andia.

Buenos Aries-etan egona Irakasle bezala ango Zeramika-ko Eskolategi Nagusian; gero Chile-n, ondotik Bogotá-ra joana ango Gobernuak deiturik; hor lan egin eta liburuak ere izkiria ondotik pasatu zen *Perú*-rat, hemen ere Irakasle izanik eta ohore andienak bilduz.

Ainbeste mundu kurritu ondoan orai hemen daukagu Irun-en

lanean, iduriz dembora batendako; eta prestatzen A. Donosti-aren arri-iduri bat, Lesaka-ko edo hor nunbaiteko leku eder batean plantatzeko, gure musikagille zenaren oroitzapenetan. Har biza Oteiza artista aurrerazaile eta burutsuak berak ainbeste maite duen Euskalerriko semeen geresmen bizienak.

JEAN SIBELIUS

Nork ezdu entzun bere *Valse triste* aipatua? Finlandiako musikagille andi hau Helsinkin hil da 95 urteetan. Asko idatzi du Cámarakotik asi eta koralak, Sinfoniak (Zazpi) eta Teatrorako ere. Bainan Garriga idazlari-ari artista-ren alaba batek esan bezala, ez du batere izkiriatu azken 25 urteetan. Zortzigarren Sinphoniarik ez da beraz, hemengo kronista batzuen ametsetan baizik.

Ez du ere Sibelius-ek idatzi Finlandiako erresuma-eresia, MAAMME deitua, PACIUS-ek baizik. Gutti ezagun da artista andi hunetik emengo lurretan, ongi merezi duen arren.

EUSKALTZAINDIA LEITZE-N

Lotazillaren 22 garrenean Euskal AKADEMIA Nafarroako iriska eder hortan bilduko da, Mikolas Ormaetxea ORIXE jaun idazlari ezaguna euskaltzain artzen delakoaren kariaz. Bere mintzaldia Errikoetxean eginen du, Leitze eta Uhitzi-ko euskera doiñu eta azentoari buruz; Mitxelena jaunaren gain izanen da iardespena.

Meza nagusitik landa, diogun batzarrea, eta gero aizkolari saio bat, aari talka, eta agian bersolariak. Erritarrek aterako dute, demborak nai ba du, Ingurutxo dantza, eta Gorriti kantari-taldekoek emanen digute ere abesti batzu.

Ainbeste josta-bidekin, jendea ez da faltako Leitzen.

FRANZIAKO KATIXIMA BAT DEBEKATU

Colomb kalonjea eta *Coudreau* apeza, Pariseko agintari katoliko andienetako direnak, bere karguetatik ekenduak izan dira, beste liburukin bere *Catéchisme progressive* delakoa zabaldu dutelako. Bertan erakasten zieten aurreeri Testament zaarreko eta berriko irakasteak leenbizi, eta gero ondotik, adinen arau, Elizako irakasteak.

Leenbizian Erroman gaitzetsi zituzten obra horiek, bainan ondorean zigorraldia pixka bat eztitu da, utzirik liburu horiek salgei, orraztapen batzu bertan egin eta. Franziako Eliza katolikak izan du joan diran urteetan inarrosaldi geiago ere; *Lyon*-en goien maillako jesuit batzu xuritu bearrak izan ziran, eta berdin iru Provinzial dominikano.

Kristau Frantses bero horien ezinegona horrek, aldez izpiritu obeago baten naia erakusten du eta burumuñen ernetasuna.

GURE ARTISTAK

Josepe M. Uzelai bermeotar artista pintalariak Erakusketa batean bere laukoak esegi ditu Madrilen. Laudorio andiak izan ditu Busturia TXIRAPOZU-ko etxeko jaunak *Camon* eta *Lafuente* kritiko ezagunen gandik. Goresmenak adiskide maiteari.

* * *

LAS GOLONDRINAS Madrilen. Gure errikide Usandizaga zenaren obra aipatua eman da gain gaiñetik Madrilen orai berriki, edergarri berriekin, kantari-koro eta orkesta oberenakin, gorapen eta laudorio biziak lorturik.

AUZOKOEN UMOREA

Paul CASALS violoncello jotzaile andia ezkondu da 80 baiño geiago urteetan, neskato gazte batekin. Eta bere eztei-bidaiatik itzultzean esan omen du; *Bozkario-tan nago* eta *osagarri oberenakin.*

* * *

Erretora ari da esplikatzen zergatik bear duten aurrek dotrinara etorri.—Esazu Manex; dotrinara etortzen ez direnak norat joaten dira?—Pillotan aritzera.

* * *

Ollasko baten adina ezagutzen dukala mutikoa?—Aise! Ortzetatik ezagutzen diat.—Baiña oillasko batek ez dik ortzik!—Oillaskoak ez baña nik bai.

APAT-ETXABARNE

ADABAKIAK

Beterri.—Guk, Urkijo-Mintegikoak, *Spoutnik, Vanguard, illargikume* ta beste orrelako tresnei buruz, asko ezpada ere, zertxobait beintzat badakigu.

Beragatik, urrengo zenbakian argitaratuko degu gai oni dagokan idaztitxo bat.

Are geiago: Urkijo-Mintegikoak, datorren urteko agorrill-aldean, ta Jaingoikoak nai badu, *illargikume* bat sortu ta, zakurrarekin edo katuarekin, ta zuzen edo oker, gorontz botatzeko asmoa degu. Bai, alazankoa!

Ipar-amerikanoak añean *egingo* al degu baldin baita ere...

* * *

X. X.—Guri euskera-mota oriekin, ardo gorri naparrarekin eta *coca-colarekin* gertatzen zaiguna ber-bera gertatzen zaigu.

Adibidez, ardo gorri naparra txit gogoko degu, baña ez *coca-cola.*

Orobat, *Orixe*'ren euskera, esate baterako, oso gogoko degu, baña beste... *euskera-coca-cola* ori, batere ez.

* * *

Goierriar bat. "Julio de Urquijo" Mintegiak azken urteotan eratu dituen itzaldiak berrogei ta amarretik gora dituzu: orietatik, berrogei baiño geiago euskeraz. Ona izlarien izen-zerrenda: Aginaga, Alvarez ("Txillardegi"), Ansola, Apraiz (Odon), Aita Aranguren, Arrue, Azkue ("Dunixi"), Barandiaran (J. Migel), Beloki, Bouda (Erlangen'go Universidadekoa), Caro Baroja (Julio), Aita Donostia

(G. B.), Elosegi, Etxaide (Jon), Etxaniz, Garmendia ("Zeleta"), Gorostiaga, Holmer (Lund'eko Universidadekoa), Irigaray, Irigoyen, Aita Iturria, Labayen, Lacarra (Zaragoza'ko Universidadekoa), Lafon (Bordele'ko Universidadekoa), Aita Larrañaga (Pingliang'go Apezpikua), Lekuona (Manuel), Lojendio (J. M.ª), Mitxelena (L.), Aita Mitxelena (Salbatore), Aita Omaetxebarria, Aita Onaindia, Aita Villasante, Zaitegi, Zugasti. Itzaldi bat baño geiago frankok eman dute eta eztakigu ez ote zaigun izenen bat tintontzian gelditu.

Euskal-idazleak aztertu izan dira geienetan: Agirre (J. B.), Añibarro, Astarloa, Axular, Pr. Bartolome, Bilintx, Detxepare, Elizanburu, J. Etxeberri Saratarra, Gerriko, Iturriaga, Oihenart eta Ubillos, gutxienez. Erabilli izan diran beste zenbait gai eztitugu aitatu besterik egingo: Bizkai'ko kanta zaarrak, Olentzero, Gabon-kantak, antziñako atsotitz edo errefrauak, sorginkerizko otoitzak, euskalgramatika, gure izkuntza eta Kaukaso'koen arteko ar-emanak, zeltak eta euskaldunak, euskal-dialektologia, Bonaparte printzea eta Araba, Arantzazu eta arte-berria. Eta, euskal-gaietatik kanpora, Europa berria, gaurko Pedagogiaren egoera larria, Sokarte eta Platon'en filosofia eta Unamuno.

* * *

Jakinzale. Diozuna egia da, baiña alde batetik bakarrik. Atzo etzan inguru oetan geiegi irakurtzen, ez euskerazkorik ez erderazkorik. Zenbait euskal-irakurgai, nekearen nekez, poliki zabaldu ziran; beste asko, ordea, ez.

Gaur, txit aldatuak ageri dira gauzak, "Eda" banatzailleari eskerrak. Mintegi onexetako gelan sortu zan, eta eztugu ortatik pozbide kaxkarra ateratzen. Eta "Eda" esatea banatzaille ortako zabalkunde-lan astuna bere gain artu duen gizona esatea da: gizon prestua benetan eta langillea, langille purrukatua batez ere. Euskal-irakurgaiak salgai dituztenak, Donostia'n naiz Arantzazu'n, Zarautz'en naiz Bilbao'n, ao batez mintzatzen dira orrezaz. Eta eztugu iñori sinistu bearrik, gerok ikusten baitugu atzotik gaurrera dagoen alde arrigarria. Zaude, beraz, lasai, "Jakinzale" biotzekoa, eta ken ezazu kezka ori burutik.

GURE TEATROAREN INGURUAN

Or-emen, ernetzen ari zaizkigu, nekez bederen, teatrolari sail berri batzuek. Ongi-etorri ta oles alaiena egiten diegu antzezlari-talde gazteai ta txalo ugari ta garaipen bete-beteak opa dizkiegu asi duten lan ederraren sari.

Teatroa'ren egitez, bizitzaren ispillu ta antz-bidea- bait da euskaltasuna erein diteke eta oraingo lur elkorra ongarritu gerora gure erriaren onerako zitu mardulak ekarri ditzan.

Teatroa'ren egitez, bizitzaren ispillu ta antz-bidea bait da, euspeletan euskeranganako zaletasuna; eta onekin gure antziñako oitura jolas ta etxe-aldeko leia.

Buruz jantzi, adimenez argitu, borondatea sendotuaz gure mintzoz jabetu arte, ona emen euskaldun gazte zintzoaren lenengo egin bearra. Onetarako ez dago eragozpenik. Eta ez da au añako alderdirik. Obeto esateko beste guziak gañezka daude.

Goazen bada bide ortatik.

Udara gorri-gorrian "Victoria-Eugenia" teatro-leku apañean Donosti'ko "*Iztundekoak*" bi egun erreskadan eta arratsalde ta gau "*Lagun txar bat*" A. Barriola zanaren antzerki bikaiña eskeñi ziguten. Eta oso ederki, bizi ta tajuz antzestu gañera. Iztunde'ko taldea M. D. Agirre andre zuzendariaren eskutik doan ezkero aurrerapen aundia egiten ari da. Beorlegi betiko plaza-gizona dugu; baiñan antzezlari gazteen artean "komeriante" politak azaltzen ari zaizkigu. Euskeraz gozo ta leun esan; itxuraz egoki ta dotore agertzen diranak. Ona emen txalo ta goresmen merezi duten izenak: Arruabarrena, andereñoek; Tolaretxipi, senar-emazte; Barriola, Etxebeste, Gurrutxaga...

Zorionak guzioi.

Aditu dugunez S. Tomas egunez berriz "Neskazarra" ematekoak ditugu. Jende asko da lan ori ezagutzen ez duana ta berriz ere pozik ikusi-entzun ta txalotua izango dala ziur gaude. Ez dedilla

ordea ori bakarra izan 1957-1958 aroan emango digutena. Iztundekoak gai dira ta beste antzezkizun geiago eratzen erakusle bear dute izan. San Sebastian egunez ostera: "Lagun txar bat" donostiar eta arrantzale dugun trajeri unkigarria. Par ala negar egin araziz gizabiotza goruntz jaso ta zuzendu dezakegu.

Donostiarren ondoren ikusi zagun orain tolosarrak zer egin duten teatro barrutian. Urtean asieran Pepe Artola'ren BIXENTE antzeztu ziguten. Zarrak berri... diralakoan edo. Uda berri inguruan "DAMUA GARAIZ" entzute aundiko Baleriano Mokoroa'ren gertairudi jatorra. Orain 60 urte Oiartzun'go euskal-jaietan sariztatu zioten lan ikusgarria. Zaartuxea ote zan beldur giñan baiñan zorionez Tolosa'ko IPARRAGIRRE antzokian eman ziguten antzezkizunean piztu ta gaztetua agertu zitzaigun; jendeak atsegiñez artu zuan txalo ugariak joaz ordaintzat. Izan ere Baleriano jaunak baserritar sendi-arteko bizimañak ondo ezagutuaz gañera, euskera mara-mara zerion eta elkarrizketak bizi ta neurriz josten zituen gaiaren arauera. Ezin utzi ditut aitatu gabe Mokoroa'tar Ixidore egillearen alaba eta bere lagun Elosegi Moraiz Mirentxu eta Zeberio andereñoak ain ederki esan, jantzi ta burutu zutelako DAMUA GARAIZ antzerkia. Mutillak: Iturrioz, Garikano, Lizarribar Urteaga eta Orbegozo, zein baño zein obeto leia ziran guzion artean garaipena irixteraño.

Nunbait, "*Damua Garaiz*"'en txanda dugu aurten, ezen lenago esandakoaz kanpo Azpeiti'ko talde bizkor batek berbiztu du aitaturiko antzerkia S. Inazio'ren jaioterrian. Eta ori aski ez dala, Villafranka-ra eraman dute Goierri'ko iri nagusian euskel txertoa itsasi naiez.

Arrerik begikoena izan omen zuten, entzun dudanez, eta guziz merezia, bada, "igel-errikoak" bere doñua ondo joaz gañera mendikutsu ta usai gozoa erantsi omen zioten jardunari.

D. Baleriano Mokoroa zanari ustegabeko omena egin zaion ezkero jakin arazi bear dut jaun orrek beste teatro-lan bat idatzi zuala eta ezkututik ateratzeko garaia iritxi zaiola noski: "*Aitortu egin bear*" du izena.

* * *

Ernani'n, "Zintzotasuna" aretoan, aspaldiko teatro-zale zar-gazteak *Bost Urtian* ta *Ezer ez ta festa* gertatzen ari omen dira oraingo ernaniar berriai jolasbide ederra ematearren.

Oso pozgarri zaigu Kardaberaz'en errian ez dala erabat galdu antziñako garra, jakitea. Ez al da beñere itzaliko!

Beste erritan zer egin duten berri oparoa eman gogo nuke baiñan doi-doi jakiten dugu Gabiri, Ormaiztegui, Andoain... nik al dakit, beste nunbait, noiz beinka euskal-teatro jaialditxoren bat anto-

latua dutena. Emen guziak aitatu nai genituzke, Orretarako ordea, guri berriak bidaltzea, zer, nola, nun eta abar bearrezkoa da. Au da xehetasun osoa guziak aizatu ditzagun.

Ez diogu "Zinea"'ri toki guzia artzen utzi bear. Eta are gutxiago gure antzertia bazterrera bota.

Orregatik pozgarri zaigu Zarauz'tik etorri zaizkigun berri atsegin batzuek emen aldatzea. Bertako "*Irrintzi*" deritzan taldeak "*Mutil Zar*" Alzaga'ren antzerki irritsua ezin ta obeto ikasi ta antzestu omen dute. Lendabizi Zarautz'en bertan eta gero Getari ta Eibar'era joanak dituzute txalo ta zorionak jasotzera. Zer bada... futbolistak bakarrik ibilli bear al dute erriz-erri...?

"*Irrintzi*"'ko neska-mutillak Eguberritarako "*Petrikillo*" antzerki berria ta beste zerbait geiago ikasten ari dirala txori batek esan digu.

Kosta'tik iparraldera begiratuaz Lapurdi'ko lurretan "*Begiraleak*" izenekoak dira geien leiatzen zaizkigunak. Bayona'n Bonaparte Luziano prinzipiaren omenez egindako jaialdian M. Olaso'ren: "*Lau Kantari eta txori bat*" liluragarri-pinpiriña abestu ta xarmanki solastu ziguten. Franzia'ko berri eman dudanez esan zagun Paris'eko euskaldun ixtudianteak aiputan dagon Chekhof rusitarraren lantxo baten euskerapena burutuak ditugula, ango Eskual-Etxean.

Emengo euskaldun gazteak angoak baño motzago al ditugu? Ala izatea lotsagarri litzake. Beraz gazteok asi zaitezte asi dantzan!

Irradako ori bearrezko zaigu egitazko euskaldun bizitza sendotu ta suspertzeko.

Ez esan euskeraz egindako komeri-aukerik ez dagoanik. Diputazio'ko Bibliotekan eta beste liburutegietan erruz arkitu ditezke lengo antzerki zar geienak eta orain salgai dauden guziak.

EGAN'ek berri batzuek argitaratu ditu. Azkenik: *Seaska Inguruan*. Zubikarai jaunarena. Eta beste aldizkariok: *Zeruko Argia*, *Euzko-Gogoa*, *Herria* (1) dala-ta beti zerbait ekartzen digute. Laister, ez banago oker, Zarautz'ko *Kulixka-Sortan* (Itxaropena etxean), Albizu apaiz antzerkigilleak "*PERNANDO AMEZKETARRA*" teatrorako jantzia agertu bear omen digu. Gure "Pernando" ez da lotsa izango jende aurrera azaltzen. Ez orixe!

Beraz teatro-zale zar ta gazteok! ez ibilli aitzeki-maitzeki. Alperkeria utzirik, nagiak atereaz eta elkar lagunduz, goazen guziok Euskal-Teatroari indar ematera. Gure erriaren alde jokatzea bai da.

1957-Abendua

IBALAN

---

(1) "*Eduardo ogi ta ardo*" ("*Marcelino pan y vino*"ren euskerapena) Zeruko Argian; *Jostuna*, Euzko-Gogoan; *Arratsaldeko Askaria*, Herrian.

ZINEMA

Berriketari onek eztakar gaur berri andirik. Eza da oraingo urritasunaren iturburua: gogoko filmik eza, gogorik eza eta astirik eza. Guztiarekin ere, bildu dudan uzta eskasa iraul dezadan luzatu gabe.

"LA BATALLA DEL RIO DE LA PLATA." Zertara etorri ote gera? Ez, noski, amets-billa, sarritan bezala, egiaren billa baizik. Oroitzapen batek gakartzi, iñoiz ikusi eztitugun Montevideo-inguruko bazterretan bizitu genduen gertari baten oroitzapenak.

Emen ditugu —laster, lirain, bildurgarri— munduari ainbeste zijoakion ordu larri bateko egiazko borrokalariak: "Achilles", "Ajax", "Exeter" eta itsaso ondargabeak ordu t'erdirako amets-bizitza eman dion "Admiral Graf Spee"-ren erraiñu illauna. Eta kezkak eta eziñegonak suntsitzen ginduenean bezalaxe gaude gaur, jakiñaren gaiñean gauden arren, zer gertatuko, txakur laster eta basurde sendoaren arteko borrokari begira.

Olako egun batez ikusi zituen azkenik munduak itsaso soillean —Salamina, Actium, Lepanto, Trafalgar eta Tsushima'ren ondoren— gerra-ontzi ariñak elkarri atzaparka, iñoren laguntzarik gabe. Bakanak eta muga-gaitzekoak izango dira aurrerantzean orrelako guduak: ia zaldun ezpatarienak bezain urriak.

Michael Powell eta Emeric Pressburger eztira bide berrietan barrena abiatu. Barrena begira, itsasoa eta ontziak baztertzen baditugu, agintariaren erantzunbearra eta bakardade astuna erakusten saiatu dira geienbat, azken-aldi onetan zinema —besterik ukitzera ausartzen eztelako edo— maiz erakusten saiatu den gaia. Baita arestian sutan zeuden gorrotoak itzaltzen ere. Jainkoari eskerrak, ezne berberak azi zituen erriak zentzatzen asiak direla dirudi.

"SI VERSAILLES M'ÉTAIT CONTÉ." Sacha Guitry zenaren film bat ikustea ezta, neretzat beiñipein, poz-atsegiñez egin ditekean egitekoa. Ori eta erdi-ezagunen baten ilkizunetara joan bearra,

biak orobatsu. Egiteko aspergarri xamarra, batetik, eta ezin-baztertuzkoa, bestetik. Ongi begiratu ezkero, gaiñera, orren aspergarria ere ez. Ilkizunetan izaten dira zenbait txolarte alai —adiskide-artean, ildakoaz aazturik, egiten diren berriketak eta—, eta Sacha Guitry zena ere, goian bego, saiatu da aldiz-aldiz ikuslearen zama arintzen.

Illaren obra bizirik daukagun ezkero, zillegi izan bedi artaz, illaz zillegi elitzakeana, esatea. Axal-axalekoa da, iñon axalekorik izan bada. Irudi-andana luze onek prozesioa dirudi, beste batean esan nuen bezala, edo moda-erakusketa. Frantzia'ko Historiaren itsaso zabalean murgildu nai lukeanak eztu apar eta bitsa baizik ikusiko. Geienez ere, Luis XIV eta XV'garrenek izan zituzten zenbait amoranteren izena —guztiak aipatzea lan luzeegia bailitzake— eta gezurrezko arpegia —egiazkoa baiño panpoxagoa, bear bada— ikasiko du edo gogora ekarriko. Baditeke ere amorante-sailla gure artean zertxobait moarratua agertzea, alde gaitzera makur ez gaitezen.

Sacha Guitry'k gaingiroki eskuztatzen duen irudi-liburutik gogoan gelditzen dira bat edo beste, egoera, ibillera edo jazkera —gaiñaldea beti ere— dela bide: Claudette Colbert-Mme. de Maintenon, Sacha Guitry-Luis XIV'garrena aguretua eta. Egille gizarajoak, eriotzera baiño leen, beste milla ta millaren ondoan, mundu guztiaren aurrean jantzi nai izan zuen erregezko apaindura ederra txairo eta egoki darama.

L. M.

LIBURUAK

EUSKALERRIKO IPUIÑAK. A. Irigaray. "Kuliska-sorta". Itxaropena. Zarauz, 1957.

Euskaltzaindia'ren argitalpenetan bat da ipuin-sorta au. Len ere ba'dauka Euskaltzaindiak beste ipuin-sorta bat argitaldurik: Kirikiño zanaren "Abarrak". Irigaray jauna degu argitalpen oien aitabitxi. Aitabitxitasun ongarria benetan gure Euskerarentzat.

Ipuiñak, izkuntza guztien literaturaren zatirik oituenak izan oi dira. Oituenak, eta ederrenak ere bai.

Esan dezagun, ordea, ipuiñen gai au, gizon landuena ez baño erri xumearen sorkaria areago izan oi dala. Ipuiñik geienak —ederrenak— jaberik gabeak izan oi dira, literatura orotan, ots, jabe bakoiztarrik gabeak; erriarenak, izen-gabeak. Orregatik ipuin-sortarik geienak, "bilduak" izan oi dira.

Irigaray jaunak gaur aurkezten dizkigunak ere, alaxe dira: erriaren aotik "bilduak" —ale batzuek ez beste—. Biltzalleak, Barandiaran, Azkue, Caro-Irigaray...

Beste gauzatxo bat ere ba'degu esan bearrik gai oni buruz: Biltzalleak geienetan ipuiaren ezur-utsa bildu oi dutela, ots, *schema;* ala dagokio biltzalleari; alaxe ematen bait-dituzte "kontatzalleak" berak ere biltzallearen aurrean; ezur-utsean, schema utsean... Bañan "kontatzallea" bere saltsan arki danian, beste "konturik" izaten bait-da... Orduan izaten da ipuiña benetako ipuin, ipuin bizi. Orduan egoten dira entzuleak, irria ezpañean edo nigarra begian, kontatzallearen ezpañetatik zintzillik. Orduan ez bait-da ezur-utsik, mamiz ederki osatutako ta parpallez apainki ornitutako andere lirain ta txairua baizik. Orduan da ipuiña ipuin. An, sukaldeko supazterrean amonaren ezpain mehetatik irteten danean; an, ostatuko mai luzean, ardo-botoilla baten aurrean kontatzalleren bat kontari asten danean... "Bein batean..."

Bildumaetako ipuiñak ez dira ain gauza bizi. Beti ere —polit eta guzi-janari puska-legor izan oi dira, beste ipui aien aldean.

Bañan folklore-zaleari ez dagokio besterik; *schema* jaso erriaren aotik. An moldatuko da gero idazlea, literatura-zalea, ezur orren inguruan, arduraz-arduraz —ezpain-mehedun amonatxoak bezela— berak ere ezurrari mami bigun erasteko. Ori beste lan bat bait-da. Barandiaran'en-eta gaiaren gañean gure idazle gazteak egin bear luteken lana.

Dana dala, orra or gai politak. Irigaray jaunak euskeraz ikasteko-edo argitaldu ditu. Bañan gure idazleentzako gai bezela ere aukerakoak bait-dira. Edo-ta etnographoentzako, beren etnographi-lanak osatzeko.

Aitzin-solasa, ondo osatua, gai ontan oso trebatua dagonaren gisakoa.

Ipuiñak berak nolakoak diran, ez noa esatera, oso politak eta irakurgarri-irakurgarriak dirala baizik. Gañerakoa irakurleak berak ikus beza bere begiz eta ao-gozoz.

M. LEKUONA

PIPO, KONEJUTXU ARROA. NINI, KONEJUTXU ARGIA. *K. Bernal Araluze*'k asmatuak eta *Sabin Berasaluze*'k itzuliak. *J. A. Urkijo*'ren irudiak. Arantzazu, u. g.

Euskaldunen, eta batez ere euskaldun gurasoen, aspaldiko egarria berdintzeko agertu dira noski bi liburutxo polit auek: oraindik ikusi eztugun irugarrenak ere *(Doni, Konejutxu negartia)* ez omen du agertzea luzatuko.

Eztute iñondik aitzakirik. Leen baiño obeto ezagutzen ditut orain aur-liburuak, etxekoak direla ta, eta ipui gutxi ikusi ditut, edozein aldetatik begiratuta ere, auek bezalakoak. Ain dira garbi —eta alaz ere ez gexak—, bizi eta egokiak, bai ipuiak eta bai edergarriak. Egilleak ez ezik, begi ona izan dute euskeratzeko autatu dituztenak.

Sabin Berasaluze'k ederki eman ditu euskeraz, alako Bizkai-usai arin eta goxo bat duen gipuzkeraz.

Zorionik beroenak egiteko eder onetan parte izan duten guztiei. Argi eta garbi ikusia dago izkuntz-auzietan etekin obeak dituela aurren onerako egiten den lanak persona aziak euskaldundu bearrez maiz alferrik egiten denak baiño. Badira zorionez ortaz oarturik aursaillean ezin obeki saiatzen direnak. Oriek, eta nor bere etxekoekin ari direnak, laguntza goragarria artu dute Arantzazu'tik.

L. MITXELENA

ESTUDIO ELEMENTAL DE LA GRAMATICA VASCA. Raimundo Herrero Tornadijo. Editorial Icharopena. Zarauz, u. g.

Arpegi txukuneko liburu au Toribio Altzaga'ri eskeiñia dago, euskal-idazle trebe eta euskal-irakasle maitatua izan zenari.

Egilleak, sarrera laño eta ukigarrian dionez, Altzaga zenak aoz irakatsiak ipiñi nai izan ditu paperean, eta besterik ez. Uste baitu oraindik, maisua aurrean eztagoelarik ere, balia ditezkeala aren esanez euskeraz ikasi eta trebetu nai dutenak.

Gramatika-gaiek ezin dezakete *EGAN*-en leku zabalik izan. Eztugu, beraz, liburua aztertuko. Guztira, 124 ikaskai ditu eta geienak, leenbiziko 116-ak, era onetara moldatuak: zenbait itz, gramatika-oar batzu eta itzulgaiak. Auek erderaz agertzen dira leenbizi (erdera zuzenean, dio egilleak), euskal-erderaz gero (erdal-itzak euskal-ordenan antolatuak) eta euskeraz azkenik.

Jatorriz euskalduna ezten Herrero jaunak biotz-eskeintza bikaiña egin dio euskerari berari, Altzaga zenari ez ezik. Eta ongi merezi du euskaldun guziongandik eskerrik beroena.

L. Mitxelena

GOI-ZALE. I Otoitzak. II Kristo'ren Antz-bidea. III Eraspenak. Karmeldar-idaztiak. Gazteiz, 1956.

Kristo'ren Antz-bidea ardatz dualarik, Eliz-libururik ederrenetakoa (66 orrialde) degu, oraingo ontan A. Onaindia'k argitara digun auxe. Lenengo zatian egunoroko otoitzaz gañera, Aitortzeko ta Jaunartzeko ta Meza Santukoak. Erdian "Kristo'ren Antz-bidea". Eta Azken-aldean (50 orrialdi), zenbait jaiera, Gurutze-bide, Agurtza, Jesus'en Biotzarena, Karmel, S. Jose. Ondo iltzeko etab. etab. 544 orrialde guzitara, paper me-meian. Boltxiku-libururik politena. Orixe da azaletik begiratuta gure A. langille-langilleak gaur eman diguna.

Barrutik begiratuta eta Kristo'ren Antz-bideari gagozkiola, orain urte batzuek A. Pi karmeldarrak egindakoa da. Bizkaieraz. Lan trinkoa. Kempis'en idazkerari egokitxo dagokion bezelakoa.

Bizkaian errez salduko dan liburua. Lengo bi argitaltzeetan ala saldu zan beintzat eta. Au irugarrena bait-du.

M. Lekuona

ENSAYO BIBLIOGRAFICO DE LA PROVINCIA CAPUCHINA DE NAVARRA-CANTABRIA-ARAGON (1900-1950).

Fray Felipe de Fuenterrabía, o. f. m. c. Boletín Oficial de la Provincia Capuchina de Navarra-Cantabria-Aragón. PP. Capuchinos. Curia Provincial de Pamplona, 1953-1956.

Poztu gaitezen liburu zaleok, euskaldun bibliografilari berri bat agertu zaigulako: Ondarribiko Aita Felipe kaputxinoa. XXgizaldi onen Euskal-Bibliografi osatu baten bearrean gaude, eta nai ta zatika-zatika eta bakoitza bere aldetik bibliografi-lanetan ibilli, egiten dena egiña izango dogu, eta lan osotua egiteko orduan ongi etorriko dira orain Aita Felipe'k egin dun bezelakoak.

1900'gn. urtetik asi ta 1950'garreneraino, 647 liburu ta liburuxkaren berri ematen digu. Euskerazkoak ez dira gutxi, eta ez da arritzeko ere: denok dakigu nolako lan aundi egin duten Aita Kaputxinuek Euskal-Elertian.

Maixu degu Ondarribiko Aita Felipe Bibliografi jakintzan. Vaticano'ko Liburutegiaren Ikastolan egin ditu ikasteak, Nello Vian irakasletzat izan dula.

Nola Boletin ori, beste orrelako boletinek bezela, ez dan agirian saltzeko egiña, aparteko liburu batean batuko dira emandakoak, zeozertxo geituaz. Eun ale bakarrik egingo dira.

Jarraitu bedi Bidasotar buruñurdun argi au onelako lanak egiten, eta Euskal-Bibliografi saillera joten ba-du, benetan poztuko gera euskal-liburuzale geranok. Izango du non jorratu soro ortan!

N. A. G.

Euskal-Bibliographirako Oarrak

OTAEGI'TAR KLAUDIO (Zegama'n jaio 1836; Ondarrabia'n il 1890).

I. "Euskal-Erria" aldizkarian argitara eman ebazanak:

* * *

1. BERSOLARIAK ONDARRABIAN. — I (1880), 111-112 orrialdetan.
   Itz-lauz, Manterola jauna'ri eskutitza. "Ondarrabian Buruillaren 11 garrenean 1880 garren urtean": *Manterola jauna: Aspaldi ez da izan, nere adiskide maitia, Ondarrabian, aurten bezelako pestarik...*"

2. ODEIAK.—1 (1880), 169 orr.
   Amalauduna. "C. de Otaegui Ondarrabiko eskola maisuak..." 1880 garrengo Otsaillaren 13 garrenean. Gillermo Humbold'ek egiña, ta Jaime Clark'ek 1871'n gazteleratua: *Zeruari ikutuaz dijoaz odeiak,/Naiz bat banaka, edo elkarganatuak,/...*"

3. IV GARREN ITANASIA.—I (1880), 192.
   Bertsotan: *Esan zaidazu; nola diteke/izan gauza egokia,/ Iru aita eta iru semek/Lau persona egitia?/...*"

4. JESUS PIZTUA.—I (1880), 239-240.
   "Ipandro Acaico" [Puebla de los Angeles'ko Gotzain zan Montes de Oca jaun Txit Agurgarria]-ren *Jesus Resucitado* olerkia, gazteleratik Klaudio Otaegi'k Ondarrabia'ko urian Urri-

llaren 3'ean 1880'n bertsotan euskeratua: *Gelditu zaitez urrikaldurik,/Nere baratzezai ona!/...*"

5. ITZ-JOSTALLUA.—I (1880), 264.
Bertsotan. Ondarrabian Azaroaren 23'an 1880'n.: *Pozez eta kontentuz, Pachiku zegoan,/Aranoko elizai zalako ustean,/...*"

6. BIURSATE DAMUGARRIA.—II (1881), 101-104.
"José Roure-k gaztelaniaz iskribatu ta Antonio Trueba jaunari donekidatua, eta Claudio Otaegui-k euskeratua" (Ondarrabian Otsillaren 5-an 1881-an): "*Ai! Ikustean ez diotela euskal-erriari uzten/Istante batez bederik bere miñak sosegatzen,/...*"

7. JALE ON BI.—II (1881), 168.
Parragarrizko bertsoak: *Aragoiko bi semek zuten apostatu/ Zeñek muxika geigo sabelean sartu:/...*"

8. PEDRO CALDERON BARCARENGORI KANTACHOA. III (1881), 32-35.
Donostia'ko Aiuntamentuak antolatutako konkursuan saritu zuten oda au: *Kantu berri bat eskatutzen dit/Barrendik nere biotzak,/Pedro Calderon Barcarengori/Kantatzeko alabanzak:/...*"

9. CALDERONI.—III (1881), 40.
Juan Eugenio Hartzenbusch'en "A Calderón" amalauduna, Klaudio Otaegi'k euskeratua: *Desdin aundiren mintzoerakin esan izan zenduena/Ikusitzean ibar ontako umeren chikitasuna:/...*"

10. AMARDUNA.—III (1881), 52.
Calderon'ek gazteleraz: Otaegi'k euskeratua ("Sueña el rico en su riqueza/Que más cuidados le ofrece..."): *Amets egiten du aberatsak dituen ondasunetan,/kezka geiago eskeintzen dion aberastasun aetan;/...*"

11. AMARDUNA.—III (1881), 64.
Calderón'en "Yo sueño que estoy aquí/Destas prisiones cargado,/...", Otaegi'k euskeratua: *Beti nagoela nik det amets egiten/Itsaskarri oetaz aspertua emen,/...*"

12. AMARDUNA.—III (1881), 120.
Calderón'en "Cuentan de un sabio que un día/...", amarduna, Otaegi'k euskeratua: *Egun batean, esaten dute jakintsu batengatikan/Zegola aiñ beartsu eta doakabero, ezikan/...*"

13. ARRATOI ZAR BAT TRANPAN ERORIA.—III (1881), 196.
Parragarrizkoa, bertsotan. "Ondarribian Uztaillaren 7an 1881an.": *Ankaezurrerañoko kasaka batekin/Madrillen ibiltzen zan gure auzoko Chomin,/...*"

14. MAIZTER BATEN ATERALDIAK.—IV (1881), 23-24.
Parragarrizkoa, bertsotan. "Ondarribian Uztaren 20an. 1881an.": *Nagusi batek jaiera aundia Zuen nekazaritzara,/eta erruki egiazkoa/Bere bordarietara/...*"

15. ¡ELKAR GAITEZEN DENOK NAPAR EUSKALDUNOK! IV (1881), 76-79.
Guipuzkeraz, bertsotan. "Moldaera au izandu da saritua Irungo euskal pestetan, zillarrezko medalla batekin, Naparroako Euskal-Elkargoarengandik": *Urez aronzdik iskribatzen dik/Anai batek penaturik...*"

16. IZPASTERGO LARROSA.—IV (1881), 57-63; 85-91; 107-114.
"Don Vicente Arana jaunak gaztelaniaz egiña eta Claudio Otaegik euskeratua." Itz-lauz elezarra: *¿Zergatik negar egiten dezute Ispastergo donzellak? ¿Zergatik zuen aurpegiak, beti parretsuak, aditzera ematen dute aiñ urruki aundi bat...?*

17. AMA GAINTIPIÑIA.—IV (1881), 209.
Bertsotan, ipuia. Teodoro Guerrero-ren "La madre postiza", Otaegi'k euskeratua: *Jostatzen zuen arkume churi/Batek zelaian pozkidaz,/Auts-kolorezko auntz eder bati/Milla pallaka egiñaz./...*

18. GIZON BAT ETA ZAKUR BAT.—V (1882), 16.
Bertsotan. G. Belmonte Muller'en "Un hombre y un perro", Otaegi'k euskeratua: *Pozkidaz ikusten det gizon bat aurrean,/Eta zakur bat daukat nere aldamenean;/...*

19. COSME DAMIAN CHURRUKA JAUNAREN OROITZARI.—V (1882), 201-208.
Gipuzkeraz, oda. "Churrukaren oroitza beti bizi dedin/Ibar oetan egin dezagun alegiñ.": *Eguzkia sartu da osgorri tartean,/Odeitzarrak pillaka daude zerupean,/...*

20. MACHIN ARSUKOREN AZAÑA BAT.—V (1882), 220-223.
Gipuzkeraz, bertsotan: *Mendi oetan izandu diran/ume askoren azañak/sare lodiaz estalirikan/arkitzen dira geienak:/...*

21. JESUKRISTOREN IGOERAN EDO IGANDEAN. — VI (1882), 142.
Fray Luis de Leon'en "A la Ascensión" olerkia, Otaegi'k euskeratua: *¿Ta uzten dezu, Artzai santua,/Bakardade ta lantuaz,/Ibar ondokai ta illun onetan/...*

22. AITA MENDIBURU-KOAREN LIBURUAK.—VII (1882), 42.
Itz-lauz, laburki: *Aita Mendiburukoaren liburuak irakortzean ez daki batek...*

23. AITA SEBASTIAN MENDIBURU-KOREN LENDABIZIKO EUNTEAN.—VII (1882), 58.
Amarrekua. "Oiarzunen, Uztaren 14an 1882an.": *Eskerrak eman ditzazkiogun Oiarzungo ibarrari;/Aiuntamentu, Kabildu eta jende prestu guziari,/Egin dioten onragatikan euskal-izdun obenari...*"

24. KUTIZIA.—VII (1882), 141.
José Delmas'en "La envidia" amalauduna, Otaegi'k euskeratua: *Bere biotza izoztua ta anima ere erotua,/Gogargitutzen duen gorroto artan gozagabetua...*"

25. ASTOA BAÑA ASTOAGOA ASTAZAI BAT.—VII (1882), 240.
Parragarria, bertsotan: *Errotari mutill bat astocho batekin/ Zaku karreo beti umore onakin...*

26. ARBOLARI OROIPENA.—VII (1882), 279-281.
Urregorrizko medallea irabazi zun olerki onegaz, Bilbao'n: *Milla kolore dituen ibar parretsu baten erdian/Jaunak paratu zuen ARITZ bat lur sendo eta gurian/Euskaldun dénok bizi gintezen doatsu bere azpian...*

27. ERANZUERA EGOKI BAT.—VII (1882), 304.
Bertsotan: "Ondarribian Agorraren 23an. 1882an.": *Konpesiorik gabe zegoen/Apaiz baten jaiera zan...*

28. AMALAUDUNA.—VII (1882), 389.
Igande arratseko gauaren erdian/Ill berria zan eta gaua chit illuna...

29. ASTO BATEN IPUIA.—VII (1882), 368.
Parragarria, bertsotan: Ondarribian Urriaren 17an. 1882an.":

Trapu biltzalle batek asto bat zeukan aiñ ongi azia,/Ezik egiten zion pentsurik gabe zuen lan guzia...

30. ABEREDARI MIRAGARRIA.—VII (1882), 412-415; 446-449; 476-480; 509-...; 534-537; 578-586.
Itz lauz. Vizente Arana'ren "El brebaje maravilloso" olerkia, Otaegi'k euskeratua: *Ez ditut kantatzen, ez, Akilesen azañak, ez eta ere Ulises argidotarren zurtasuna. ...*
(Ondarribian maiatzaren 9an. 1882an.)

31. ¡BILINCH DOAKABEARI!—VII (1882), 547-549.
Donostian saritua olerki au: *Umerik izan bada munduan/Zoriontasun gaberik,/Donostiako Bilinch izandu/Zala, ez dago dudarik: ...*

32. CHORI BATEN GORGORAK.—VIII (1883), 80.
Amalaudun alaitsua, gipuzkeraz: *Donostiako erri guztiz politean/Chori bat arkitzen zan ederki jantzia:/...*

33. LETRADU BATI.—VIII (1883), 196.
Parragarria, bertsotan: *Letradu bati zion baserritar batek/Galdéera au egiñ: Jáuna, badakit berorrek,/...*

34. ONDARRIBIKO CHERKOA 1638-AN.—VIII (1883), 438-443
Bertsotan: *Euskal-erriko mendi puntetan/Da IRRINTZI bat aditu,/Eta ibar ta erri, baserri,/Bazter danetan banatu,/Prantsez arrano egakaria/Dala Españian sartu...*

35. GURE AMA GABERIK EZ GINTEZKE BIZI.—IX (1883), 269-272.
Ondarribi'ko lore-jokutan zillarrezko medallea irabazi eban olerki onekiñ. *Libertade doneti euskal-errikoa;/Eguzkiren azpian paregabekoa;/*

36. ZORIONTASUNA.—IX (1883), 293-296.
Iruña'ko lore-jokuetan, olerki au saritua izan zan. *Ikusitzen dezute borda churi ori/Mendi egal orretan alcharik egoki?/*

37. MARKINAKO EUSKAL-PESTAI DIOSALA.—IX (1883), 427-429.
Olerkia. "Markinako euskal-pestetara bialdun izan zan moldaera au": *Lañu meak urratu ditu euzkiak;/Urrez jantzi dirade baso ta mendiak/...*

38. ONDARRIBIKO OROITZA.—IX (1883), 245-256.
Zortzikua. Felix Ortiz eta San Pelayo azpeitiarrak musika, eta Otaegi'k itzak.

39. ONDARRIBIKO EUSKAL-PESTAK.—IX (1883), 236-238.
Gipuzkeraz, eskutitza: *Ondarribian Buruillaren 12an. 1883an. Manterola Jauna: Oroimengarriak izango dira...*

40. KUKURRUKU!—IX (1883), 64.
Bertsotan: *Milla zortzieun da ogeitamaseian,/Zorigaiztoan sortu zan gerra naasian,/*

41. MAGALIREN KANTUA.—X (1884), 30-32.
Otaegi'k euskeratua. Bertsotan: *Oh nere biotzeko Magali maitea!/Irten zaitez leioro, agertu zaitea/...*

42. ENARA-KABI BATEN BERRIAK.—X (1884), 38-40.
Olerkia. Donosti'ko lora-jokuetan saritua: *Milla urte ta geiago dira/Izango noski aldean/...*

43. ZEAMAKO IZKERAN PASAIO BAT.—X (1884), 122-123.
Itz-lauz: "Ondarribian Otzillaren 4an. 1884an.": *Koba deitzon baserri baten bizi zan nee gazte denporan mutil pizkor bat, Peru illegorri zeitzona...*

44. AURTASUNA.—X (1884), 154.
Bertsotan. José Selgas'en "La infancia" olerkia, Otaegi'k euskeratua: *Naparrezko lañoak!/Zeru goi urdiñak,/Suteo ta urrezko,/Osgarbi ariñak;/...*

45. ZU ETA NI.—X (1884), 180-181.
Bertsotan. José Selgas'en "Tú y yo" olerkia, Otaegi'k euskeratua: *Elur ta suteozko/Larrosa bazera,/Lirio edertsua,/Lorezko goporra,/...*

46. ANTONIO OKENDO-KOA.—X (1884), 193-206.
José Roure'k gaztelaniaz, egille: Otaegi'k euskerara itzuli. Esiskina: *Gaur bezelako arratsetan, ai!, mugi gabe itsasoa,/Odei izpirik gabe baitago, nere aita, zeruchoa,/Izpirituzko nere begiak ikusi dute Jainkoa./...*

47. JESUKRISTO.—X (1884), 309-313.
Itz-lauz. Abdon de Paz'ek gaztelaniaz; Otaegi'k gipuzkeraz

euskeratu. "Ondarribian 1884 garrengo Apirillean": *Itza egin da aragi, kunplitu da etorkizunaren asmegia. ...*

48. LARROSA ETA ERREKA.—X (1884), 446.
Manuel González Alvarez'en "La rosa y el arroyo" olerkia, Otaegi'k euskeratua: *Errekaren ondoan/Larros bat erne zan/ Ederra ta galanta,/Usai ona zeukan/...*

49. KANPORA EMENDIK.—X (1884), 554-555.
Olerkia. "Ondarribian Burullaren 31an. 1883an.": *Alper batzuek dabiltz gure mendietan / Baserririk baserri, / issill issillikan:/...*

50. CHORI BATEN ESKERRAK.—X (1884), 565-566.
"Nere adiskide maite on Antonio Arzác-i donkitua." Olerkia. *Kabi polit batetik/Lumatu baña len/Piok ikusi zuan/Chori bat egatzen/...*

51. EGINBIDEAREN JAUSKAÑIAK.—XI (1884), 50-51.
Itz-lauz. "El Urumea"-n agertu zan "Las víctimas del deber" idaztia, Otaegi'k euskeratua: *Berekoitasunak, zeña baita eunki onen siñale berezkigarria, urrutiratu ditu zerbait gure arteko kupida eta amoriozko sentimentuak...*

52. PAGAUSOA ETA LIZTORRA.—XI (1884), 155-156.
Olerkia. "On Juan Iturralde eta Suit/nere adiskide maite eta jakintsuari donkitua": *Milla urte zituen pago adarrean,/Liztor bat zan erori amerau batean./...*

53. AURRA ETA MICHELETA.—XI (1884), 174-175.
Olerkia. *Amaren esanari/Egin gabe kaso,/Jossek zuen echetik/Iges egiñ atzo./...*

54. ERBIA KANTARI.—XI (1884), 256.
Bertsotan, parragarrikeria. "On Ramón Artola nere adiskide maite eta koplari bikañari": *Jaiera aundia nuan izandu gaztetan/Eizeanibiltzeko mendi ta arkaitzetan./...*

55. ANIMA GARBI BATEN ESAERA LASAIA.—XI (1884), 294-295.
Olerkia: *Sendakin denak digute esaten,/Ganjes aldeko gaitzari,/...*

56. ADISKIDE BATEN OROITZA.—XI (1884), 374.
Olerkia: *Dena beltz ikusten det/Begien aurrean:/...*

57. KASTIGU BAT.—XI (1884), 408-409.
Bertsotan, ipuia. *Eun urte zituen aiton bat zegoan/Miñez oeratua urte bat osoan./...*

58. EUSKARARI KANTACHOA.—XI (1884), 460-462.
1884'garren urtean Iruña'n onizendatua olerki au: *Apirilleko egunsentian/Ditudanean entzuten,/Arbol tantaien orri tartean/ Chori politak kantatzen,/...*

59. GUADALUPE-KO ITURRIAREN BENDIZIOA. — XI (1884), 523-526.
Itz lauz. "*Ondarribian Abenduaren 8an. 1881an./Euskal-Erriaren Zuzendari jauna./Nere adiskide maitea:/Zer bista ikusgarria arkitzen dan nere begien aurrean egunsentiko istante onetan Guadalupe-ko dorretik!...*

(Urrengoan geiago).

N. ALZOLA



GABON-GABONTZETA

Egintza bakarreko antzerkia

ANTZESNOTINAK

APALLU	60 urte		Bizarkentzallea ta amugiña
EZTI	30 "		Organari ta goxogillea
KOIPE	50 "		Arakiña
LANPERNAX	30 "		Arrainduna
MARI-DOMINGI	25 "		Neskamea
ATAUN	25 "		Mikeletea
DON PELLO	60 "	}	Mari-Domingi'ren Nagusi-etxekoandreak
DAMA JUSTA	60 "	}	
PERU	60 "	}	Basarritarrak
MARIXA	60 "	}	
KUKUTXA	30 "		Sagardo saltzallea
POTXOLO	12 "	}	Lanpernax'en illoba
POXPOLIN	10 "	}	
OLENTZARO-TALDEA	20 "		Mutil gazteak
GABON-ESKALEAK	12 "		Bi talde. Nexkak bat eta mutikoak bestea
ELIZ-KANTARIAK	12 "		Mutikoak
PRUENTXI	65 "		Eliz-giltzaria

GABON-GABONTZETA

ANTZESTOKIA

Euskalerriko arrantzale-erri bat, ezker-eskuira kalea dala. Ezkerrean, goxotegirako atea, onen gain aldean: "GOXOTEGIA" izenez. Eskuian ere, atea: "BIZARTEGIA" izena ate goi-aldean dala. Atzean ere bi ate: Sagartogirakoa bata, ta Don Pello'ren etxerakoa bestea.

Bizartegi aurrean, esku-amugintzako aulkia, ate inguruan, bizartegietan izaten diran ezaugarriak zintzilik. Sagardotegiko orman, kurpita abarra, kupeleko sagardoa saltzen dala adierazten. Onen beko aldean, arutz-onuntz ibiltzeko sutegi txikia ta aulki luzea.

AURRENEKO AGERALDIA

APALLU, gero EZTI

APALLU amogintzako aulkian exerita amugiten. An inguruan dan pelota-tokian jotzen dituzten txaloak entzungo dira noiztikpeñean. Pelota-jokoan egiten diran tantoen berri emango duen abotsa ere bai. Abots zoli batek, tantotik tantora, onela adierazten joango da: Sakiak bat, errestuak bat ez, jaunak! Au da: sakia jotzalleak zenbat tanto dituan eta errestuak zenbat dauzkazen esaten joan bear du, pelota-jokoa benetan ikusten balu bezela. Era berean, goxotegian abesti ikasketan bost xei mutiko. Entzungo dan abestia:

"Aurtxo txikia seaskan dago
zapi txuritan txit bero.
Amonak dio, ene potxolo,
arren, egizu lo-lo.

Txakur aundia etorriko da
ezpadezu aguro eiten lo.
Orrengatik ba, ene potxolo,
arren, egizu lo-lo..."

(EZTI *Abestiaren erdi-aldean goxotegitik irten eta oinpuntetan Apallugana atzeko aldetik joan eta sorbaldan goxo-goxo joaz mallu takatekorik ez ateratzeko adieraziko dio eskuz, aurtxoa lo balegoke bezela.)*

APALLU.—*(Arriturik.)* Zer? Zer gertatzen dek?
EZTI.—*(Ixiltzeko adieraziz.)* Xiiiiii!!!

(Gero abestiak txoraturik baleuka bezela eskuak biotzera eraman eta buruaz goxotegiko abeslariak zuzenduko ditu. Eta abestia bukatzean, goxotegiko atera joan eta APALLU*'ri zuzenduaz, besoak zabaldu ta buru-gerriak makurturik agur egiten dio. Beriala goxotegira sartuaz.)*

(APALLU *Isekazko parrea egiñik, burutik ondo eztala adieraziko du.)*

BIGARREN AGERALDIA

APALLU ta KOIPE

KOIPE.—*(Sagardotegitik agertuko da bere arakin jantziz.)* Apallu, zer dek ori? Gabon arratsaldean ere amugiten?

APALLU.—Bai; beti zeok zerbait neretzat; Illea ezpada, bizarra; bizarra ezpada, amua: Gabon arratsalderako beti.

KOIPE.—Ik nai dekalako.

APALLU.—Nik nai?

KOIPE.—Jakiña zeok ba. Ire esku daukak, guziak jaurtigi ta pelotajokoa ikustera joatea.

APALLU.—Eta apaitarako bixigua?

KOIPE.—Apaitarako bixigu arrantzan ari aiz beaz?

APALLU.—Bai; eta legorretik.

KOIPE.—Beitatu gabeko amuaz gañera. Neronek ere jan nezakek bixigua, orrela izatekotan.

APALLU.—Eginda, baña; eginda.

KOIPE.—Jakiña zeok ba: eginda; gordiñik ez beintzat.

APALLU.—Nik eginda baña.

KOIPE.—Ik eginda? Bejaundeikala!

APALLU.—Nik eginda edo... Tretza batentzako amuak egitearren.

KOIPE.—A...! Uste nian, ala ere, bixiguak egiten ituala.

APALLU.—Ondo eginda egongo dek. *(Bere itzaz poztuaz.)* An egongo dek: txir-txir-txir, Koipe jario ederraz txingar gañean erretzen. Nere emaztea ere bai, aren onduan, fu! ta fu!, putsadaka, geiegi erre eztedin gar biziak.

KOIPE.—Etzak geiago aitatu; ortzak ere uretan zeuzkat-eta.

APALLU.—Uretan? Apal-aurreko "Berrogei Agur Mariak" errezatzea eztek laburra izango gaur gurean. Gero, ordea, olio-aza gozoaz asi; mallakoa, pil-pil dala; bixigu erre-berria, sagar xaltxa, aia, kapea nai-ala txotxaz, bapo!, ollarraren tankeran jartzean, nork neri bertsotan kukurruku jo? Ezta Txirritak ere.

KOIPE.—Bertsotan etzekiat; kukurruku jotzen ordea... Kukurruku kontuan, badakik ni nor naizen.

APALLU.—Bai, orretan, bai. Bakoitzari berea ematen bazekiat.

KOIPE.—Biar eguardian ere, kukurruko ederrak botako dizkik nere ollarrak.

APALLU.—Biar al zaukatek jokoa?

KOIPE.—Bai: Meza-nagusi ondorean.

APALLU.—Eta... zer asmo dek?

KOIPE.—Esan bearrik etzeok: irabazi. Ikusiko dek, nolako ollarra detan. Egundo eztiat izan oraingoa añakorik.

APALLU.—Bikain askoak izan dituk ba lenago ere?
KOIPE.—Oraingoa, ordea...: aren ibillera, aren ego arrotzeak, aren kukurruku biziak, aren... Naikoa neronek kukurruku jotzea, bera ere bizi-bizi kukurrukuka asteko.
APALLU.—Bai? Saltzeko eztek eukiko orduan?
KOIPE.—Saldu? Ez, orixe! Jokoak eratzen eta sariak irabazten ekin bear zioat orain.
APALLU.—"Jokoa eztek gero errenta; obe dek kapoi bat erreta?"
KOIPE.—Berriketak dituk oiek: berriketak. *(Pelota-tokiko txaloak bizi-bizi entzungo dira emen.)* Baniak pelota-toki aldera. Ez al ator?
APALLU.—Ezin nezakek.
KOIPE.—Bixigua naiago ik, e?
APALLU.—Eztituk berdiñak.
KOIPE.—Baniak, baniak. *(Eskui aldetik joaten da.)*
APALLU.—Ua, bai.

IRUGARREN AGERALDIA

APALLU ta LANPERNAX

*(*APALLU'*k amugiten jarraituko du.* LANPERNAX *agertu arte.)*

LANPERNAX.—*(Barrendik arrai saltzeko deia.)* Bixigu bizi-biziaaaaa! Orain ekarriaaaa! *(Agertuaz.)* Bixigu-bixiguaaaa!

(Otarran bixigu batzuek dakarzki.)

APALLU.—*(Oso alai.)* Agur, Pantxika. Ori den eztarri ederra, ori!
LANPERNAX.—*(Urreratuaz.)* Beste gauz guziak ere, eztarria bezain ederrak ditut nik. *(Bere gorputzari eragiñaz.)* Nere xaxara ikusi bestela.
APALLU.—Ori den, ori! Amaikak artuko lekizkiñe.
LANPERNAX.—Baita amabik ere.
APALLU.—Egia dion. Eta orrela ta guztiz, urteak aurrera ik eta arria geldik oraindik.
LANPERNAX.—Nere erruz ez gero arria geldik? Amaren gonapetik irten nai eztuten mutillengatik baizik.
APALLU.—Neska, etzan esan orrelakorik.
LANPERNAX.—Zer neska ta zer mutillondo!
APALLU.—Eztin neskak geiegi aurreratu bear.
LANPERNAX.—Zergatik ez?
APALLU.—Emakumezkoak, emakumeen mallan iraun bear dezutelako.

LANPERNAX.—Mallan beti gu, ederki. Eta gero, erbestetik agertzen diran neskame galbaiaren ondoren asi emengo mutillak.
APALLU.—Ezten egia izango?
LANPERNAX.—Ezetz?
APALLU.—Ezti ez beintzat.
LANPERNAX.—Ezti? Ederra arraia aurrera atera dezuna!
APALLU.—Ez al den ire gogokoa?
LANPERNAX.—Bai; nere gogo-gogokoa da; baña, aspaldi ontan, erruko aizeak artuta edo dabil. Eta mu-egiten ditala uste det.
APALLU.—Ez al zaudete zertuta ba?
LANPERNAX.—Zertuta gu egon? Nik bai nai. Aren mandatua entzuteko irrian beti ni, baietza emateko ta, ura berriz: eguzkiaren musu berotan; loren esnatzeak ikusten; txoritxoen goiz-abestiak entzuten; errekatxoen mur-murrak, biotzera, maite-kontu asko esaten diotela; aizearen esku legunak maitetsu urrumakatzen duala; izarretan idatzia dala bere maitearen izena; eta eztakit beste zenbat onelako tretza naste buruan dituala.
APALLU.—Eta ni, zuen ezkon-deia noiz entzungo zai. Eztago urrian, orduan, gure marmiteko jana.
LANPERNAX.—Or aurreko neskame kalaputxi orrek du errua; ez beste iñork.
APALLU.—Ezti bera ere, lorarik-lora ibiltzen dan erlea den gero?
LANPERNAX.—Neskame orrekin Ezti asten bada eztakit zer gertako dan, gero, gure artean.
APALLU.—Kale erdian, atzamarkadaka, etzerate asiko beintzat?
LANPERNAX.—Geiegirik ez esan.
APALLU.—Orrelakorik etzan egin, neska.
LANPERNAX.—Ajol gutxi neri. Lendik ere gaizto entzutea degu Lanpernax'tarrok errian eta, neskame orri eskuka bat txima kendu arren ezkera gaiztoago izango. *(Joanaz.)* Banua orain.
APALLU.—Orrenbestez baua?
LANPERNAX.—A...! *(Itzuliaz.)* Ea aztu zitzaidan. *(Bixigu bat emanaz.)* Zuri emateko esan dit Manuel'ek bixigu au.
APALLU.—*(Artuaz.)* Eskerrikasko. Eta nere bixigu ta guzti bauan?
LANPERNAX.—Barkatu. *(Joanaz.)* Bixigu bizi-biziaaaa!!!

(APALLU *bere bixiguaz poz-pozez dabillen bitartean.)*

EMAKUME BATEK.—*(Barrendik.)* Ai zu, zenbatean dezu?
LANPERNAX.—*(Barrengo goi aldera begira.)* Oso merke, etxekoandre; oso merke. Merkeagorik eztezu arkituko gaur. Jetxi zaitez, eta konponduko gera.
EMAKUME BATEK.—Esan zaidazu zenbat bear dezun lenengo.

LANPERNAX.—Ona, bixigu ederra! Amu-lapurrekoa berau: arrantzaleak beren etxetarako artzen dituztenetakoa. Ezkera aserretuko, etxeko-andre.

EMAKUME BATEK.—Ezetz?

LANPERNAX.—Ez, emakumea, ez. Zuri merkeago emango dizut. Len saldu ditudan biak, amabiñan eman ditut, au baño txikiagoak ziran arren. Eta au, zu zeralako, amarrian emango dizut. Gabon erregalo obeagokorik eztezu arkituko gaur onen merke.

EMAKUME BATEK.—Artuko dizut zortzian bada.

LANPERNAX.—Zortzian? *(Eskua bekokira eramanaz.)* Aitaren eta Semearen!! *(Otarratik bixigua artu ta begiratuz.)* Bixigu eder oni begiratuta, zortzi eskeintzeko arpegia dezu?

EMAKUME BATEK.—Garesti da amarrean.

LANPERNAX.—Garesti? Etzera merkatari makala, alajaña. Garesti bixigu eder au! Sutondoan kukulumutxu egon ta uste al dezu bixiguak ekartzen dirala? Biali zazu Ixkote aldera zure gizon mardul ori, ta ikasiko dezu merke ta garesti zer diran: Ondo asko ikasi ere. Zortzi eskeñi; zortzi!

EMAKUME BATEK.—Etzaitez orrela berotu, emakumea?

LANPERNAX.—Berotu esaten dezu? Suak artu ere bai. Garesti dala ta, zortzi eskeñi! Aundiagoak entzungo ditugu oraindik!

EMAKUME BATEK.—Zortzian eman nai ezpadadizu, zurea da bixiguata, saldu.

LANPERNAX.—Salduko det, bai: ondo saldu ere. *(Agertu dan beste aldetik joanaz.)* Bixigu bizi-biziaaaa!!!

LAUGARREN AGERALDIA

APALLU ta gero EZTI ta ELIZ-KANTARIAK

(Lenengo ageraldian bezela emen ere APALLU *bakarrik agertuko da, txalo ta abotsak entzuten dirala. Goxotegian "Noche de Dios" izenaz ezagutzen dan abestia "ao-itxian" entzungo da mutiko batzuek abestuta.)*

APALLU.—*(Abestiaren amar-bat konpas entzutean oso takateko aundian aterako ditu malluz bere amugintzako aulki gañean.)* Onela, abestia ixiltzen da ta, bera ere geratu.

EZTI.—*(Goxotegitik irtenaz larriturik* APALLU*'ri.)* Zer da? Zer gertegira joaten da.)

APALLU.—*(Itzik erantzun gabe ta kiñuz eztakiala ezer adierazten dio.)*

EZTI.—*(Gaiztoz* APALLU*'k egin duala igarri ta buruari eragiñaz goxotegira joaten da.*

APALLU.—*(Bere artean parrez. Goxotegian lengo abestia lengo erara berriz ere. Oraingoan ots aundiagoak ateratzen ditu abestiaren zortzi konpas entzun orduko, gero ixilduz.)*

EZTI.—*(Berriz ere larriturik irtenaz.)* Zer da? Zer gertatzen da? Esan zadazu?

APALLU.—Ezer ez.

EZTI.—Ezer ez? Eta zer ziran ots oiek? Gorra naizala uste al dezu?

APALLU.—*(Ezer ezpalaki bezela sorbaldak jasotzen ditu.)*

EZTI.—Mututu orain?

APALLU.—*(Sorbaldak jaso berriz ere.)*

EZTI.—*(Goxotegira joaten da.)*

APALLU.—*(Bere artean parrez.)*

EZTI.—*(Goxotegitik irten eta barrengo abeslariei asteko kiñua eman eta lengo abestia entzungo da. Oraingo aldian atez kanpotik zuzenduko du, oso biotz-beratzen duala adieraziz, zuzentzen dan bitartean.)*

APALLU.—Abestia bukatu arte ixilik eta geldirik.

EZTI.—*(Poz-pozez.)* Ederki! Bikain!

APALLU.—A zer nolako abestia ori! *(Isekaz.)* Mutu-abestia! Orain-dik olakorik!!

EZTI.—Abesti exkaxa ori?

APALLU.—Exkaxenetakoa. Ori eztek abestia ta ez ezer.

EZTI.—Apallu, ori ere esan? Zuk eztakizu abesti ona zer dan?

APALLU.—Nik jakin ez?

EZTI.—Ez, Apallu, ez. Mundu guzian zabaldua dan Gabon-abestia dezu ori.

APALLU.—Gabon-abestia ori? Umeak lotaratzeko abestia dek ori; ez Gabon-abestia.

EZTI.—*(Poz-pozez.)* Jakiña dezu ba: umeak, aurtxoai, lo arazten dien abestia. Aurtxoaren eguna degu Gabon edo Eguarrri, Jarri zaite, gogoz edo adimenez, abesti goxo orren egatan. Jun zaitez Belen'go Estalpetxora gero. An arkituko dezu abesti orren muña: Antxen Aurtxo-Jaungoikoa. Bere Ama ta Aita-orde, Jose Doatsua; antxen, baita ere, asto ta idia, Aurtxo jaio-berria dagon askatxo inguruan, otzitu eztedin, arnasaz berotzen; antxen millaka aingeru ere. Aurtxo inguruan guziak. Zer nai dezu besterik, Aurtxoarentzat, aurren abesti goxo ta maitasunezko biotz bero izan ezik?

APALLU.—Eztizkiat nik Gabon eta Eguarriak orrela ikusten. Alai ikusten dizkiat. Pekatuzko kategogorrak apurtzeko, ta askatasuna pekatarioi dakarkian Jaungoiko-Semearen jaiotza eguna, pozezkoa izan bear dik gure artean. Pozezkoak egun ontako abestiak

ere; lotarazitzekoak ez; esnaraztekoak baizik: alaiak. *(Bere aulkitik jaiki ta "La Pastorala" deritzan mezako zatia abesten asten da:)*

"Qui sedes ad désteram Patris
miserere nobis. *(Bitan au dana.)*

EZTI.—*(Poz-pozez laguntzen dio abesten erdi dantzan zuzentzen duala.)*

APALLU.—Ikustek?

EZTI.—Badaukat nik Meza au. Beriala entzungo dezu. *(Goxotegira joaten da-ta, beriala abots zoli batez:)* "Gloria in excelsis Deo".

ABESLARIAK.—Et in terra pax hominibus... *(La Pastorala koa.)*

APALLU.—Kukurrukuuuuuu!!!!

ABESLARIAK.—*(Ixiltzen dira.)*

EZTI.—*(Poz-pozez.)* Zuk egin dezu, Apallu?

APALLU.—Bai.

EZTI.—Bikain! Ori da etorria dezuna! Gu emen ibiltzen gera zerbait asmatu nairik eta beti, poto! Ezer berririk atera ezin. Eta zuk, bat-batean, taka!! Kukurrukua bota. Gau-erdiko Mezatan botako al zenuke?

APALLU.—Bota ez?

EZTI.—Bai? Au poza.

APALLU.—Bai nai badek: naidekan beste kukurruku bota ere.

EZTI.—Ederki. Ea, orduan, berriz botatzen dezun. Bota!

APALLU.—Kukurrukuuuuuu!!!

EZTI.—Ederki, baña, lengoa bezin ondo ez. Apur bat luxetxoago bota bear dezu. Bota zazu berriz: bota!

APALLU.—Kukurrukuuuuuu!!!

EZTI.—*(Poz-pozez.)* Kukurrukuuuuuu!!!! Bikaiñ, Apallu.

APALLU.—Eta, Erretore jaunak utziko al dizkigu kukurrukuak botatzen eleizan?

EZTI.—Utziko eztizkigu ba? Ollarraren Mezatan, kukurrukua naita-naiezkoa da; bestela elitzateke ollarraren meza izango.

APALLU.—Orrela badek, konponduko aiz jaun Erretorarekin.

EZTI.—Bai, bai; ezazu kezkarik izan. Eta, orain, mutiko ta guzti saio txiki bat. *(Goxotegikoai ots-egiñaz.)* Mutillak!! Irten kalera.

ABESLARIAK.—*(Sei mutil koskor agertuko dira. Goxotegian Ezti'ren ixilik azukre edo beste gosokiak janaz ibili diran bezela, beren ezpañak igurtziz eta Ezti'ri arpegi emateko bildurrez, eskutuka ta noizik beinka jendeak ikusteko eran goxoak janaz.)*

EZTI.—Len asiera eman diogun "Gloria" abestu bear degu. Ondo baña abestu e? Gaurko Ollarraren-Meza, egundoko meza izan bear du. Nik apaizaren ordez lenengo "Gloria" botako det eta gero zuk, Apallu, bota kukurrukua. Ea, ba, nola asiera ematen diogun. *(Besoak zabalduaz.)* "Gloria in excelsis Deo".

APALLU.—Kukurru... *(Oso parregarri bota ezinda geratzen da.)*
ABESLARIAK.—*(Sekulako ixkamillaz parrez ekitzen diote.)*
EZTI.—*(Arriturik.)* Zer gertatu zaizu?
APALLU.—Kukurrukua botatzen asi ta kukurrukuak irten. Baña ez adi estutu. Ollarraren Mezatara, kukurruku botatzeko eran joango nak eta ollarrik onenak bezin kukurruko zolia botako diat.
EZTI.—Bajaundeizula!
MUTIKO 1.º—Kukurrukoaz eztaukagu guk emen ezer; goxoak bear ditugu orain.
MUTIKO 2.º—Bai, goxoak.
EZTI.—Gero: emendik orduerdi barru etorri zaitezte, ta egiñak izango ditut.
MUTIKO 3.º—Gezurrik ez gero?
EZTI.—Ez, mutil, ez. Oraiñartekorik goxoenak egingo dizkitzuet. Nere kontu.
MUTIKO 2.º—Baguaz orduan.
MUTIKO 3.º—Emen gera aurki. *(Joaten dira.)*

BOSGARREN AGERALDIA

APALLU ta EZTI

EZTI.—*(Bere eskuak igurtziaz.)* Biar, eguarri eguna. Aukerakoa.
APALLU.—Zertarako?
EZTI.—Edozertarako.
APALLU.—Eztek ori erantzun egokia.
EZTI.—Zergatik ez?
APALLU.—Etzekiat, baña, zerbait ire artekoren bat badabilkik.
EZTI.—Biar jakingo dek.
APALLU.—Eta gaur, zergatik ez? Gonak al dituk orain ere?
EZTI.—*(Abestuaz.)* "Atera bearko dezu gona zar oriiiii..."
APALLU.—Pantxika Lanpernax'i abestu bear al diok?
EZTI.—*(Isekazko parrez.)* Ja, ja, ja...! Pantxika Lanpernax'i nik abestu?
APALLU.—Zergatik ez? Ondo emakume bikain askoa zeok.
EZTI.—Ja, ja, ja...!! Pantxika Lanpernax'i nik abestu? Aurrerakorik!
APALLU.—Orain izango al dituk. Arekin ere, bein baño geiagotan ikusi aut.
EZTI.—Eztizut ukatzen; orain ordea... Enijoakizu esatera.
APALLU.—Ez, nai ezpadidak; baña, bazekiat. Kaskar berotzalle berria dek orain.
EZTI.—Nor?
APALLU.—Nor izango dek? Or aurrean bizi dan neskamea.
EZTI.—Nola dakizu? Berak esan al dizu zerbait? Au poza!

APALLU.—*(Albora begiratuaz irri-parrez.)* Bai.
EZTI.—Eta, zer esan dizu? Zer?
APALLU.—Zera... *(Asma ezinda.)* Zera...
EZTI.—Emakume egokia da gero?
APALLU.—Lanpernax exkaxago eztek.
EZTI.—Zaude ixilik. Lanpernax, Mari-Domingi'ren abarketa txistanak askatzeko aña ere ezta.
APALLU.—Mari-Domingi al dik izena?
EZTI.—Egokia: biarko egunari dagokiona. *(Abestuaz.)* "Orra Mari-Domingi, begira orri..."
APALLU.—Lanpernax gajoa! Ederra egin bear diok!
EZTI.—Zer naidezu? Biotzaren gora-berak dira auek. Lanpernax, arrantzale batentzako egokia da; neretzat ez. Lanpernax'ek eztaki arrantzako gora-berak besterik: arraiak saldu, tretzak beitatu, otarrak garbitu, trein edo sareak josi, ta norbaitekin aserratzen bada, atzekoaz aurrera gauzak esan eta egiten.
APALLU.—Mari-Domingi edo dan alako orrek ere zer besterik jakin lezakek? Aida, Apala! O, Arrio! ta onelakoak.
EZTI.—Ja, ja, ja...!! Bai zera! Eztituzu aren itz goxo ta egokiak zuk entzun. Etzenuke bestela ori esango. Aundizkien etxetan neskame diranak, "señoriten" tankera bera artzen dute. Nere goxotegirako aukerako etxekoandrea, Mari-Domingi.
APALLU.—Ataun mikeletea ere, neskame orren ondoren dabillela uste diat.
EZTI.—Ataun, Mari-Domingi'ren ondoren? Ja, ja, ja...!! Zezenak ere gorroto dioten praka gorriduna Mari-Domingi'ren ondoren? Ederki eman ere!
APALLU.—Zergatik ez?
EZTI.—Ez, Apallu, ez. Ataun'entzat ezta izango Mari-Domingirik.
APALLU.—Etzekiat ba. Mur-mur-mur or ikusten dizkiat beintzat.
EZTI.—Nundik ateratako mu-murrak Ataunek? Zergak biltzen besterik ezpadaki? Nik ordea, olerkiz, goxo-goxo, mandatu ere egingo diot:

Bidezkari nazu,
loretxo gurgarri!
eguzki galdatan,
maitasun egarri;
intzaren tantoa
zugan det iturri,
biotz onez, arren,
emaidazu neri.

APALLU.—Nondik atera dek orren olerki dotorea?
EZTI.—*(Bere burua erakutsiaz.)* Emendik, Apallu.

APALLU.—Enikan esango orren azkarra intzanik.
EZTI.—*(Pozez.)* Ez, e?
APALLU.—Ez, txo!
EZTI.—Banua barrena ea zerbait gertatzen detan.

(Joaten da. Goxotegira.)

APALLU.—Ni ere bai.

(Amu batzuek bildu ta bizartegira joaten da.)

SEIGARREN AGERALDIA

ATAUN eta MARI-DOMINGI

(Nexkatoen Gabon-abestiak etzungo dira an inguruko etxetan eskatu dirala. Etzungo dan abestia:)

"Jesús, María,
María, Jesús,
Jesús, María."

Izarra bularrian,
Semia sabelian,
A zer donzella ederra,
Itxasoaren erdian.

Jesús, María,
María, Jesús,
Jesús, María.

Izarrak ertetzen du
Odeiaren atzetik;
Baita Semiak ere
Amaren sabeletik.

Jesús, María,
María, Jesús,
Jesús, María.

Jaio da, jaio-jaio,
Au dala jaiotzia,
Semia eginda gero,
María dontzellia.

Jesús, María,
María, Jesús,
Jesús, María.

ATAUN.—*(Lenengo bertsoa abeste dutenean agertuko da, batera ta bestera ibilliaz* MARI-DOMINGI *agertu arte.)*

MARI-DOMINGI.—*(Irugarren bertsoa bukatzen danean agertuko da,* DON PELLO'*ren etxetik. Aurreko jantzi-zuriz eta maleta bat eskuan duala.)* Agur, Ataun.

ATAUN.—*(Oso alai.)* Arratsalde on, Mari-Domingi! Igesi altzuaz?

MARI-DOMINGI.—Ez, Ataun. Nere nagusi-etxekoandreak dira, Tolosa'ra dijoazenak.

ATAUN.—Eguarriak igarotzera, noski?

MARI-DOMINGI.—Igarri diozu.

ATAUN.—Eta zuk, ez al dezu joateko asmorik?

MARI-DOMINGI.—Badet asmoa; Tolosa'ra ez ordea.

ATAUN.—Nora joateko asmotan zera?

MARI-DOMINGI.—Nere jaiotetxera: Amitx basarrira.

ATAUN.—Urruti al dago?

MARI-DOMINGI.—Ez ain urruti. Ordu ta erdian aixa iritxi diteke. Joango al ziñake?

ATAUN.—Nora, basarrira?

MARI-DOMINGI.—Bai. Zuretzat aña janari badegu-ta, tokia ere bai.

ATAUN.—Nere pozik aundiena litzake. Badakizu, Ataun'a joaterik eztet eta, emen, kalean, ostatuko bakartadea ezta atsegingarri izaten Gabon-Jaietan.

MARI-DOMINGI.—Egia. Gizon bakarra ere motza izaten da munduan.

ATAUN.—Ain motza eze.

MARI-DOMINGI.—Zerbait pentsatu bearra daukazu orduan.

ATAUN.—Aspaldi pentsatua det; ezin jarraitu izango det onela.

MARI-DOMINGI.—Ez bear beintzat. Ataun aldean ere, neska gazte lirañak badira-ta.

ATAUN.—Praka-gorri zaleak eztituzu Ataun'go neskak.

MARI-DOMINGI.—Ondo jantzi dotorea da mikeletearena.

ATAUN.—Uste det.

MARI-DOMINGI.—Baita nik ere.

ATAUN.—Eta zure gurasoak orrela uste al dute?

MARI-DOMINGI.—Eztirate iñoiz ezetzik esan.

ATAUN.—Joango ote naiz ba?

MARI-DOMINGI.—Zuk nai badezu?

ATAUN.—Zurekin joatekotan bai.

MARI-DOMINGI.—Joatekotan... nerekin joan bear izango dezu. Basarrirako biderik eztakizu, ta lagunik ere ez an.

ATAUN.—*(Pozez.)* Ta nik zu izan laguna.
MARI-DOMINGI.—*(Irriparrez.)* Laguna ta...
ATAUN.—Zerbait geiago ere bai, ezta, Mari-Domingi?
MARI-DOMINGI.—Orrela uste det nik.
ATAUN.—Orrelaxe da izan ere. Lagunduko dizut geltokiraño.

(Joaten dira.)

ZAZPIGARREN AGERALDIA

Neska GABON-ESKALEAK eta DON PELLO ta DAMA JUSTA

(Poxpolin buru dutela seiko nexka taldea agertuko de lenengo eskui aldetik. Euskel jantziz eta lau lagunen arte, Jesus'en-Jaiotza txaboltxoa dakartela. Era berean, DON PELLO *ta* DAMA JUSTA *beren etxetik atera ta aurrez-aurre ikusten dira nexka taldeaz.)*

POXPOLIN.—Asi gaitezen.
ESKALEAK.—*(Abesten asten dira.)*

Belen'go portalean
Arbola eder bi:
Bata laranja eta
Bestea madari.
Iriki zazu bada
Kurtiña eder ori,

(Txaboltxoax duan kurtiña zabaltzen dute.)

Ikusi daigun bada
Gure Jesus ori.

DON PELLO.—*(Txabol barnera begira.)* Oso polliki eratuta daukazute Jaiotza.
DAMA JUSTA.—*(Onek ere begiratu ondoren txabolara.)* Oso ederki, oso ederki.
POXPOLIN.—"Aingeruak esan."
ESKALEAN.—*(Abesten dute.)*

"Aingeruak esandu
Or mendi gañean
Jesús jaio zaigula
Belengo estalpean:
Gloria Zeruan ta
Pakea Lurrean
Borondate oneko

Gizonen artean.
A zer konsuelua
Guk orain daukagun
Jaungoikoaren Semea
Etorri da lagun.
Erakutsiko digu
Zer egin biegun,
Beraren alabantzan
Kantatu dezagun."

DON PELLO.—Ederki. Naikoa dezute. Nor dezute diru-zain?
POXPOLIN.—*(Bat erakutsiaz.)* Ori, jauna.
DON PELLO.—*(Dirua emanaz.)* Ona nere oparitxoa, Jesus-Aurtxoaren izenean.
GUZIAK.—Eskerrik asko.
DAMA JUSTA.—Ni gaztetxoa nintzala abesten genitugun bertso banakak badakizkit oraindik ba? Eztakit zuek jakingo dituzuten. Onelaxe asten zan bat: "Gizonak bentanara nekez urtetzen."
POXPOLIN.—Badakizkigu guk ere. Ara:
ESKALEAK.—*(Abestuaz.)*

"Gizonak bentanara nekez urtetzean.
—Zer darabiltzue emen gauaren erdian?

—Dontzella bat dakarkit nerekin batean,
Semea daukala bere sabelean.

—Dontzella ta semea nola izan liteke?
enbustero faltsuak emendik zoazte.

DON PELLO.—Ederki. Naikoa dezute.
DAMA JUSTA.—Oso ederki, oso ederki, gazte maiteok. Jarrai onelaxe gure oitura zarrari jarraitzen. Zuen abestiak, otoitzak dira. Eta zuek, atez-ate onela ikustean, Joxe ta Maria ere, onelaxe aterikate ibilli zirala munduari agertzen diozute. Zoazte bada, Jesus-Aurtxoak ekarri zigun Pakearen berria zabaltzen.
ESKALEAK.—Eskerrik-asko. *(Joaten dira.)*
EMAKUME BAT.—*(Barruan.)* Poxpolin!! Poxpolin!! Atoz. Beriala joango zera.

ZORTZIGARREN AGERALDIA

DON PELLO ta DAMA JUSTA

DAMA JUSTA.—Ez al diozu Apallu'ri agurrik egin bear?
DON PELLO.—Beste urtetan egiten diot eta, aurten ere nai nuke.

DAMA JUSTA.—Zoaz, orduan, bitartean goxo batzuek erosiko ditut nik.
DON PELLO.—Ederki asmatua.

(DON PELLO *bizartegira ta* DAMA JUSTA *Goxotegira sartzen dira.)*

BEDERATZIGARREN AGERALDIA

POXPOLIN, LANPERNAX, KUKUTXA ta DON PELLO, DAMA JUSTA, EZTI ta APALLU

(LANPERNAX *kale batetik eta* POXPOLIN *beste aldetik agertzen dira.)*

LANPERNAX.—Nora ua bonbil orregaz?
POXPOLIN.—*(Eskuetan duan bonbillari begiratuaz oso apal.)* Sagardota.
LANPERNAX.—Norentzat?
POXPOLIN.—Kontxa Maketarentzat.
LANPERNAX.—Kontxa Maketarentzat i sagardota? Ez al den etxean entzuten eztegula besteen edari mandaturik egiterik nai?
POXPOLIN.—Bai. Nik ere adierazi diot ori; baña...
LANPERNAX.—Bai, e? Etzaitu geiago bialiko: gaurkoa izango den azkena. Ua, ta erosi zan sagardoa.
POXPOLIN.—*(Sagardotegira sartzen da.)*
LANPERNAX.—*(Oso urduri batera ta bestera ta bere artean izketan.)* Gaurkoan bukatuko dira, bai, orren besteentzako edari mandatuak. Bai, gaur bertan: oraintxe. Ni txarra izango naiz gero, baña, egin bear detana egin gabe ez naiz geldituko gaur. Ez, ez ta ez!
POXPOLIN.—*(Sagardotegitikan irtetzen du.)*
LANPERNAX.—*(Oso aserre Poxpolingana joan eta bonbilla kenduaz.)* Eta orain, auxe!!

(Indar guziz arrikadan botatzen du barrengo kale aldera„ izugarrizko otsa ateriaz.)

POXPOLIN.—*(Erdi-negarrez eta arriturik.)* Izeba, zer egin dezu?
LANPERNAX.—Zer egin detan? Bonbilla sagardoz betea arrikadan bota. Jakin dezatela, etzala gurea.

(Bitarte ontan, sagardotegitik KUKUTXA *agertzen da,* DAMA JUSTA *ta* EZTI, *goxotegitik eta* DON PELLO *ta* APALLU *bizartegitik.* APALLU, *bizarkentzallearen jantzi zuriz agertuko da oraingo ontan.* EZTI, *berriz, aurreko*

mantalaz eta ontzi batean duan morokil zuriari eragiñaz. Guziak arriturik entzungo diote LANPERNAX'*i.)*

LANPERNAX.—*(Besoak jaso ta oso bizi guziai adierazi nairik.)* Bai! Irten guziok! Neu izan naiz: Pantxika Lanpernax'eneko, bonbil sagardo betea arrikadan bota ta autsi detana. Baña, entzun ondo: Gurea etzan bonbilla. Bonbilla. *(Barrengo goi aldera erakutsiz.)* Or goian, kukuaren antzera; agertu-ezkuta egin duan "señora eder" orrena zan. Ez omendu edaten orrek gero? Eztaukanean, ez.

KUKUTXA.—Emakumea, erri guzia entzuten daukazu-ta, mezedez ixildu zaite.

LANPERNAX.—Ixildu ni, e? Eta zergatik ixildu bear det? Ez ote daukagu guk gure izen ona zaindutzeko eskubiderik? Edo-ta, besteen erruak guri erantsitzea nai al dezu zuk ere?

KUKUTXA.—Eztizut nik gaizki bearrez esan.

LANPERNAX.—Ixildu zaite, orduan; nik badakit zer esaten detan-eta. *(Len agertu diran* KUKUTXA, DON PELLO, APALLU, EZTI *ta* DAMA JUSTA, *irten duten tokietara sartzen dira.)* Besterik eztute nai, batzuek, ni ixiltzea, gero gona barrenak berdintzen ibiltzeko. Baña, gaur ere, gurean baño Gabon-kanta gutxiago kantatu arren, ixilik egingo dutenak izango dira. Ua, orain, etxera.

POXPOLIN.—Eskean nenbillen.

LANPERNAX.—Eskera orduan. *(Joaten dira biak.)*

AMARGARREN AGERALDIA

DON PELLO, APALLU, DAMA JUSTA ta EZTI

(DON PELLO *ta* APALLU *bizartegitik irtenaz.)*

DON PELLO.—Tori! *(Eskupekoa emanaz.)* Umeentzat turroi pixkat eramateko.

APALLU.—*(Artuaz.)* Eskerrikasko.

DON PELLO.—Eta Eguarri zoriontsu izan dezazutela.

APALLU.—Berdin zuek ere.

DON PELLO.—Agur, ba.

APALLU.—Agur, bai; eta ondo joan.

DON PELLO.—Eskerrikasko. *(Goxotegi aldera joaten da.)*

APALLU.—*(Bizartegira sartzen da.)*

DON PELLO.—*(Goxotegiruntz dei egiñik.)* Ba al gera?

DAMA JUSTA.—*(Barrendik.)* Bai, bai; berialaxe naiz.

DON PELLO.—Ea, ba, geltokirako bidea artzen degun, bultzia gure zai eztegu eukiko- ta.

DAMA JUSTA.—*(Irtenaz ta eskuetan pakete txiki bat duala.)* Ondo dago. Utzi zaiozu.

EZTI.—*(Atera agertuaz.)* Zuk nai dezun bezela.

DON PELLO.—Agur, Ezti. Eguarri zoriontsu.

EZTI.—Agur, agur; berdin zuek ere.

DON PELLO.—Zu, Ezti. Gu ta Mari-Domingi etxean ezkera ta nŏrbait etorriko balitz guretzat Gabon-erregaluak ekartzera, artu zaizkiozu, mesedez.

EZTI.—Bai, bai; nere kontu.

DON PELLO.—Eskerrikasko. *(Joaten dira.)*

EZTI.—*(Irri-parrez.)* Ea, ea, beren etxerako egin naute. Mari-Domingi'k zerbait nerekiko esan-edo. *(Goxotegira joaten dana.)*

AMAIKAGARREN AGÉRALDIA

KOIPE ta OLENTZARO-TALDEKOAK

(Ogei bat mutil gazte pelota jokoa ikustetik sagardotegira zuzenduko dira. KOIPE *ere auen artean agertuko da. Pelota jokoan gertatutakoen gora-beren elkar-izketa dakarte guziak. Elkar izketa au, bakoitzaren esan gogora uzten det euskaldunok pelota-jokoaren berri dakigunez. Jokalarien izenak: Keleo, Kalamax, Akeliño ta Kotxorro.)*

APALLU.—*(Bizartegiko atera agertuaz.)* Txo, nortzuk irabazi dute?

BATEK.—Keleok eta Kalamaxek. Ogeitabatean enbanatuta gero.

KOIPE.—*(Apallugana urreratuaz.)* Etzeok Keleoañakorik! Itxasora joateri utzi ta pelotan zeukak ogia orrek.

APALLU.—Izan ere, mutil makatsa zeok ori.

KOIPE.—Dagoan ba. Bixiguak edo zerbaitek indarra ematen ziok.

APALLU.—Izan ere, bixigua baño arrai oberik etzeok, egon ere. Gaurko nere bixiguak ere indar ederra emango ziak. Kukurruku ederrak botatzeko natxiok gaur.

KOIPE.—Ik gaur? Baita nik biar. Lenengo nere ollarrak botako dizkik plazaren erdian eta nik, Kukutxa'neko sagardotegian, Maturro'ri irabazitako ollarra jatean.

APALLU.—Ollarrari lumak pixkat ebakitzerik ez al dek nai?

KOIPE.—Ollarrari lumak ebaki?

APALLU.—Jokoko ollar antzean jarri besterik ez. Mutikoren batez bialtzen badiak, moztuko ziozkat. Astia oraintxe zeukat.

KOIPE.—Baniak eta beriala bialiko diat.

APALLU.—Pixkor ibili adi.

KOIPE.—*(Dijoala.)* Bai, bai.

APALLU.—*(Bizartegira sartzen da.)*

PERU ta MARIXA

MARIXA.—*(Basarritar jantzian, bere buruko pañuelo ta guzti. Besotik zintzilik eramaten dan otarra beltza dakarki. Oso aserre ta atzera begiraka.)* Mugitu adi, gizona: mugitu.

PERU.—*(Bere blus-beltza, abarka ta eskuko makilla duela.)* Emakumea...

MARIXA.—Ezta arri alperra baintz ere. Teinkadaka ibilli bear beti. Ordu guztiak berdiñak izatea ere beti.

PERU.—Bakerik ez ote diñagu bear? Gabon-eguna, pake eguna den ba?

MARIXA.—Ederki esango ziguk. Ordu ederrian dakarkigula Gabon-erregalua.

PERU.—Ortaz ez adi estutu. Artzea danean, beti izaten den ordu ona.

MARIXA.—Bai ik uste.

PERU.—Ikusiko den. *(Jotzen du tinbrea.)*

MARIXA.—Etzekiat iñor arkituko degun.

PERU.—Psa...! Berentzat kalte.

MARIXA.—Eta, guretzat ere bai.

PERU.—*(Jotzen du tinbrea berriz ere.)*

MARIXA.—Auxe bear genukek orain; iñor ez arkitzea. Eta guzia, pixkabat lentxiago etxetik ez irtetzearren.

PERU.—Ea, ba, zer egingo degun. Abereentzako bazka egin gabe ezingo giñan etorri.

MARIXA.—Zergatik ez? Utzi egin bear danean, utzi egin bear dek. Ago orain, datorren urteko Gabonak arte.

PERU.—Datorren urteko Gabonak arte emen, ate onduan?

MARIXA.—Baita zerean ere.

PERU.—Etzekiñat ba.

MARIXA.—Buru ori geiago askatzen ezpadek eztek jakingo asko, ez. Urte guzian egun onen zai egon eta auxe azkenean.

PERU.—*(Irri-parrez.)* Nagusiaren etxeko txokolatea jan gabe itzuli bear etxera, nere emaztetxoa.

MARIXA.—Etzeukat mariatzeko gogorik.

PERU.—Txokolatea artzekoa bai, noski.

MARIXA.—Txokolatea naikoa izango diagu aurtengo neguan, erretellarik ezpaziguk egiten.

PERU.—*(Konturatuaz.)* Aaaa! Errazoia den. Enitunan gogoratzen.

MARIXA.—Ordua uan ba, kaskar ori askatzeko. Ea noiz izango degun berriz nagusiarekin itz egiteko aukera.

PERU.—Jaiak igarotakoan etorri bear berriz.

MARIXA.—Eta kapoia?
PERU.—Gurekin etxera eramatea berriz.
MARIXA.—Etxera? Ez, ez, ez; len ere naikoa kosta zaiguk eta eniak ni berriz kastorik egitera.
PERU.—Eta erretilla?
MARIXA.—Bai naibadik! Iru-lau egun auetan kapoi onek jan dizkigunak jan eta nik berriz etxera eraman? Ez, ez, ez; etzeukat bildur aundirik.
PERU.—Ezti'ri edo, Apallu'ri utzi bearko dizkiogu.
MARIXA.—Eniak ni beintzat, kapoirik etxera eramatera, iltze bat gertare. Ezti ordan begira zak.
PERU.—*(Goxotegiko ate aurrera joanaz.)* Ezti! Ezti!

AMAIRUGARREN AGERALDIA

Lengoak eta EZTI

EZTI.—*(Barrendik.)* Bai... *(Agertuaz.)* Zer da, jaunak? Zer dakartzute?
PERU.—Ona...
EZTI.—Aaaa...! Bai, bai, bai. Pello jaunaren maisterrak zuek, e?
PERU.—Bai, ba; ta kapoi bat dakarkiogu.
EZTI.—Ederki. Nik artuko dizutet. Nunbait zai egon dira-ta...
MARIXA.—Gure zai?
EZTI.—Zuen zai edo. Norbait Gabon-erregaluagaz agertzen bada ta eurak etxean ez, mesedez nik artzeko agindu dirate.
PERU.—Ea, Marixa, eman akion.
MARIXA.—*(Otarra zabaldu ta kapoi eder bat artu ta* EZTI*'ri ematen dio.)* Badakit Don Pello'ri kapoi ederragorik ekarri eztiotena.
EZTI.—*(Kapiari begiratuaz.)* Ederra da bai.
MARIXA.—Ondo guri kostatako kapoia da berori.
EZTI.—Beronek du ezagun, etxeko andre piña izan duena.
MARIXA.—Piña edo, piña izan bearra daukagu, basarria aurrera aterako bada.
EZTI.—Utzi ba nere kontu.
PERU.—Eskerrikasko.
EZTI.—Eztago zerengatik. *(Goxotegira joaten da.)*

AMALAUGARREN AGERALDIA

PERU ta MARIXA

MARIXA.—Eta orain zer?
PERU.—Neronek ere ori galdetzen diñat.

MARIXA.—Kapoia utzi, tellaturik jarriko diġunik jakin ez, ta txokolatea gure gain artzea ere, eztek joko egokia.
PERU.—Ezten, ez, egokia; baña, Gabon-egunari berea ez ematea ere...
MARIXA.—Ontaz gero itz egingo diagu. Baniak gure esne bezeroari txerriki auek eramatera. Nun arkituko gaituk gero?
PERU.—Emen bertan edo sagardotegian.
MARIXA.—Enazak zai iduki, e?
PERU.—Ez, ez, ez. Goiz etxeratu bear degu.

(PERU *sagardotegira ta* MARIXA *kalean zear joaten dira.)*

AMABOSTGARREN AGERALDIA

OLENTZERO-TALDEA

(Pelota tokitik sagardotegira igaro diranak dira OLENTZERO-TALDEA *osatzen dutenak. Auek, sagardotegitik irtengo dute. Euskel jantziz danak, batzuek, basarriko erara, besteak arrantzale ta abar. Angallan artuta, euretako bat, arpegi beltzez eta pipa ortzean duela:*
"Olentzero."

(Abestia.)

"Orra, orra, gure Olentzero,
Pipa ortzian duela exerita dago.
Kapoiak ere baditu arrautzatxuakin
Biar merendatzeko botilla ardoakin.
Kin, kin

Olentzero joan zaigu
Mendira lanera
Aixkora zoroztuta
Ikatza egitera.
Aditu duanian
Jesus jaio dala
Laisterka etorri da
Berria ematera.
Orra, orra...

Olentzero guria
Ezin degu ase
Bakarrik jan diżkigu
Amar txerri gazte.

Saieski ta solomo
Makiña bat este
Jesus jaio dalako
Konsola zaitezte.
Orra, orra...

Artzai buru zuri bi
Anton eta Peru
Belengo estalpera
Etorri zaizkigu.
Sartu dira barrena
Manueltxogana
Ta eskeñi diote
Arkumetxo bana.

Artzaiak datoz salto ta brinko
Mendian barrena
Jesus adoratzera
Al dan lasterrena.
Alaitu ta poztu gaitezen
Gaurko gauarekin
Gure Jesus onaren
Etorrerarekin.

Alegratu gaitezen
Gaurko gauarekin
Gure Jesus onaren
Etorrerarekin

Belengo estalpean
Negu gogorrian
Jaio da gure Jesus
Askatxo batean.
Astua ta idia
Dauzka aldamenean
Arnasaz berotzeko
oztutzen danean.

Alaitu ta...
Alegratu...

Olentzero begi gorri,
Nun arrapadudek arrai ori?
Zurriolako arkaitzetan
Bart arratseko amaiketan.

(Bertsoa berau jarraitzen du beste musikaz.)

Edurra tellatuan
Zakua lepuan
Ibilli bearko degu
Aurtengo neguan.

Rau, rau, rau,
Rakata plau.
Au dek umoria
Utzia alde batera
Euskaldun jendea.

(Abesti onek guztiok bata bestearen ondoren abesten dituzte. Eta gero, berriro: "Orra, orra Olentzero" asiaz kalez-kale joango dira.)

AMASEIGARREN AGERALDIA

Apallu ta Ezti

Apallu.—*(Bixigua eskuan duala bizartegitik irten eta goxotegiko ate ondora joan da.)* Kukurrukuuuuu!!!

Ezti.—*(Barrutik erantzunaz.)* Kukurrukuuuuu!!! *(Atera irtenaz.)* Zer dezu?

Apallu.—Beriala netorrek eta bitartean bizartegiari kontu egin akiok. Eta *(bixigua emanaz)* mutiko batez bixigu au bialdu zak gure etxera, aparitarako dala esanaz.

Ezti.—Nora zuaz, baña, orren larri?

Apallu.—Gero erantzungo diat. *(Dijoala.)* Bixigua bialtzea ez adi aztu gero?

Ezti.—Ez, gizona, ez. *(Bixiguari begira.)* I ta ni baño azkarra dek Apallu. Orain ere berak eramango zian bere artekoren bat.

(Goxotegira joaten da.)

AMAZAZPIGARREN AGERALDIA

Gabon-Eskaleak

(Emen agertuko diranak, mutikoak dira: Kapux, Kaxku *ta* Kakax, *sagar, madari, okaran, laranja ta beste igali onak nongo sälletan däuden "kontua" eramaten dituzten orietarikoak. Praka luzez jantzirik irurak. Kakax'ek eta Kaxku'k, almoada-azal bana bizkarrean, Gabon-*

eskean bildutakoak aretan dituztela. Kapux'ek sakelean artzen ditu eta guztiak beteta agiri ditu. Mauka-mauka sagar jaten agertuko dira irurak.)

KAKAX.—Don Pello'ri kantako diogu.
KAPUX.—Ez, txo.
KAKAX.—Zergatik ez?
KAXKU.—Lengoko arratsaldekoagatik? Aztuta zeukatek onezkero.
KAPUX.—Aztuta, txo? Ederra dek ba, berdela, neskame sorgin ori, onen aguro aztutzeko.
KAKAX.—Zerbait gertatu altzazuen?
KAPUX.—I ez al intzan gurekin?
KAKAX.—Noiz, gero?
KAXKU.—Au etzian. Eskola joan uan, maixu egitera.
KAKAX.—Eztek egia.
KAXKU.—Non izan intzan ba?
KAKAX.—Ikastolan ez beintzat; illabete ontan ikastola igesi nebillek-eta.
KAPUX.—Esango diat. Joan geituan laranja lapurreta ta arbola gañean, kolkokada laranja naukala, sorgin antzean agertu etzitzaidaken ba, bere eskobakerten aundiz, ni jotzeko ustez?
KAKAX.—*(Parrez.)* Eztek egia Eta ezer egin zikan?
KAPUX.—Egin nai bai, utzi banion. Arbola gañetik asi niñukan kolkoan nizkikan laranjak arrikadan berari botatzen eta, ilko ezpazan, etxera ospa-egin bear izan zikan.
KAKAX.—*(Parrez.)* Sekula olakorik! Gogorra aiz, Kapux.
KAXKU.—Guazen kantaz astera ta neskamea etortzen bazaigu ez ematea egingo ziguk geienaz ere.

(Ate aurrera joan eta kantaz asten dira:)

"Gabon-gabontzeta
Errosa galtzeta
Aurra jaio da ta
Jo daigun krixketa.

Aire miramor, aire miramor.
Larrosa enkarnada.
Aire miramor, aire miramor.

Etxetxiki onetan
Jo daigun atia,
Iriki, al badezu,
Ama-andre maitia.

Aire miramor, aire miramor,
Larrosa enkarnada.
Aire miramor, aire miramor.

KAPUX.—Naikoa diagu.
KAXKU.—Naikoa? Ez. Entzun bearko dizkitek beste onako au ere.
KAKAX.—Zeken oriek, merezi ere bazitek.

Etxe onetan lau ardi,
Laurak zortzi belarri,
Etxe onetako etxeko andriak
Topin beltza diruriiii!!

ATAUN.—*(Barrendik.)* Txotxo! *(Eskaleak iges-egiten dute.)*

EMEZORTZIGARREN AGERALDIA

ATAUN bakarrik

ATAUN.—*(Mutikoen ondoren datorren bezela agertu bear du. Lurrean,* KAPUX'*i igesi joatean zakeletan zitun laranjatatik jautzi ta dira. Bat artuaz.)* Ederki. Zuek izango zerate txori orientzat gardo-lorarik onenak. *(Agertu dan aldetik joango da.)*

EMERTZIGARREN AGERALDIA

POTXOLO ta EZTI

POTXOLO.—*(Ollar eder bat eskuetan duala bizartegiko ate aurrera joan eta deika.)* Apallu! Apallu!
EZTI.—*(Bizartegitik agertuaz.)* Zer bear diok? Apallu mandatura joan dek.
POTXOLO.—Ollar au emateko zan.
EZTI.—Ematea besterik ezpadek, nik emango zioat.
POTXOLO.—Zuk ematea berdin da. (EZTIRI *ematen dio ollarra.)*
EZTI.—*(Artuaz.)* Bai, bai; emango zioat.
POTXOLO.—Eskerrikasko.
EZTI.—*(Ollarrarekin goxotegira sartzen da.)*

OGEIGARREN AGERALDIA

POTXOLO ta gero ATAUN, MARI-DOMINGI, LANPERNAX, EZTI ta APALLU

POTXOLO.—*(Lurrean* KAPUX'*i jauzitako laranjak ikusi ta biltzen asten da.)*
ATAUN.—*(Ixil-ixilik atzeko aldetik joan eta* POTXOLO'*ri eltzen dio.)*

POTXOLO.—*(Larriturik.)* Ama! Ama!
ATAUN.—*(Barrenera deiez.)* Mari-Domingi, ona emen gure txoria.
MARI-DOMINGI.—*(Barrendik.)* Bai?
POTXOLO.—*(Negarrez.)* Eztet nik ezer egin. Eztek nik ezer egin.
MARI-DOMINGI.—(ATAUN *etorri dan aldetik agertuaz.)* Etzera makala eiztaria.
ATAUN.—Au altzan lengoneko zure txoria?
POTXOLO.—Nik eztet ezer egin. Amaaa!!! Amaaa!!!
MARI-DOMINGI.—Eztakit lengokoa au danik, baña, laranja oiek gure arbolakoak dirala esango nuke.
POTXOLO.—Eztet nik ezer gaizkirik egin.
ATAUN.—Ez? Eta laranja auek nundik arrapatu dituk?
POTXOLO.—Eztitut nik arrapatu; emen arkitu ditut.
MARI-DOMINGI.—Emen beaz, e?
ATAUN.—Zer egitea nai dezu, Mari-Domingi? Txoria kaiolan sartu ala azke utzi?
MARI-DOMINGI.—Arbolan kantatzen badaki; kaiolan kantatzen ikastea dauka orain.
ATAUN.—*(Eraman nairik.)* Guazen!
POTXOLO.—*(Indarrez atzera egiñaz.)* Ez, ez. Eztet nai. Ez, ez!
MARI-DOMINGI.—Eraman, eraman.
POTXOLO.—*(Karraxiz eta indar guziz alegiñak ez eramateko egin eta lurrera bere burua botatzen du.)*
ATAUN.—Baioneta aterako diat gero? Jaiki adi.
MARI-DOMINGI.—Eraman, eraman espetxera.
POTXOLO.—*Beti negarrez eta oso larri.)* Amaa! Amaa!
LANPERNAX.—*(Barrendik.)* Bixigu-bixiguaaa!
POTXOLO.—Izeko, Pantxikaa! Aguro. Aguro neregana! Izekoooo!
LANPERNAX.—*(Agertuaz eta* POTXOLO *lurrean negarrez ikustean bixigu otarra bazterrera utzi ta* ATAUN'*i egiten dion bultzadaz kendu ta* POTXOLO *laztanduaz.)* Zer dek? Zer egin dite? Zer, Potxolo?
POTXOLO.—*(Arnasaz bete ezinik.)* Ka-ka-kar...
ATAUN.—Kartzelara eraman bear det.
LANPERNAX.—Eztezu bizarrik zuk au kartzelara eramateko. Zer dala-ta, nere illoba kartzelara? Zer dala-ta?
MARI-DOMINGI.—Gure laranjak lapurtzen ditualako.
POTXOLO.—Ezta egia, izeko; ezta egia.
LANPERNAX.—Zuen laranja gabe dauka onek zer jana etxean, txaplata.
MARI-DOMINGI.—Ni txaplata?
LANPERNAX.—Bai, i.
ATAUN.—Ixo!!!
LANPERNAX.—Ixiltzea dauka orrek.

ATAUN.—Ixiltzeko esan dizut, bestela, illobaren ordez zeu sartuko zaitut.
LANPERNAX.—Ederki eman ere.
ATAUN.—Ederki edo gaizki.

(POTXOLO LANPERNAX'*endik askatu nairik asten da.)*

LANPERNAX.—Eztiozu oni ezer egingo.

(Gogor gordetzen du POTXOLO.)

ATAUN.—Utzi.
LANPERNAX.—Eztizut utziko.
ATAUN.—*(Beroturik.)* Biok sartuko zaituztet gero?
LANPERNAX.—Ikusiko degu.
MARI-DOMINGI.—Sartu, sartu; ez utzi.
LANPERNAX.—(POTXOLO *askatu ta igesi joaten uzten dio.)* Ua, ua; ua pixkor etxera.
ATAUN.—Nik jakingo det zer egin.
MARI-DOMINGI.—Ez pakean utzi.
LANPERNAX.—Eta i nor aiz, mikeleteari agintzeko?
MARI-DOMINGI.—*(Parrez.)* Ja, ja, ja.
LANPERNAX.—Ik neri parre egin. Zer uste den ire parregarri naizela? Enazan geiegi berotu ba; lendik ere ondo errea naukan eta.
MARI-DOMINGI.—*(Parrez.)* Ja, ja, ja...
LANPERNAX.—Ik neri parre?

(Amurruz joaten zaio MARI-DOMINGI'*ri ta illetatik eldu ta lurra jo arazitzen dio.)*

ATAUN.—Geldik.
MARI-DOMINGI.—Ai! ai!

(Ta aika jarraituko du lurrean sekulako garrantzia bere egoerari emanaz.)

ATAUN.—Pantxike, zer egin dezu?
LANPERNAX.—Parre egin dezala orain naiduanari. Berori da orain parregarri.
EZTI.—(MARI-DOMINGI'*ren ai!, dearretara goxotegitik irten eta* MARI-DOMINGI'*rengana joanaz.)* Zer dezu? *(Jasotzen asten da.)*
ATAUN.—*(Au ere jasotzen laguntzera joaten da.)*
LANPERNAX.—*(Burlazko begirunea egin da gero.)* Aitzeki ederra den orain, mutillak ire inguruan eukitzeko. *(Joaten da.)*

APALLU.—*(Agertuaz.)* Zer da? Zer gertatu zaio gure kaleko erregiñari?

MARI-DOMINGI.—*(Sekulako irudipenak egiñaz.)* Ai! Ai!

(APALLU'ren amu egiteko aulkira.)

APALLU.—Baña, zer du?

EZTI.—*(Soñean duan mantala kendu ta aizea emanaz asten zaio MARI-DOMINGI'ri.)*

APALLU.—Arrigarria auxe. Iñork eztidazute esaten zer gerta dan.

ATAUN.—Lanpernax'ek illetatik eldu ta lurrera bota duala.

APALLU

EZTI

.—Sekula olakorik!!

MARI-DOMINGI.—*(Onetan da garrantzi geioaz.)*

EZTI.—(ATAUN'*i.)* Eta zuk nola utzi diozu? Ni emen egondu izan banitz etzan au gertatuko. Ezta, Mari-Domingi?

ATAUN.—Ezta naikoa oni egin diona egin eta gero igesi joatea. Nik dakit zer egin ari. *(Joaten da.)*

MARI-DOMINGI.—Joan da?

EZTI.—Bai, biotza; joan da.

MARI-DOMINGI.—*(Jaikiaz eta ezer gerta ezpalitzaio bezela.)* Ezta ezer. Txima astindu bat besterik eztik egin. Espetxera daramala ta, kito.

APALLU.—Pixkat orraztera sartu zaitez. Orain eramaten dan erara neronek orraztuko zaitut.

MARI-DOMINGI.—Sartuko naiz ba. *(Sartzen da.)*

APALLU.—(EZTI'*ri.)* Ik, berriz, nere ate ondoan guardia egin ire erregiñari. *(Bizartegira joaten da.)*

OGEITABATGARREN AGERALDIA

EZTI ta APALLU

EZTI.—*(Bizartegiko ate zirrikitotik barrura begiraka asten da. Begiratu labur baten ondoren, atzeratu ta barnean ikusi duanaren iminzioak egingo ditu, au da: Illeak orraztu, autseztu, españak margoztu, ta abar jendeari par arazteko eran. Gero berriz ere ate zirrikitora.)*

APALLU.—(EZTI *zirrikitotik begira dala, atea bat-batean iriki ta puxikadun ontzitik usaidun ura botatzen dio fu! fu! egiñaz.)*

EZTI.—*(Larriturik atzeraka joango da.)*

APALLU.—*(Parrez algaraka berriro barrura.)*

EZTI.—*(Biotzera eskua eramanaz.)* Ai, nere biotz gaxoa! Lasatu adi. Eztek ezer.

OGEITABIGARREN AGERALDIA

EZTI, APALLU ta MARI-DOMINGI

APALLU.—*(Bizartegitik irtenaz.)* Begirakiok orain.
EZTI.—*(Zoragarritasunez.)* Nor degu au?
MARI-DOMINGI.—*(Bizartegitik irtenaz. Orrazkera xelebrea dakar eta arpegi ta ezpañak ere margoztuak. Irri-parrez* EZTI*'ri.)* Agur, Ezti; ona zure Erregiña.
APALLU.—Zer derizkiok orain?
EZTI.—Goiz alai batean, eguzki printzak soñuz aurretik dirala odeizko ateak irikiz agertzen dan eguzki zoragarria.
MARI-DOMINGI.—Eskerrikasko. Enekian orren yayotasuna zenunik izketarako.
APALLU.—Ezti da au gero.
MARI-DOMINGI.—Izenaren jabe da. Eta eskerrikasko biori, neri lagundu didazutelako.
APALLU.—Eztago zerengatik eskerrik eman.
EZTI.—Ez, ez. Ori baño geiago egiteko gertu naukazu.
MARI-DOMINGI.—Eskerrikasko berriz ere. Banoa orain.

(Etxera joaten da.)

EZTI.—Zuaz ondo.
APALLU.—Agur.

OGEITAIRUGARREN AGERALDIA

EZTI ta APALLU

EZTI.—*(Poz-pozez.)* Mari-Domingi laster nerea izango da. Bai, nerea. Igarri diot. Aren biotzaren jabe naiz. Au poza, Apallu; au poza.
APALLU.—Uuu... Etzekiat.
EZTI.—Bai, Apallu. Eztezu entzun "Ona zure Erregiña esaten"? Neri esan dit, neri.
APALLU.—Bai, baña.
EZTI.—Eztago emen bañarik. Mari-Domingi nik mandatua egiteko zai dago. Bai. Biar bertan entzungo du. Neretzat bai izango dala eguna biarkoa. Ondo egun zoragarria.
APALLU.—Nik, ba, lana egiteko zeukat oraindik eta barrura niak.

(Joaten da.)

EZTI.—Ni ere bai. *(Joaten da. Beriala basarritarrak eman dioten kapoia eskuetan duala* APALLU*'ri aren ate ondotik.)* Kukurrukuuuu!! Kukurrukuuuu!!

APALLU.—*(Agertuaz.)* Zer dek?

EZTI.—*(Kapoia emanaz.)* Zuri emateko esan eta utzi dit mutiko batek.

APALLU.—*(Kapoia artuaz.)* Ondo zeok. *(Barrura joaten da.)*

EZTI.—Ollar ederraren jabe egin zera.

(Zerbait gogoratu zaion bezela egiñaz goxotegira joan eta beriala ollarra eskuetan duala DON PELLO*'ren ate ondora joan eta tinbrea joten du.)*

OGEITALAUGARREN AGERALDIA

EZTI ta MARI-DOMINGI

MARI-DOMINGI.—*(Atera agertuaz.)* Zer dezu.

EZTI.—*(Ollarra emanaz.)* Zure nagusiaren maisterrak laga dirate kapoi eder au zuentzako.

MARI-DOMINGI.—*(Ollarra artuaz.)* Eskerrikasko. Kapoi onen zai nengoan.

EZTI.—Ona orain ba.

MARI-DOMINGI.—Tolosara biali bear diotet nagusiai, otarran sartuta.

EZTI.—Bizirik?

MARI-DOMINGI.—Bai, bai; bizirik. Nere nagusiak beste eginkizunik eztidate eman kapoi au artu bezin laster bialtzeko baño. Beren arrokeria au dute, nunbait: beren senide artean kapoia jatea.

EZTI.—Eztute nola naiko kapoia au.

MARI-DOMINGI.—Eztirudi. Banua ea, piskor-piskor gertatu ta bialtzen detan.

EZTI.—Agur, Mari-Domingi.

MARI-DOMINGI.—Agur.

OGEITABOSGARREN AGERALDIA

OLENTZERO-TALDEA

(Kalez-kale abesten ibilli ondoren berriz sagardotegira urreratzen datoz kantari. Abestia entzunaz batera, KUKUTXA *ta* PERU *sagardotegitik kalera irtengo dute abeslariei entzutera. Olentzero taldea, "Oraintxen" abesten agertuko dira.)*

Oraintxen da sasoia
Kapoiak iltzeko
Ederki lumatuta
Erreta jateko;
Ekarri zazu bada
Gizen-gizenena
Orretxek eukiko deu
Gustorik onena.

Guazen, guazen
guztiok Belen'a
Jeus adoratzera,
biotzak eskeintzera
Zeru eta lurreko
Erregiari.

KUKUTXA
PERU } —*(Txaloka artzen dituzte.)*

PERU.—Bajaundeizutela! Zuek zerate mutillak, zuek.

BATEK.—Egunari berea eman bear zaio.

PERU.—Ederki esana. Onelaxe eutsi bear diegu gure antziñako oiturai. Zer esango dutenai begira egon gabe, aurrera beti.

ARTETIK.—Ori, ori, Peru.

BATEK.—Sekulakorik onduen itz egin dezu.

ARTETIK.—Guk kantatu degu naikoa. Zuk kantatu bear zenuke orain.

GUZIAK.—Bai, bai.

ARTETIK.—Ea, bertso bat, Peru.

GUZIAK.—Bota, bota.

ARTETIK.—Ea, oraintxen, bertso eder bat.

BATEK.—Utzi, utzi, botako du-ta.

PERU.—*(Lurrera begira apurtxo baten egondu ondoren, lasai-lasai asiko da azkenara ta kartsuago joanaz. Kanta aldi batean botako duan bertsoa:)*

"Kezkaz beteta, ene maiteok,
nua bertsotan astera,
Aita onak lez bere semeai
konseju bat ematera:
Gaitz itsaskorrak menpean dauka
gure Ama on Euskera,
Oñaze biziz eraman nairik
mundu ontatik bestera.
Gaxoa, berriz, azken ordutan
arturik illen tankera,

arnasa estuz deika daukagu:
"Seme, seme...!! Ni atera!!"
Ez daiogun, ba, entzun-gor egin,
amaren seme bagera:
Guazen berriro gu beragana,
guazen guziok batera
Maitasunezko osakai bidez
zauri txar danak kentzera.

GUZIAK.—*(Txaloz eta bizkarrean joaz.)* Ederki, Peru, oso ederki.
BATEK.—Bertso orrek sagardoz basoa jasotzea merezi du.
ARTETIK.—Bai, bai; guazen barrura.
GUZIAK.—Guazen. *(Sagardotegira joaten dira guziak.)*

OGEITASEIGARREN AGERALDIA

MARI-DOMINGI ta EZTI

MARI-DOMINGI.—*(Arpegi guztia odoletan duala ta larri-larri atetik irten eta* EZTI*'ren gana.)* Ezti!!! Ezti!!! Aguro!
EZTI.—*(Arriturik.)* Zer dezu?
MARI-DOMINGI.—Aguro! Zatoz aguro!
EZTI.—Zer dezu. Zer gertatzen zaizu.
MARI-DOMINGI.—Eztakit.
EZTI.—Nork atzamarkatu zaitu? Au da arpegia.
MARI-DOMINGI.—Kapoiak.
EZTI.—Kapoiak?
MARI-DOMINGI.—Bai, zuk ekarri didazun kapoiak.
EZTI.—Nola baña?
MARI-DOMINGI.—Otarran sartzerakoan.
EZTI.—Ezin liteke.
MARI-DOMINGI.—Bai, baliteke. Inpernuko kapoia da. Impernukoa. Zatoz aguro il daigun.
EZTI.—Il?
MARI-DOMINGI.—Bai, il; aguro asko gañera.
EZTI.—Ta Tolosa'ra ilda bialduko aldezu?
MARI-DOMINGI.—Ni iltzea baño, kapoia iltzea obe da.
EZTI.—Orta bada, bai.
MARI-DOMINGI.—Zatoz, ba, aguro, iltzeko zerbait artuta
EZTI.—Aizkora artuko det.
MARI-DOMINGI.—Kañoiaz iltzen badezu ere berdin zait. Il beintzat inpernuko kapoi ori.
EZTI.—*(Goxotegira sartu ta irten beriela egingo du, aizkora eskuetan duala.)* Guazen.
MARI-DOMINGI.—(EZTI *aurrera bota ta biak bildurtu antzean sartzen dira.)*

OGEITAZAZPIGARREN AGERALDIA

KOIPE ta APALLU

APALLU.—(KAPOI *luma-moztu berria eskuesta damala kalera irten eta kapoiari.)* Kukurrukuuuuu!!! *(Kapoiak erantzuten eztuala ikusirik.)* Kukurrukuuu!!! Kukurrukuuuuu!!!
KOIPE.—*(Agertuaz.)* Zer dabilkik?
APALLU.—Ire ollarra probatzen zenbaterañokoa dan.
KOIPE.—Eta?
APALLU.—Onek eztik tuturik ere jotzen.
KOIPE.—Onek kukurrukurik eztuala jotzen? Ik esan ori neri?
APALLU.—Etzekiat iri erantzungo dikan, neri eztziak erantzun.
KOIPE.—Ago. Laster entzungo dek kukurruku bizi askoa. *(Kapoiaren aurrean jarriaz.)* Kukurrukuuuuu!!!
APALLU.—Ezta iri ere.
KOIPE.—Neri erantzun ez? *(Berriz.)* Kukurrukuuuuu!!
APALLU.—*(Parrez.)* Koipe geiegi alaxen eman diok.
KOIPE.—Lumak mozteak egin ezpadio ala ere.
APALLU.—Litekena dek.
KOIPE.—Bai, lumak mozteak egin ziok.
APALLU.—Etzeok ajolik. Biar jo dezala ta.
KOIPE.—Bai, joko dik, laster asko jo ere. Maturrok uste duan baño lenago. *(Parrez.)* Arek eraman bear duan ipurdikoa zeukat goguan.
APALLU.—*(Parrez.)* Eztik asko uste izango arek.
KOIPE.—*(Parrez.)* Ez, ez, ez, ez. Etorriko aiz aren ollarra jatera baña?
APALLU.—Bai. Nora?
KOIPE.—Ementxen, Kukutxanean jango diagu.
APALLU.—Ondo zeok.

OGEITAZORTZIGARREN AGERALDIA

KOIPE, APALLU, EZTI, MARI-DOMINGI, ELIZ-ABESLARIAK eta ATAUN

EZTI.—(DON PELLO'*ren etxetik irten eta* KOIPE *ta* APALLU'*rekin arkitzen da.)*
KOIPE.—Nundik abil, Ezti?
APALLU.—Eztek ikusi nundik irten duan?
KOIPE.—(EZTI'*k eskuetan duan aizkora ikustean.)* Gizon iltzetik ez baña?
EZTI.—Ez; kapoi iltzetik nator.

KOIPE.—*(Parrez.)* Aizkoraz kapoia il? Oraindik aundiagoak entzungo dizkiagu.
EZTI.—Etzazute uste, ondo kostata il degu. Ura kapoi deabruzkoa!
APALLU.—Nere bixigua bialdu aldek gure etxera?
EZTI.—*(Burura eskua eramanaz.)* Ai...!!
APALLU.—Zer, aztu?
EZTI.—Bai. Barkatu.
APALLU.—Barkatu esaten dek? Ederra jarriko dek nere emaztea. Goizo bialtzeko esan didatek eta.
EZTI.—Beriela ekarriko dizut. *(Joaten da.)*
KOIPE.—Ederra egin dik.
APALLU.—Or aurreko neskameaz txoratuta zebillek eta, burua galdu; orra.
EZTI.—*(Katuak lardaskatutako bixigua eskuetan duela.)* Apallu, Apallu.
APALLU.—*(Bixigua era artan ikustean.)* Zer dek au?
KOIPE.—*(Isekaz.)* Ja, ja, ja, jaaaaa!
APALLU.—Baña zer gerta zaiok? Au dek egitekoa egin dikakena! Agur, nere Gabonaparia!
EZTI.—Barkatu, Apallu; barkatu.
APALLU.—Aitaren eta Semearen. Aitaren eta Semearen. *(Egiñaz.)* Oraintxen galdu.
KOIPE.—*(Isekaz.)* Beitatu gabeko amuz bixiguak arrapatzen eztituk ba?
APALLU.—Ago ixilik. (EZTI*'ri aurrera joan besotatik elduaz.)* Baña, badakik zer egin dizkidaken?
EZTI.—*(Apal.)* Eztizut nik ezer egin.
APALLU.—Nork egin zidak ba, ik ezta?
EZTI.—Katuak.
KOIPE.—Ja, ja, ja, jaaaa. *(Parrez.)*
APALLU.—Katuak egin ditala esateko arpegia dek? Katuari esaiok ba, kukurruku egiteko elizan; nik eztiat egingo-ta.
EZTI.—Eztidazu orrelakorik egingo?
APALLU.—Egin ez nik? Gabon-apaitarako nekez lortutako bixigua katuari jaten utzi ta ni irekin joan kukurruku egitera? Ez, ez, ez. Alperrik izango dituk alperrenak, kukurrukurik elizan eztiat gaur gabean egingo nik. (EZTI*'ri eskuetan zeukan bixigu lardaskatua kentzen dio.)*
EZTI.—Enuen esango orren barru-txarrekoa ziñanik.
KOIPE.—Kukurrukua al dek egin bear dan guzia?
EZTI.—*(Pozez.)* Bai. Zuk egingo al zenuke?
KOIPE.—Nik edo. Nere ollarrak.
EZTI.—Benetan esaten al didazu?

KOIPE.—Bai, motell. Kukurruku kontua izan ezkero eztiat nik iñork bultz egin bearrik.

EZTI.—(KOIPE *bizkarrean joaz.)* Zu zera gizona, zu. Gizonak nortzuek diran garaia danean ezagutzen dira.

APALLU.—*(Aserrez.)* Eztiak nik gizontasunik galdu. I abil gizontasuna galduta; ez ni.

KOIPE.—Ez adi estutu, kukurrukua ederki joko duan ollarra emen zeukaguta. (APALLU'*ri artzen dio ollarra.)*

EZTI.—Zurea altzan?

KOIPE.—Bai, nerea; emen inguruan danik ollarrik bikaiñena ala ere.

EZTI.—Eta ollar onek joko ezpalu?

KOIPE.—*(Egiñaz.)* Kukurrukuuuuuu!!!

EZTI.—Bejaundeizula! Bikain egin dezu. (APALLU'*ri isekaz.)* Miauuuu!!!

MARI-DOMINGI.—(DON PELLO'*ren atetik agertuaz.)* Arratsalde on, guzioi. *(Otarra bat du.)*

EZTI.—Baita zuri ere, nere izarra.

APALLU.—Zer arpegi alde den ori?

MARI-DOMINGI.—Bizirik utzi nauanean enaiz aserre!

APALLU.—Kapoiak orrela erpakatu?

MARI-DOMINGI.—Kapoiak edo, inpernuko deabruak.

KOIPE.—Ezin diteke kapoiak ori egin.

MARI-DOMINGI.—Ezetz? Orrek esango dizu.

EZTI.—Esan dizkiotet len ere, aizkoraz kapoia il degula.

MARI-DOMINGI.—*(Otarratik ollarra atera ta erakutsiaz.)* Ona emen sinestu nai ezpadezute.

KOIPE.—Zer...? *(Burura eskuak eramanaz.)* Ai, ene!!

EZTI.—*(Larriturik.)* Zer dezu?

APALLU.—Zer dek?

KOIPE.—*(Naigabe aundiz.)* Nere ollarra!!!

MARI-DOMINGI.—Zure ollarra au?

KOIPE.—Bai, nere ollarra da. Nere ollarra il dezute.

MARI-DOMINGI.—Ezta egia?

KOIPE.—Nere ollar gaxoa!

APALLU.—Or dekan ori norena dek ba?

KOIPE.—Naidoanena nai bada. Agur nere biarko ollar jokoa ta agur nere izen ona ere.

APALLU.—*(Isekaz.)* Ja, ja, ja, jaaa. Gaur gabean kukurruku elizan jotzeko danak; biar plaza erdian ere jo dezala. Ja, ja, jaaa.

MARI-DOMINGI.—Ezta au zure ollarra; nere nagusiari maisterrak ekarri dioten kapoia baño. Ez al da egia, Ezti?

EZTI.—Bai, egia da.

KOIPE.—Ezin diteke, Potxologaz neuk bialdu diot Apallu'ri ta. Ez al dek egia, Apallu?
APALLU.—Etzekiat, onek eman ziak eta.
KOIPE.—Ik artu al diok Potxolo'ri?
EZTI.—Bai.
MARI-DOMINGI.—Eta zuk ez al diozu Peru'ri artu?
EZTI.—Bai.
APALLU.—*(Parrez.)* Eta ik ez al dituk kapoia ta ollarra jabez aldatu?
EZTI.—Eztakit.
KOIPE.—Nik bai, bazekiat. Ederrak egin dizkiguk.
MARI-DOMINGI.—Ollarra, kapoitzat sartu neri.
EZTI.—Nik...?
MARI-DOMINGI.—Bai, zuk.
KOIPE.—Eta kapoia neri eman.
EZTI.—Nik?
KOIPE.—Bai, ik.
EZTI.—Barkatu.
KOIPE.—Barkatu nik iri?
APALLU.—*(Isekaz.)* Kukurrukua botatzera joango aiz baña?
KOIPE.—*(Asserrez.)* Ni kukurrukua botatzera joan? Ildako ollarrak edo kapoiak bota bearko ziotek; ez nik.
MARI-DOMINGI.—Eta neri ollar gaiztoak egin ditan arpegia gañera!
EZTI.—Barkatu.
MARI-DOMINGI.—Zer esan bear dite gaur gure etxean, arpegi au onela ikusita?
APALLU.—Eta zer esan bear dit neri nere emazteak?
KOIPE.—Maturrok neregatik esan bear dituanak!!
ELIZ-KANTARIAK.—*(Oso lotsagabe agertuaz.)* Ezti, gure goxoak?
EZTI.—Laba gañean dauzkazute.
ELIZ-KANTARIAK.—*(Bat baño bestea lenago joan nairik goxotegira joaten dira.)*
KOIPE.—*(Kapoia* MARI-DOMINGI*'ri emanaz.)* Artu zan ire kapoia.
MARI-DOMINGI.—*(Kapoia artuaz ta ollar ildakoa emanaz.)* Bai, bai; bakoitzari berea.
APALLU.—"Betiko legea."
ATAUN.—*(Agertuaz.)* Zer gertatzen da? Eztitut nik arpegi alaiak emen ikusten! Zuek ikusiz gero, Gabon-arratsaldea degunik ezin esan liteke.
APALLU.—Gabon-eguna? *(Bixigu erdi-jandakoa erakutsiz.)* Onekin alaituko diagu asko.
KOIPE.—*(Ildako ollarra erakutsiz.)* Eta onekin jokoa irabazi biar.
MARI-DOMINGI.—*(Kapoia erakutsiz.)* Eta, Dama Justa'ri, zuk sartuko diozu au kapoia dala.

ELIZ-KANTARIAK.—*(Goxotegitik goxoak egiteko ontzi-zabala botako dute antzestoki erdira guzia kedar egiña.)*

GUZIAK.—*(Izuturik.)* Zer da? Zer da?

ELIZ-KANTARIAK.—*(Oso aserre irtetzen dute ta* EZTI*'rengana joanaz.)* Zeuk jan nai badituzu goxo oiek.

ELIZ-KANTARIAK 1.°—Gu ezkaude kedarra jaten oituak.

ELIZ-KANTARIAK 2.°—Ederra Gabon-erregalua.

ELIZ-KANTARIAK 3.°—Mari-Domingi'k kantatuko dizu Ollarraren Meza.

ELIZ-KANTARIAK 4.°—Guri ez dei egin geiago. Naikoa dezu Mari-Domingi.

MARI-DOMINGI.—Ni naikoa? Zertarako?

ELIZ-KANTARIAK 1.°—Goxotegian etxeko andre izateko.

MARI-DOMINGI.—Ni goxotegira etxeko-andre?

EZTI.—Eziozu sinestu.

ELIZ-KANTARIAK 3.°—Egia da. Zutzaz txoratua dago ta biar zuri abesti-konziertua emateko asmotan dabil.

MARI-DOMINGI.—Neri konziertua? Tokitan egongo gaituk biar. Ezta, Ataun?

ATAUN.—Bai. Gertu altzaude joateko?

MARI-DOMINGI. Bai. *(Poz-pozez.)* Agur, guzioi. Ta Eguarri zoriontsu.

ATAUN.—Ezti, Mari-Domingi'rentzako konziertua Amitx basarritik entzungo diagu. (ATAUN *eta* MARI-DOMINGI *joaten dira.)*

ELIZ-KANTARIAK 1.°—Guazen gu ere. Bere izeko Pruentxi'k kantatuko dio gure ordez. *(Joaten dira.)*

KOIPE.—Baniak ni ere, Apallu. *(Joaten da.)*

APALLU.—Ni ere laster joango nak. *(Bizartegira joaten da.)*

AZKENENGO AGERALDIA

EZTI, PRUENTXI ta OLENTZERO-TALDEA

EZTI.—*(Oso naigabeturik* APALLU*'ren amu-aulkira joan eta an exeriko da, bere arpegia esku biaz estaliaz.)*

PRUENTXI.—*(Zerbait jakin da bezela agertuaz* EZTI*'rengana zuzenduko da. Beltzez jantzia, buruko oialez eta eskuetan argizagi ta giltzak dituala.)* Nere illoba kutuna! Zer egin die mutiko lotsagabe oiek? Zer? *(Aulkian exeri ta* EZTI *buruan igurtziaz.)* Ez adi naigabetu. Alaitu adi, Gabon-eguna eztek burua makurtuta egoteko eguna-ta. "Sursum corda." Gorantz biotzak. Jaiki adi ta ator etxera, emen aulki ontan egon gabe Gabon-egun aundian. *(Bera jaiki ta* EZTI*'ri.)* Entzun dek? Ator, ba, mutil, ator etxera.

OLENTZERO-TALDEA.—(*"Sursum corda"* PRUENTXI*'k esaten duanean, sagardotegitik irtetzen edo agertzen asiko dira ta sagardotegiko ate aurrean bildurik, "Ator, ator mutil etxera" abestuko dute* PRUENTXI*'ren itzak bukatzean.)*

"Ator, ator mutil etxera,
Gaztaña ximelak jatera,
Gabon-gaba ospatutzeko
Aitaren ta amaren onduan.
Ikusiko dek aita parrez ta
Amare poz ta atsegiñez.
Eragiok mutil,
Aurreko danboliñari,
Gaztañak erre artean *(Bitan.)*
Xipli, xapla, pun,
Gabon-gaba pozik igaro daigun.

AMAIA

1956 gko. Azaroa'ren 29'an.

ARKOTXA eta MARTIJA'tar J. A.



PUBLICACIONES

DE LA

REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS

Delegada del Consejo Superior de Investigaciones Científicas en Guipúzcoa)

MONOGRAFIA DE D. XAVIER MARIA DE MUNIBE, CONDE DE PEÑAFLORIDA, por Gregorio de Altube.

LA EPOPEYA DEL MAR.
por M. Ciriquiain-Gaiztarro. (Agotado)

PASADO Y FUTURO DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA, por José María de Areilza.

HISTORIA DEL MONASTERIO DE SAN TELMO, por Gonzalo Manso de Zúñiga y Churruca.

ELOGIO DE D. ALFONSO DEL VALLE DE LERSUNDI, por Joaquín de Yrizar.

BREVES RECUERDOS HISTORICOS CON OCASION DE UNA VISITA A MUNIBE por Ignacio de Urquijo.

LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS Y LA METALURGIA A FINES DEL SIGLO XIII, por Manue Laborde.

REVISTAS

BOLETIN DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS.
Ejemplar suelto: 20 Ptas.
Suscripción anual: 60 »

EGAN: Ejemplar suelto: 10 Ptas.
Suscripción anual: 35 »

Suscripción anual conjunta a BOLETIN EGAN: 80 Ptas.

MUNIBE.—Revista de Ciencias Naturales
Número suelto: 10 Ptas.

Redacción y Administración: Museo de San Telm

SAN SEBASTIAN

ESCELICER, S. A
SAN SEBASTIAN